



Bakegileen azalpena
ETAren armagabetzearen
azken faseko
gertakari errealei buruz

**2024ko abenduaren 16a,
BAKEGILEAK**

AURKIBIDEA

SARRERA.....	5
--------------	---

HISTORIAREN BERRIDAZKETA BAT, GEZURREZKOA ETA INTERESATUA	7
--	---

• Luhusok lerroak mugiarazi ditu.....	8
• Frantziako lehen ministroaren argibideak	8
• Frantziako gobernuarekiko harremanei buruz	10
• Truke itxaropentsuak, Gasteizek gutxietsiak.....	11
• Apirilaren 8ko dataren iragarpena Le Monde egunkarian.....	11
• «Dena espero bezala joan zen».....	12
• Arkautiko bilkura: agiri baten inguruko eztabaida	12
• Gezur onartezinak.....	13
• Elkartrukeen bidez arian-arian eraikitako gidoi bat	14
• Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hamar bilera.....	14
• PPri sinestea Bakegileei sinetsi beharrean	15
• Zehaztasun falta, ez esateak eta egia ez diren adierazpenak.....	16
• Armagabetzearen lege-markoaz	17
• Bidean jarraitzea	19

BAKEGILEEN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEKO HAMAR BILEREN AKTAK ETA TESTUINGURUA.....	20
--	----

Otsailak 6, astelehena, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko 1. bilera	20
---	-----------

• Luhusoko operazioa Eusko Jaurlaritzako ordezkarietara kontatua	21
• Haien helburuak eta egiten ari diren lana aurkeztu zioten Bakegileek Eusko Jaurlaritzari.....	21
• Eusko Jaurlaritzaren analisia	22
• Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarrizketa.....	23
• 2017ko otsaileko testuinguruari dagozkion elementuak.....	24
• Bakegileen analisia.....	25
• Hiru agertoki posibleak.....	26

Martxoaren 1a, asteazkena, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko 2. bilera	27
--	-----------

• Bakegileek Eusko Jaurlaritzari informazioa eman zioten	27
• Eusko Jaurlaritzaren jarrera.....	28

Martxoaren 8a, asteazkena, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko 3. bilera	29
Martxoaren 12a, igandea, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko 4. bilera.....	29
• Bakegileen agertokia	30
• Bakegileek proposatutako eskemaren helburuak.....	30
• Eusko Jaurlaritzaren iritzia.....	31
• Bakegileen zehaztapenak	32
• Gertaeren berehalako segidari buruz	33
Martxoaren 16a, osteguna, Bakegileen et Eusko Jaurlaritzaren arteko 5. bilera	34
• Martxoaren 16a, osteguna, gauean, Eusko Jaurlaritzaren eta Bakegileen arteko solasaldi telefonikoak	35
• Martxoaren 17a, ostirala, arratsaldean: Eusko Jaurlaritzaren eta Bakegileen arteko telefono bidezko eztabaida.....	36
Martxoaren 20a, astelehena, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko 6. bilera	37
• Hedabideetako filtrazioen arazoa.....	37
• Kontakizunaren bataila.....	38
• «Ez dago akordiorik Frantziako Gobernuarekin».....	39
• Bilerak Bernard Cazeneuve lehen ministroarekin, Eric Morvan prefetarekin eta Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehendakariarekin.....	40
Martxoaren 22an, asteazkena, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko 7. bilera.....	42
• Eusko Jaurlaritzaren iritzia eta eskaerak	42
• Bakegileen erantzuna	43
• Eusko Jaurlaritzaren desadostasuna eta tentsio nabarmena.....	43
• Bakegileak Jaurlaritzaren aurreikuspenak erlatibizatzen saiatu ziren.....	43
Martxoaren 26an, igandea, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko 8. bilera	45
• Bakegileen informazioa, zehaztapenak eta zuzenketak.....	45
• Eusko Jaurlaritzak bereari eutsi zion	48
• Bakegileek azalpenak ematen zituzten berriz ere	49
• Eusko Jaurlaritzaren presentziarako baldintzak	50
• 2017ko martxoaren bukaerako testuinguruaren elementuak eta lehen elkarrizketa operatiboak Frantziako Gobernuarekin.....	50
Martxoak 30, osteguna, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko 9. bilera.....	51
• Bakegileek azken informazioen laburpen bat aurkeztu zioten Jaurlaritzari	51
• «Amildegirantz zoazte!»	52
• Aldez aurretik aurreikusitako emaitza?	52
• Eusko Jaurlaritzaren eta Bakegileen arteko azken solasak.....	53

• Martxoaren 31n Baionan.....	54
- Apirilaren 8aren garapena.....	54
- Aurre-bilera.....	54
- Zehaztaperen eskaera	55
- Puntu problematikoaren laburpena.....	56
• Apirilaren 3an Bordelen.....	56
• Apirilaren 5ean Baionan.....	57
• Apirilaren 5ean, Arkautiko bilera	59
• Apirilaren 6 eta 7an, prentsa ohar baten inguruko eztabaida biziak	59
• Apirilaren 7an, Bakegileen eta Frantziako gobernuaren arteko azken negoziazioak.....	60
• 2017ko apirilaren 8a.....	61
• 2017ko apirilaren 8aren ondoren	64

2017ko Maiatzaren 12a, ostirala, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko 10. bilera Baionan 65

• 2019ko urria.....	67
• 2016ko urrian idatzitako hitzarmena, etorkizuneko Bakegileen filosofia, balioak eta printzipioak zehazten dituen.....	67

SARRERA

2011ko Urriaren 17ko Aieteko adierazpenarekin abiatutako ETaren bukaera, 2017ko Apirilaren 8ko armagabetze osoarekin eta 2018ko maiatzaren 3ko desegitearekin gauzatu zen. Bakea eraikitzeke zegoen. Bakea ez da soilik Euskal Herriak 1936ko Francoren estatu-kolpeaz geroztik ezagutu duen indarkeriaren bukaera. Historia mingarri luze honek zorroztasuna eta erabateko inpartzialtasuna exijitzen dizkie haren idazketan ekarpena egin nahi dutenei.

Zoritxarrez, ETaren armagabetzea eta desegiteari buruz Eusko Jaurlaritzak 2019ko Urrian plazaraturiko dokumentuak ez du exigentzia minimo hori errespetatzen. Armagabetze prozesuan inplikazio handia izan genuenok, dokumentuan hamaika aldiz aipatuak garen heinean, funtsezko zuzenketak egin nahi ditugu. Eusko Jaurlaritzaren eta gure artean estrategia baten edo bestearen inguruko ikuspuntu ezberdinak egon balira, gauza baten edo bestearen inguruko analisia ezberdinak egin izan bagenu, gauza normala zatekeen, eta ez zukeen gure partetik, azalpen publiko hau ekarriko. Arazoa da, desadostasunez haratago, dokumentu ofizial horrek mintzen gaituzten gezurrak barnebiltzen dituela eta are onartezinagoak direla haien egileak idatzia Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen aldeko Memoria Historikorako artxibatu dituela kontuan hartuta.

2019ko Urriaren 14an dokumentu hura publiko egin zelarik, eta zenbateraino auzitan jartzen gintuen ohartuta, kazetari ugari interpelatu gintuen gure erreakzioa jasotzeko. Minimoetara mugaturiko erantzunaz haratago, ez genuen gehiago garatu nahi izan, gai honetaz hitz egitera beranduago itzuliko ginela esan genuen.

Bake prozesuaren aurrerapenak eskatzen zuen lan erraldoian murgildurik, behin baino gehiagotan atzeratu dugu erantzunaren argitalpena, nahiz eta ordutik zatirik handiena idatzia izan. Hainbat gertakari bizi izan ditugu, hainbat Bakegileren heriotza barne, besteak beste Mizel Bergouignan, Michel Tubiana zein idazketan parte hartze aktiboa izan zuen Mixel Berhocoirgoinena.

2024an iragan da bi bakegileren epaiketa, zeina Béatrice Molle-Haran eta Txetx Etcheverryrentzako zigor-salbueste batekin bukatu baitzen. *“Luhuso-2017ko Urriaren 8a sekuentzia”* egin zuten hainbat elementu plazaratzeko aukera eman zuen gertakari horrek, -prentsan zein epaitegian- orduko Frantses gobernuko lehen mailako hainbat ordezkariaren lekukotasunekin.

2019ko Urrian harturiko gure konpromisoari eustea baino ez zen falta, hots, 2017ko Urtarri-laren eta Apirilaren artean batez ere, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren artean benetan gertatu zenaren inguruko egia kontatzea.

Eusko Jaurlaritzaren dokumentuak mindu gaitu, gure konpromisoen oinarrian dauden printzipio politiko eta etikoak desitxuratu ditu. Ez dugu ulertzen Eusko Jaurlaritzak nola eta zergatik idatzi ahal izan duen hainbat ataletan errealitatearen aurkakoa den kontaktuzuna hain sentikorra den gai honen inguruan ? Geroago ikusiko dugun gisara, nola erantsi ahal izan dizkigu behin eta berriz ukatzen genituen intentzioak , Gure solaskideekin harreman zintzoa genuela uste genuen arren, agerian gelditu da nola gure ekimenarekiko ala gurekiko zuten konfiantza falta. Ez dugu haien helburua zein izan den ulertzen. Nahiago genukeen zuzenketa hau egin behar ez bagenu, baina, gaur, egia mahai-gaineratzea da-gokigu; baita memoria historikoaren ikuspegitik ere...

Iniziatiba honek ez du ezertan aldatzen Eusko Jaurlaritzak Hego Euskal Herrian izandako torturaren, polizia-indarkeriaren edo biktima guztien errekonozimenduaren alde egindako ezinbesteko lanari, bizikidetza sustatzeko egindako ekimenei, Nazioarte Egiaztatze Batzordeari emandako babesari edo espetxe-eskumena eskuratu duenez geroztik presoiei irtenbide bat eskaini eta pixkana salbuespenezko-erregimenari bukaera eman izanari buruz dugun iritzi positiboa. Haatik, konbentziturata gaude bake justu eta iraunkorrerantz aurrepausoak egiteko nahiz bizikidetza eraikitzeko, Euskal Herriko herritarren eta instituzioen arteko osagarritasuna zein elkarrekiko konfiantza beharrezkoak direla.

2024ko abenduaren 16a,

Bakegileak



HISTORIAREN BERRIDAZKETA BAT, GEZURREZKOA ETA INTERESATUA

2019ko urriaren 14an, Eusko Jaurlaritzak txosten bat argitaratu zuen, «*Eusko Jaurlaritzak ETAREN armagabetzean eta desegitean izandako eginkizunaren deskribapena eta balorazioa*» izenekoa, 116 orrialdekoa, ia erdia eranskinez osatua. Eusko Jaurlaritzak berak idatzitako kontakizuna osatzen duten 65 orrialdeetatik, hamabost bat ETAREN armagabetzeari buruzkoak dira, eta bereziki 2016ko abenduaren 16an Luhusoko ekintzatik 2017ko apirilaren 8an Baionan armagabetze egunera arteko sekuentziari buruzkoak.

Egun batzuk geroago, Bakegileek agiri bat bidali zioten prentsari, «*Eusko Jaurlaritzak eta Bakegileek ETAREN armategia desegiteko egindako harremani eta bilerei buruzko edukia*» formalki zalantzan jarritz: «*Historiaren berridazketa bat da, gezurrezkoa eta guztiz interesatua. Irakurleak batzuetan atera dezakeen ondorioa guztiz kontrakoa da, makurrik eta atxiloketarik gabe iragan den ETAREN armagabetze osoan Eusko Jaurlaritzak izan duen paperari doakionean*»

Luhusok lerroak mugiarazten ditu

Eusko Jaurlaritzaren txostenaren irakurketaren ondorioz erabaki dute Bakegileek, aldi berean, argitara ematea Jaurlaritzako ordezkariekin izan dituzten hamar bileren zerrenda eta testuinguruaren elementuak, horien irismena hobeto ulertzeko, adibidez, Bakegileek Frantziako gobernuarekin aldi honetan zehar izan dituzten zenbait eztabaida.*

Eusko Jaurlaritzaren helburua argi eta garbi ikusten da bere txostena irakurrita: bere egitateen aurkezpen faltsuarekin eta bere gezur ugariekin Bakegileak eta ETaren erabateko armagabetzea gauzatzea ahalbidetu duen haien lana gutxietsi nahi ditu, prozesu honen arrakastan izan ez duen protagonismoa eta ekarpena bere buruari esleitzeko. Armagabetzea «istilurik eta atxiloketarik gabe» gauzatu ahal izan bada, Bakegileek apurka-apurka eraiki duten gidoiari jarraikiz izan da, baina Eusko Jaurlaritzak irrealizat, arduragabetzat eta porrotera kondenatutzat jo du.**

Eusko Jaurlaritzak «Artisauak» deitzen die bere txostenean Luhosoko operazioaren ondorioz izandako atxiloaldian iritzi publikoak «Bake artisauak»*** izendatu dituen. Plan honen garapenak porrot egin zuela zion****. Hala ere, Luhosoko ekintzak argi eta garbi desblokeatu zuen egoera, eta Frantziako eta Espainiako gobernuen jarrera aldatzea ahalbidetu zuen. Horrela, 2017ko otsailaren 24an, Bruno Le Roux Frantziako Barne ministroak mezu bat bidali zien Bakegileei, Frantziako presidentearen eta Cazeneuve lehen ministroaren hurbileko Frédérique Espagnac senatari sozialistaren bitartez. Mezu honetan Bakegileei jakinarazten zien armagabetzea egiten uztea erabaki zuela, eta Espainiako gobernuari hala azaldu ziola, azken hori ados zegoela edo bederen onartu zuela.

Bakegileek mezu horren edukiaren berri eman zioten Eusko Jaurlaritzari martxoaren 1etik aurrera. Hala ere, aipautako txostenean, Jaurlaritzak adierazten du martxoaren 14an Rajoy***** presidenteari armagabetzea ez eragozteko iradoki ziola. Frantziako Gobernuarekin «*armagabetzearen joko eta legezketasun arauak ezartzea*» egokitzen jotzen du. 5-6 atalean dioenez, «*jarraian ikusiko den bezala, Lehendakariak egindako bi iradokizunei arreta jarri zitzaion. Rajoyk eta Espainiako Gobernuak ez zuten galarazi armagabetzea eta ez zuten Frantziako Gobernuak bultzatu egitera, eta Frantziako Gobernuak legezko joko-arauak ezarri zituen armagabetzea gauzatzen uzteko*». Laburbilduz, Luhosoko operazioaren ondoren, Frantziako gobernuak izan duen papera modu patetiko samarrean gorapatzen du. Egia esan, ezin da ulertu zergatik ezin izan zen armagabetzea gauzatu Luhoson baino askoz lehenago...

Frantziako lehen ministroaren argipenak

Aurrerago, bere kontaketa 5-7 zatian, Eusko Jaurlaritzak Frantziako gobernuarekin zuen harremana aipatzen du, Parisek armagabetzearen dosieraren eta Bakegileek zuen harremanaren kudeaketa arian-arian garatzen ari zela pentsarazteko. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren «solaskideek» Frantziako agintariekin harreman ona zuten eta Eusko Jaurlaritzari informazio batzuk, partzialak, helarazten zizkioten baina ez zuten eginkizun zuzenik

*Hauen aktak irakurgai dira hurrengo orrialdeetan.

** Harrigarriena da, 7 urte baino gehiago igaro ondoren, horri buruzko zalantzarik ez dagoenean, Eusko Jaurlaritzak irreal dela pentsatzen jarraitzen duela, benetan gertatu diren gertaeren ebidentziaren aurka. Badirudi ez dela egitateen errealitatea aztertzeke gai, eta badirudi bere kontakizun birtualean bakarrik bizi dela.

*** Azken urteetan, jendarte zibileko pertsona hauek haien burua izendatzeko erabili duten "Bakegileak" terminoa hobetsi dugu dokumentu honetan.

**** «*El desarrollo de este plan fracasa antes de empezar.*» «*Plan honen garapenak porrot egin zuen hasi aurretik*» 5-3 parteak.

***** Espainiako gobernuko presidentea, Frantziako medioetan maiz "lehen ministro" gisa izendatzen dutena.

Parisekin egiten ari ziren negoziazioetan, eta ez zuten Frantziako Gobernua ordezkatzeko afera horren kudeaketan, Bakegileek sekuentzia horretan zehar zituzten solaskideek ez bezala.

Geroztik, Sud-Ouest egunkariak 2024ko apirilaren 10ean argitaratutako elkarrizketa batean, Bernard Cazeneuve lehen ministroak argi eta garbi baieztatu zuen hori modu publikoan.

Sud-Ouest : Nola lortu zen ETArekin armagabetzea 2017ko apirilaren 8an?

Bernard Cazeneuve : *ETArekin lotura zuzenik ez zuten eta haien konfiantzazko harremanak nituen aktoreek mezu bat helarazi zioten Estatuari: armak itzuli nahi zituztenen asmoak egiazkoak zirela bermatzera etorri ziren. Ez ziren beste modu batzuetan, berriz ere indarkeriazko forma bat har zezakeen borroka bat jarraitzera bideratuko operazio taktiko, politiko baten barnean sartzen.. José Bové, François Dufour, Normandiako Confederation Paysanneko buruetako bat, adibidez, han zeuden eragileekin harremanetan. Konfiantza nuen haiengan. Arma guztiak itzuliko zizkidatela bermatzen zidaten. Puntu guztiz zentrala zen niretzat, ordena publikoaren nahasmendu larrien arrisku oro geldiarazteko. (...) «Oso modu pragmatikoan bizi izan dut pasarte hau. ETAk bere armak entregatzea erabakitzen du, armen zirkulazioaren eta trafikoaren aurkako borrokaren testuinguru batean. Orduan, Frantzia atentatu terrorista oso hilgarriek markatzen dute. Giro hartan, estatu arduratsu baten eginkizuna zen baretzea bultzatzea. Beraz, borondatez sartu nintzen horretan, konfiantza nuen aktore batzuekin harremanetan. (...)*

Sud-Ouest: Éric Morvan zen orduan Pirinio Atlantikoetako prefeta. Baionako suprefeta izan zen eta baita zure kabineteko zuzendariordea ere Beauvaun*. Pertsona egokia leku egokian...

Jakina, Pirinio Atlantikoetako prefetaren partetik, proposatzen zidaten dispositiboaren fidagarritasunari buruz, informazio biziki zehatza nuelako baino ez nuen egin. Morvan eta biok konfiantza handiko harremana dugu. Itzulketa horren urrats guztiak kontrolatzeko ardura eman nion, inolako akatsik gabe burutu zedin. Hala gertatu zen, gainera. Beneratan fidatu naiz nire administrazioaz, eta, aldi berean, oso jarraibide zorrotz eta sendoak eman dizkiot. Eta nire solaskideengan fidatu naiz: François Dufour eta José Bove.

Sud-Ouest: apirilaren 8ko «modus operandi» gutxienez ikonoklasta da: erakunde terroristar baten desarmatzea, Estatuarekin elkartutako gizarte zibilak eginga. Nola baliozkotu zen?

Prefeta, Barne ministroarekin batera, gidoi bat prestatzen aritu zen. Gidoi honen fidagarritasuna bermatzen zidaten. Orduan erabaki zuten itzulketa agintzea. Hori Matthias Fekl Barne ministroaren lan zorrotz batean oinarriturik, berarengan konfiantza osoa bainuen, guztia Éric Morvanekin lotura estuan. (...)

Sud-Ouest: Luhusoz geroztik, Estatuaren solaskide zibil nagusiak ikerketapean daude, «terrorismo» auzi batean. Fidatzea erabakitzeak arriskua zekarren...

Bai, baina hori da estatuaren kudeaketa. Irmotasunik handiena eta konfiantza dosi bat gizateriarengan. Baldintzak bete behar dira egoerak baretzeko, nahasmendu berriak saihesteko. Hor testuinguru bat egon da, gizatalde bat, konfiantza bat... Armagabetze operazio bat egin genuen, besterik ez. Aukera izanez gero, gai izan behar da erabakiak hartzeko baretzearen alde, segurtasunaren alde. Estatu zentzua badugu, hartu egin behar ditugu.

*Frantziako barne ministerioaren egoitza

Frantziako gobernuarekiko harremani buruz

Eusko Jaurlaritzak oker dabil 5-7 zati horretan bertan honako hau idatzi zuenean: *“Azkenik, Frantzia armagabetzea ez galaraztea ez ezik, azken egunetan, Poliziaren eta Artisauen arteko harremanen bidez oker handiagoak ekiditen eta armagabetze-operazioaren azken fasean ordena piska bat jartzen saiatu zen, “behatzaile boluntarioen” presentziari dagokionez zehazki”*. Errealitatean, 2017ko apirilaren 8aren aitxineko azken fasean, Frantziako Gobernuaren eta Bakegileen arteko eztabaida eta bilkura operatiboak ez ziren *«Poliziaren eta Bakegileen arteko harremanen bidez»* iragan, prefeten bidez baizik, eta bereziki Eric Morvan prefetaren bidez*. Argitu behar dugu ez dutela ia zerikusirik izan Bakegileak arma gordelekuetan egotearekin. Frantziako Gobernuko ordezkariekin inoiz tirabira puntu bat izan ez duen auzi horrek Eusko Jaurlaritzak bakarrik tratatzen zuela zirudien.

Frantziako Gobernuko ordezkariak, bestalde, Eusko Jaurlaritzak Bakegileek apirilaren 8an egin nahi zuten jardunaldiarekin zituen desadostasunak aipatu zituzten, Gasteizek bere kezak argiki adierazten zizkielarik bere kontaktu frantsesei.*

Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren desadostasun horiek, Bakegileak arma gordelekuetan egoteari buruz edo egun bakar batean armagabetzearekin lotutako operazio guztiak egiteari buruz adibidez, inoiz ez dira arazo bat izan Parisen eta Bakegileen arteko eztabaidetan. Frantziako Gobernuarekin elkarrizketetan zuzenean parte hartu duten eta 2017ko apirilaren 8ko garapena adostea lortu duten Bakegileen ordezkariak ez dute segundo bakar batez ere sinesmenik Eusko Jaurlaritzaren txostenaren egiazkotasunean, hala nola *«Frantziako Gobernuak armagabetzearen “boluntario behatzaileen” ideia ausarkeria zorotzat jo zuten. 5-7 zatian. Ez dute uste, halaber, Frantziako agintariak Eusko Jaurlaritzari iradoki diotenik, 5-9 zatian idatzi duen bezala, 24 orenez aurrerazi zezala Frantziako justiziari arma gordelekuei buruzko informazioa: sekula ez da horrelakorik aipatu Frantziako gobernuaren ordezkariekin izan dituzten eztabaida anitzetan. Ideia hori teknikoki bideraezina zen Bakegileentzat eta Eusko Jaurlaritzak eraiki nahi zuen «kontakizun» zehatzari zegokion soilik.*

Oro har, harrigarria dirudien arren, Bakegileek askoz harreman sinpleagoa eta eraikitzaileagoa izan zuten Frantziako gobernuarekin Eusko Jaurlaritzarekin baino. Bakegileen eta garai hartako Frantziako gobernuaren arteko harremanak zintzoak eta konfiantzazkoak izan dira beti, baita ezadostasunak kudeatu behar izan diren uneetan ere. Horrek guztiak, gainera, emaitza paradoxiko hau ekarriko du: Matthias Fekl Barne ministroa eta Eric Morvan prefeta, 2017ko apirilaren 8an, 2024ko apirilaren 2an Beatrice Molle-Haran eta Txetx Etchevery Bakegileen alde deklaratzera joango dira, Luhusoko ekintzari buruzko epaiketan, Eusko Jaurlaritzak inolako babes edo begikotasunik emango ez die-nean.

* Bilera operatiboen azken fase hau baino lehen, Parisen eta Bakegileen arteko elkarrizketa politikoa hainbat modutan egiten zen: lehen ministroaren edo barne ministroaren eta Bakegileen artean, François Dufour, José Bove, Justizia ministro ohi bat, Frédérique Espagnac senataria edo Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehendakariaren bidez. Stéphane Le Foll Frantziako Gobernuko bozeramaileak eta Bakegileek ordezkari batek ere zuzeneko bilera egin zuten. Azkenik, Jean-Marc Ayrault Atzerri ministroaren kabinetearan eta tokiko parlamentarien eta Bake Bideko ordezkarien artean eztabaida zuzenak izan dira.

** 5-7 zatian, Eusko Jaurlaritzak *«Frantziako agintariekin izandako harremanetan»* izandako ustezko eztabaiden berri ematen du, eta ematen du berak esandako hitz berberak egiten dizkiela. Adibidez, Frantziako Gobernuarentzat, *«armagabetzean nahasten direnek neurri ez desiragarriak hartuz behartzen dituzten eszenografiak ekidin behar dituzte, jai-ekitaldiak antolatzearen edo zuloetara polizia-jardueraren behatzaile gisa joango ziren boluntarioek izen-ematea gauzatzeko deialdi publikoak egitearen ideari aipamen argia eginez»*. Bakegileek Frantziako Gobernuaren ordezkariak inoiz ez baitzioten horrelako hitzik ezta halako eskaerarik egin ere, sentitu zuten Eusko Jaurlaritzak ahalegin handia egiten ari zela Frantziako Gobernuaren aurrean, NEBen aurrean eta geroago Jean-René Etchegarayren aurrean, Bakegileen planean ukatzen zuena kolokan ezartzeko, hura desitxuratu, jakina, solaskideak bere posizioetara ekartzeko.

Eztabaida itxaropentsuak, Gasteizek gutxietsiak

Paris eta Madril kooperatiboagoak izatea ahalbidetuko duen Eusko Jaurlaritzaren tesiari sinesgarritasun handiagoa emateko, Gasteizko txostenak behin baino gehiagotan aurreratu du Frantziako gobernuari zuzendutako Bakegileen mezuek ez zutela erantzunik jasotzen. Adibidez, 5-4 zatian dio «2017ko otsailean, Artisauek Eusko Jaurlaritzari ziurtatu zioten bezala, Frantziako Gobernuari zuzendutako mezuek, urtarrilean zehar, ez ziren erantzunik jasotzen ari». Martxoaren 1ko data aipatuz berriz, «Frantziako Gobernuarekin harremanek emaitza argirik eman gabe jarraitzen zuten» zehazten zuten. Hala ere, garai hartan, Bakegileek hainbat harreman izan zituzten, zuzenekoak eta zeharkakoak*, Frantziako gobernuarekin (eta bereziki Bernard Cazeneuve lehen ministroarekin, Bruno Le Roux barne ministroarekin eta Jean-Marc Ayrault Kanpo Arazoetako ministroarekin), eta Eusko Jaurlaritzari eztabaida horien edukia jakinarazi zioten: orduan, Frantziako gobernuari armagabetzearen aurrean egiten uzteko jarrera berri baten aurrean geunden, eta Bakegileek jarrera horri jarraitu nahi zioten, benetako hitzarmen operatibo bat lortu arte. Bakegileek azaldu ere egin zuten 2017ko otsailaren 17an bilera luze bat izan zutela bere ministerioan Stéphane Le Foll Frantziako Gobernuko bozeramailearekin. Beren asmoak eta igurikimenak xeheki azaldu ahal izan zizkiotenean, azken horrek lehen ministroari haien berri emateko konpromisoa hartu zuen. Baina martxoan, Rajoy presidenteak Urkullu lehendakariari** esan zion Frantziako Gobernuak adierazi ziola bilera hori ez zela inoiz egin, eta Bakegileak ez zirela berarekin harremanetan jarri. Badirudi Eusko Jaurlaritzak Rajoy presidentea sinetsi duela, Bakegileak baino gehiago.

Apirilaren 8ko iragarpena Le Monde egunkarian

Luhusoko operazioak eta haren oihartzun handi eta ozenak Frantziako Gobernuaren ildoak aldatzea lortu badu, eta hurrengo asteetan armagabetzea «egiten uztea» erabaki badute, Le Monde egunkarian apirilaren 8a ETaren erabateko armagabetzearen eguna izango dela iragarri izanek eraman zuen Paris arrisku politikorik gabeko jarrera pasibotik Bakegileekin kooperatzera. 2024an Eric Morvan prefetak diplomatikoki adierazi zuen bezala, lankidetzak aktiboa, «zuzenbide hutsaren ikuspuntutik muga zeharkatzetik arras hurbil izan zitekeena»***. Baina inplikazio zuzen horrek ahalbidetu du armagabetzea bere osotasunean garatzea, inolako istilurik eta atxiloketarik gabe.

Bakegileek uste zuten bezala, data hori Le Monde egunkarian argitaratzeak Frantziako gobernuak bere erantzukizunen aurrean jarri zuen eta Bakegileekin armagabetzearen alderdi operatiboez eztabaidatzera behartzen zuen. Eusko Jaurlaritzak eragotzi nahi izan duen iragarpen publiko horrek kritikak jasotzen jarraitzen du bere txostenean. Alta, gauzak ahalbidetu eta azkartu ditu: Bernard Cazeneuve lehen ministroaren oniritzia, lehen eztabaida operatiboak Morvan prefetarekin eta gero Dartout eskualdeko prefetarekin, operazioak eta eguna behar bezala garatzeko beharrezkoak diren ehunka boluntarioen mobilizazioa...

* Luhusoko bosten atxiloaldian, frantses gobernuko lau ministro eta presidentea bera, François Hollande jauna, interpelatu zituzten zuzenki, Bakegileekin harremanetan ziren bitartekari batzuek, eta dossier honen ez ohizkotasunaz ohartu ziren. Bakegileek eusko jaurlaritzari esplikatzen zioten.

** Euskal gobernuko presidentea

*** Jatorria " Sud-Ouest 2024/03/25"

«Dena espero bezala joan zen»

Lehendakariaren eta Espainiako presidentearen arteko elkarrizketetatik abiatuta, harremanak mintzen dira Eusko Jaurlaritzako ordezkarien eta Bakegileen artean. Eusko Jaurlaritzak apirilaren 8a baino lehenagoko atxiloketei buruz hitz egiten du, egun horretan poliziarekin izan zitezkeen liskarrei buruz, operazioaren erabateko porrotari buruz, NEBak apirilaren 8an etortzeari uko egiteari buruz, etab. Azken finean, ez da horrelakorik gertatu, baina gobernuaren txostenak dio, 5-9 partean, 2017ko apirilaren 8an «dena aurreikusi bezala joan zela». «Kokapen horietan (arma gordelekuak zeuden lekuan), talde txikiak zeuden operatiboa behatzen distantzia batera eta Poliziaren kontrolpean. Zorionez, ez zen istilurik izan».

Izan ere, Bakegileek Beatrice Molle-Haran eta Txetx Etcheverryren epaiketaren aurretik argitara eman zituzten irudietan ikus daitekeenez, Bakegileen behatzaileak ez daude «distantzia jakin batera», baizik eta arma-gordelekuetan bertan, polizia iritsi aurretik inguratzen zituztenak, eta ez azken horren kontrolpean. Polizia eta mina kenzaileak iristen dira; ofiziala, kapitaina, Bakegileen arduradunari identifikatzen da, eta bertan dauden hogeit hamar behatzaileetako bakoitzari eskua ematen dio* eta Bakegileen nortasuna jasoko dela adierazten du, adostua zen bezala, ez «haien aurka deus egiteko», baizik eta «errelebo kontratua gauzatzeko», bideoetan argi eta garbi entzuten den bezala. Giroa lasaia eta ofiziala da, eta hortik landa ez da ikusten Eusko Jaurlaritzaren aipamena zertara datorren: «Zorionez, ez zen istilurik izan». Argi dago, ez zuetala 2017ko apirilaren 8ko egun hartan Bakegileen eta Frantziako Gobernuaren arteko lankidetzaz zuzena egon zela, onartu nahi.

Eusko Jaurlaritzak ez zuen txintik ere esan Bernard Cazeneuve Frantziako lehen ministroaren adierazpenaz, apirilaren 8ko operazioaz, «lasaitasunez eta bortizkeriarik gabe burutua», poztzen baitzen. Esan beharra dago, Urkullu lehendakariak, egun berean irakurritako adierazpenean** ez duela hitzik jendarte zibilak edo Bakegileek armagabetzean izan duten papera aipatzeko, Frantziako gobernuburuak «Bake Artisauek» aipatzen ditu ETaren armategia duten zortzi kokalekuen entregaren eragile gisa.

Arkautiko bilkura: agiri baten inguruko eztabaida

ETaren erabateko armagabetzea ahalbidetu duen prozesuan Bakegileek izan duten protagonismoa gogoratze hutsari uko egiteak harridura sor dezake***. (Ram Manikkalingamek, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko presidentea, Bakegileei hitz batzuk idatziko dizkie, 2017ko uztailaren 24an, prozesu hau aurrera ateratzeko hartu dituzten arriskuak eskertzeko, «azken faserako erabakigarria izan zen» zehaztuz) Arkautiko bileraren inguruan jazotako gertakari harrigarri baten jatorria izan zen, zati batean Eusko Jaurlaritzaren txostenak aipatua: «Zailtasunak gorabehera, Eusko Jaurlaritzak ez zion uko egiten bere eragin-ahalmena erabiltzeari. Testuinguru honetan, apirilaren 5ean, asteazkena, bilera diskretu bat prestatu eta deitu zuen Arkauten, armagabetzea baino hiru egun lehenago».

«Bilera diskretua» izan denez, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Elkargo lehendakariak eta NEBko lehendakaria eta haien laguntzaileak bildu zituen

* Bakegileek nioiz ez dute imajinatu ehunka boluntario egongo direnik arma-gordeleku bakoitzean, Eusko Jaurlaritzak bere txostenaren 5-5 eta 5-8 ataletan dioenaren kontra.

** «Epikatik etikara» adierazpena, 5-9 zatian erreproduzitua.

*** Ram Manikkalingamek, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko presidentea, Bakegileei hitz batzuk idatziko dizkie, 2017ko uztailaren 24an, prozesu hau aurrera ateratzeko hartu dituzten arriskuak eskertzeko, «azken faserako erabakigarria izan zen» zehaztuz.

topaketa horretan bideo eta argazkiak egin ziren, eta apirilaren 7an, ostiralarekin, hedapen zabala izan zuten, prentsa ohar batekin batera. Eusko Jaurlaritzaren txostenean, 5-9 zatian, argitaratzen den prentsa ohar horren bertsioa ez da egiazkoa: ez da egun hartan prentsari igorri zitzaiona! Bertan, Eusko Jaurlaritzaren eta Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehendakariaren arteko negoziazio gogorren gaia izan zen esaldi zati bat falta da: «... eta gizartearen inplikazioaren balorazio positiboa helburu horri egin dion ekarpenagatik».

Harrigarria badirudi ere, Eusko Jaurlaritzak uko egiten zion armagabetzearen prozesuan jendarte zibilak izan zuen paper positiboa aitortzeari, nahiz eta Nafarroako Parlamentuak eta Eusko Legebiltzarrak arazorik gabe eta are modu esplizituagoan egin zuten, baita Hego Euskal Herriko alderdi eta sindikatuek ia aho batez ere, tartean PSOE eta EAJ, Euskal Autonomia Erkidegoan gobernu gehiengoa osatzen zutenak.

Eztabaidek ostiral eguerdira arte iraun zuten, Jean-René Etchegaray lehendakariak uko egin baitzion aipatu esaldia erantsi gabe komunikatua izenpetzeari, eta azkenean egin zen eta jendaurrera zabaldu zen.

«Eusko Jaurlaritzak ETaren armagabetzean eta desegitean izan duen zereginaren deskribapena eta balorazioa» dokumentua idazteko erabili den zorrotasun historiko faltaz ohartzen gara, espainolezko agirian honen bertsio zuzendu gabea jasoz (euskarazko agiriak zuzenketa hori jasotzen du), baina bertsio hori ez dute inoiz publiko egin hiru erakundeek!

Gezur onartezinak

Tamalez, Eusko Jaurlaritzaren txostenak faltsutze edo gezur are mingarriagoak ditu Bakegileentzat. Bost aldiz baieztatzen du Bakegileek hasiera batean 2017ko apirilaren 8rako jai giroko ekitaldi bat pentsatua zutela. 5-8 zatian esaten du Jaurlaritzak kendu zela ideia hori burutik. Gezurra da, besterik gabe. Inoiz ez da horrelakorik aipatu. Bakegileek beti planteatu izan dute, eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean aipatu, gizarte-mobilizazio duin eta errespetuzkoaren printzipioa, alde bakoitzeko biktimekiko eta sufrimenduekiko. Hasieran, giza katea edo manifestazio isil bat aipatzen zen, eta gero elkarretaratze estatiko bat ezarri zen momentu plural eta solemne baten inguruan. Leporaketa larri hori erabat asmatua da. Aitzitik, Hego Euskal Herrian apirilaren 8ko jai-izaerari buruzko zurrumurruek zabaldu zirenean (orain zalantza batzuk izan daitezke zurrumurru horien jatorriari buruz), Bakegileek Eusko Jaurlaritzari esan eta errepikatu zioten jai-adierazpen bat haien etikaren guttiz kontrakoa zela, biktimei zor zaien errespetuagatik eta armagabetze eguneko mezu nagusiagatik. Arratsaldeko hitzaldietako hitz bakoitza, gainera, ondo neurtu zen, inor mindu ez zedin, gatazkan zuen egoera edozein zela ere.

Txostenak behin baino gehiagotan dio Luhuson Bakegileek armak garbitzeko eta suntsitzeko asmoa zutela, eta horrek haien identifikazio judiziala eragotzi zezakeela. Kasu honetan ere, Eusko Jaurlaritzak 5-8 zatian dio lortu zuela Bakegileek konbentzitzea 2017ko apirilaren 8an armak suntsitzeari edo garbitzeari uko egin ziezaioten. Bere asmakizun hutsa da. Aitzitik, Bakegileek xeheki azaldu zioten Eusko Jaurlaritzari 2017ko otsailaren 6an egin zuten lehen bileratik, ez zela sekula Luhuson armak suntsitzeaz edo garbitzeaz hitz egin. Ez zegoen «*garbiketa produkturik*» «armak garbitzeko», ez materialik, ez kaxarik ere. Armak estaltzen zituzten kola zinta, zelofana eta gantz-geruzak (berrogeita hamar bat eraso-fusil, metraileta pistolak, pistolak eta errebolberrak) kentzeko produktuak besterik ez ziren. Operazio hori ezinbestekoa zen barriletak zulatu edo kanoiak moztu ahal izateko. Arma horiek gordetzen zituzten baldintzek pentsarazten zuten poliziak ez zuela aztarnarik edo DNAririk aurkituko han, gerora frogatu denez, segurtasun indarrek berek aurkitutako arma gordeleketan gertatu zen bezala.

Luhoson zeuden bi makinak aukeraketa, gainera, armak suntsitu gabe neutralizatzeko egina zen, nahiz eta Bakegileek azken hitz hori Irlandako prozesuari erreferentzia eginez erabiltzen zuten: arma luzeen kanoia mozteko disketea, eta arma laburren barautsa zuzaltzeko fresatzeko makina. Bakegileek ez dute erabili nahi izan armak zanpatu eta haien identifikazio judiziala eragotziko zuen prentsa, makina isilago, sinpleago eta azkarragoa izanki. Haietako batek, lanbidez abokatua zen Michel Tubianak, Luhosoko operazioa prestatzeko bileretako batean ohartarazi zuen «frogak suntsitzen» saiatzearekin parekatu zitekeela.

Bakegileek ez dute, beraz, 2017ko apirilaren 8an emandako armamentua garbitzeko edo suntsitzeko asmorik izan. Neutralizatzeari ere uko egin zioten eta Eusko Jaurlaritzari jakinarazi zioten martxoaren 16tik aurrera. Horrez gain, Eusko Jaurlaritza ez zen beste kide batek egindako iradokizunen arabera, beren behatzaileek zaindutako zortzi gunetan bilduta zeuden armen irudirik ez erakustea erabaki zuten, Frantziako polizia eta mina kentzaileak etorri arte. Horren helburua zen biktimak ez mintzea, eta hori zehazki egin zen 2017ko apirilaren 8an.*

Elkarren arteko eztabaiden bidez arian-arian eraikitako gidoi bat

Bakegileek, erakunde, alderdi, sindikatu eta mugimendu sozial ezberdinekin bilerak eta elkarrizketak egin ahala, elementu ugari sartu dituzte, eta horrela finkatu dute 2017ko apirilaren 8ko agertokia. Bileren ondoren, bilakaera horren berri eman diote Eusko Jaurlaritzari. Hala ere, azken honek, bere txostenean, 5-4 zati batean: «Artisauek Eusko Jaurlaritzaren babes itsua nahi zutela diseinatutako ibilbide-orriari, aldaketak onartzeko batere tarterik gabe eta ibilbide-orriari buruzko informazio dosifikatuarekin». Errealitatean, Eusko Jaurlaritzak uste zuen prozesuak urte bat edo bi iraungo zituela eta «Luhusoak» ugalduko zirela, alta, lehen bileratik Bakegileek jakinarazi zioten egiten saiatzen ziren lanak ahalbidetu bezain azkar erabateko armagabetzea gauzatzeko asmoa zutela. «Luhuso» gertakari segida baino zerbait trinkoagoa eta denboran kontzentratuagoa egiteko asmoa zuten.

Martxoaren 1az geroztik, armagabetzea uda aitzin gauzatzeko asmoa zutela erran zioten. Martxoaren 12tik aurrera, otsailean zehar landu zuten gidioa aurkeztu zioten, armagabetzea egun bakar batean gauzatea helburu zuena, Frantziako hurrengo presidentziarako hauteskundeak baino lehen. Azaldu dute nola diseinatu zituzten egun hartako alderdi ezberdinak, beren muga tekniko eta politikoen arabera, eta beren solaskide ezberdinekin, Frantziako Gobernuarekin edo Eusko Jaurlaritzarekin, izan zituzten eztabaiden emaitzen arabera (otsailaren 24an, Bruno Le Roux Barne ministroak Bakegileei erran zien Frantzia egiten uzteko erabakia hartu zuela, baldin eta armagabetzea erabatekoa bazen eta aldi bakar batean gertatzen bazen).

Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hamar bilkura

Paradoxa badirudi ere, Eusko Jaurlaritzarekin izan zuten bilera gehien Bakegileek, hamar gutxira eta ez bederatzi bere txostenean idatzi bezala. 5-4 zatian esandakoaren kontra, Bakegileek hasiera-hasieratik nahi izan zuten Eusko Jaurlaritza prozesu horretara batu zedin, harekin harremanetan jartzeko arrazoia ez zen Nazioarteko Egiatzatze Batzordeak ustez jarritako baldintza bat. Izan ere, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lehen bilera otsailaren 1ean finkatu zen, eta Eusko Jaurlaritzak 2017ko otsailaren 6ra atzeratu zuen, Bakegileen eta Nazioarteko Egiatzatze Batzordearen arteko lehen bilera baino askoz lehenago. Bakegileek zinez nahi

* Honek erakusten digu zenbateraino Jaurlaritzako ordezkariak ez-entzunarena egin duten Bakegileen hitzen aurrean, zenbateraino entzuteari uko egin dioten eta nola, nahita, Bakegileen aurkako leporaketa oso larri bat egitea erabaki zuten.

zuten Eusko Jaurlaritzaren parte hartzea. Ez bere lurraldetik eta bere esku-hartze eremutik kanpo egon behar zuen armagabetze bat posible egiteko, baizik eta armagabetzearen ikuspegi partekatua bat eraiki nahi zutelako, non partaide izan behar zuen, zegokion leku guztiarekin, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko instituzioen pare. Baina Bakegileak izan zuten inpresio latza izan zen Eusko Jaurlaritzak baldintza eta marra gorri berriak jartzen zituela aurrekoak betetzen zituzten bakoitzean, armagabetzearen bideragarritasuna eta garaile-garaituen eskema ez irudikatzen xedea bera zalantzan jartzeraino.

Bada, Bakegileek landu eta zehaztu zuten gidoiak «Eusko Jaurlaritzak ETArekin armagabetzeari buruz zuen jarrera» errespetatzen zuen, Eusko Jaurlaritzak 2017ko martxoaren 6an eguneratu zuen bezala:

«2014ko abenduaren 21eko proposamena abiapuntutzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak bere posizionamendua eguneratu nahi du, lankidetzaren eskaintza honen laugarren eta bosgarren urratsetara bideratzeko, egungo errealitateari egokituta. Armagabetze prozesu batean parte hartzeko aukera bi puntu hauetan oinarritzen da:

1) *ETAk armak eta lehegaiak gordetzeko guneen inbentarioa eta koordinatuak emango dizkio berak aukeratutako instantziari edo organismoari.*

2) *Eusko Jaurlaritzak (hala badagokio, Nafarroako Gobernuarekin eta Euskal Elkar-goarekin adostuta, baldin eta hala erabakitzen badute) inbentario eta koordinatu horien hartzaile den instantzia edo erakundeari bere estaldura instituzionala eskaintzen dio, une horretatik aurrera, legeak uzten dion neurrian eta Espainiako eta Frantziako gobernuekiko solaskide gisa esku hartzeko.*

Eusko Jaurlaritzak ez du, a priori, beste prozedura baten bidez edo haren parte-hartzerik gabe, zuzenean edo zeharka, egindako armagabetzea arbuizatu eta deskalifikatu. Bestalde, eta lehen adierazi den bezala, Eusko Jaurlaritzak bere eginkizun instituzionalaren duintasuna zaindu behar du, legezkotasun printzipioaren arabera jokatu behar du eta indarkeriaren amaiera ordenatu eta behin betikoa lortzen lagundu behar du. Zentzu horretan, eta armagabetze prozesu batean parte hartzea posible izan dadin, hiru baldintza bete behar dira:

- *Duintasuna.* *Eusko Jaurlaritzak armagabetze prozesu batean lagundu ahal izango du, baldin eta prozesu horrek behin betikoa, egiaztatua eta hitzartua izateko bermea aurkezten badu, eta bere eginkizuna bere ordezkari instituzionalarekin bat badator.*

- *Legezkotasuna.* *Eusko Jaurlaritzak laguntza eman dezake armak entregatzeko prozesu batean, baldin eta hauek suntsitu beharrik ez badago. Ez du parte hartuko armak suntsitzeko edo erabileratik kanpo uzteko prozesu batean leku ezezagun batean.*

- *Helburua.* *Eusko Jaurlaritzak prest dago armagabetze prozesu batean parte hartzeko, non armak entregatzea eta indarkeria behin betiko desagertzea aldeabakarrekoa, borondatezkoa eta politikoki baldintzarik gabea izango den».*

PPri sinestea Bakegileei sinetsi beharrean

Badirudi Eusko Jaurlaritzak ez ziela inoiz sinetsi Bakegileei. Ez zituen beren asmoak sinetsi, ezta esaten zutena ere. Ez zuen uste beraiek definituko zituztenik armagabetze egunaren nondik norakoak, ezta data zehaztuko zutenik ere, beren analisi eta mugen arabera. Hala ere,

ETAren eta Bakegileen arteko akordio edo konpromiso bakarrak 2016ko abenduaren 16an plazaratutako mezu-trukeetan jasotakoak ziren.

Azken batean, badirudi Eusko Jaurlaritzak gehiago sinetsi diola Espainiako Gobernuari, zeina Alderdi Popularrak osatzen baitzuen, solaskidetzat zituen Bakegileei baino. Alderdi Popularrak, hala ere, zenbait gauza jakinarazten zizkion, eta horietako batzuk faltsuak izan ziren. Bakegileek, hala ere, konfiantzaz eta behin baino gehiagotan jakinarazi zieten Eusko Jaurlaritzako ordezkariari beren prestaketei buruzko ahalik eta informaziorik handiena. Argi dago, Jaurlaritzak informazio horren filtrazioak egin zizkiela behin eta berriz Frantziako edo Espainiako prentsari eta agintariei Bakegileek beren planean aldatu ezin zituzten elementu batzuk aldarazteko helburuarekin.

Dirudenez, Eusko Jaurlaritzak ez zuen sekula irudikatu Ipar Euskal Herriko solaskideek besterik gabe egia esaten ziotenik, ez zuen sekula sinetsi Frantziako gobernuarekin zituzten harremanengan, eta, beraz, ez du inoiz partekatu armagabetzea bere osotasunean, gora-beherarik gabe eta Luhuso baino lehen espero gabeko epeetan gauzatu ahal izango zena-ren sentimendua.*

Horrek, jendarte zibilaren ikuspegi bereziki ezkorra erakusten du, baita instituzioekin izan ditzakeen elkarreraginena ere, eta Ipar Euskal Herriko, eragile sozial eta politikoei, maila goreneko errelebo instituzionalerako gaitasunei eta Euskal Herriko alde honetako kultura politiko espezifikuari buruzko nolabaiteko ezjakintasuna ere. Ipar Euskal Herriarekiko erdeinu mota bat ere ez ote den... Txostenak 5-9 zatian Eusko Jaurlaritzari egindako «*presiotzat*» jotzen ditu Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehen-dakariaren jarrerak eta iritziak, «*Eusko Jaurlaritzari saiatu zen Etchegarayri egin nahi zenari buruzko begirada eta ondorioak adierazten*». Badirudi Eusko Jaurlaritzako ordezkariak Bakegileetako solaskideak «*errealitatetik aldendutako eta ideologia aktibista batek gidatutako*» asaldatzaitzat hartzen dituztela. Nolanahi ere, horrela aipatzen dituzte martxoaren 22ko bileran, bi aldeen arteko azken topaketak eragindako tirabira uneetako batean.

Zehaztasun falta, ez esateak eta egia ez diren adierazpenak

Eusko Jaurlaritzaren txostenak beste hamaika zehaztasun falta, ez esate argigarri eta kontraesan biltzen ditu, eta aspergarria litzateke horiek guztiak hemen adieraztea eta zuzentzea. Hala ere, adibide batzuk aipatuko ditugu.

5-5 zatian, Eusko Jaurlaritzak dio martxoaren 12an oraindik ez zekiela armen inbentariarik ote zegoen eta armagabetzea aldi bakarrean egingo oten zen. Hori gezurra da, hain zuzen ere aipatu bi puntuak egun hartako bileran adierazi baitzizkioten. NEBak zeukan inbentarioa, armagabetzea egun batean egingo zen, eta ETA erabat armagabetuko zen.**

5-5 zatiaren horren amaieran zehazten da, Eusko Jaurlaritzaren arabera, martxoaren 12tik aurrera, «*desadostasunak nabarmenak izan ziren*». izan zirela bilera bakoitzean, «*tentsio dialektiko handiarekin*». Nolanahi ere, martxoaren 12tik aurrera desadostasunak bazeuden eta ez zegoen tirabirarik Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren artean, eztabaidak adeitsuak ziren, eta tentsioa, Eusko Jaurlaritzako ordezkarien aldetik oso nabarmena, martxoaren 16ko gauera arte ez zen agertu (21:30ak aldera, Eusko Jaurlaritzaren eta Txetx Etcheverry

* Bakegileek, maila gorenean, Frantziako agintariekin eztabaida zezaketela sinesteko ezintasun horrek, ezbairik gabe, Eusko Jaurlaritzari nahasarazi du egoeraren eta unean-uneko estrategien inguruan zuen balorazioari buruz.

** Eusko Jaurlaritzaren txostenak 5-9 zatian adierazten du NEBak jakinarazi ziola zer zen eman behar zitzaiona publiko egin baino ordu bete lehenago. «*Bere bolumena orokorrean bat zetorren Poliziaren eta Ertzaintza beraren kalkularekin*».

Bakegilearen arteko telefono dei segurua), eta etengabea izango zen hurrengo bileretan. Jarrera aldaketa hori bat dator Rajoy presidenteak Urkullu lehendakariari martxoaren 16ko egun horretan bertan egindako telefono deiarekin.

5-8 zatian Jaurlaritzak Bakegileei aurpegiratzen die hedabideak filtrazioekin elikatu izana armagabetze egunaren alderdi operatiboetara dagokienez, hain zuzen ere bera izan zenean horren egilea. Bakegileei aitortu zien 2017ko martxoaren 20ko bileran, eta filtrazio horietan oinarrituriko prentsa artikuluen edukiek, bestalde, ez zuten zalantza handirik uzten haien jatorriari buruz.

Bere txostenaren arabera, Bakegileek ez zuten kontuan hartzen EAE edo Nafarroan zegoen errealitatea, azken haiek Euskal Herriko alderdi, sindikatu eta gizarte mugimenduekin hitz egiten zuten bitartean. Bakegileen ekimena Ipar Euskal Herriko hautetsietara bakarrik murrizten zuen, EAE eta Nafarroako parlamentuek «gizarte zibileko pertsona eta erakundeen inplikazioa positiboki baloratu duten bitartean, [armagabetzearen] helburu hori lortzen laguntzeagatik». 2017ko apirilaren 5ean, Bilbon, EAJk, EH Bilduk, PSE-EEK, Geroa Baik, Ahal Duguk, Ezker Anitzak, ELAk, LABek, CCOOk, UGTk eta beste alderdi, sindikatu edo gizarte mugimenduk elkarrekin emandako prentsurrekoan (Hego Euskal Herrian oso ohikoa ez dena), ETAREN armagabetzea apirilaren 8an egingo dela iragartzea albiste ona dela eta aurrera ateratzea espero dutela esan zuten. «Gizarte zibileko pertsona eta erakundeen inplikazioa positiboki baloratzen zutela helburu hori lortzeko egin duten ekarpenagatik» adierazi ondoren, honako hau erran zuten: «Azkenik, jakinarazten dugu gure organizazioak ordezkartuta egon daitezkeela, erabakitzen duten eran, Baionan apirilaren 8an deituta dagoen ekitaldian, Frantziako eta Iparraldeko ordezkartuta politikoa eta sindikal anitz eta zabal baten ondoan».

Eusko Jaurlaritzaren txostenak ez du zehazten, halaber, apirilaren 8ko jardunaldian parte hartzeko aurreikusitako formatuari buruz adierazitako lehen eragozpena Euskal Herriko beste bi erakundeen maila berean jartzea izan zela (Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Elkargoa). Erakunde horiek errespetagarriak ziren, baina ez zuten maila bera, eta ez zuten berak azken bost urteetan bakearen alde egindako lanetaren gisakorik egin.

Armagabetzearen lege-markoaz

Eusko Jaurlaritzak txosten osoan zehar errepikatzen du legezko armagabetze baten aldeko atxikimendua.

Sinetsarazten du lege-izaera horrek zerikusia zuela arma-gordelekuen kokaguneak agintari judizialaren esku uztearekin, eta ez polizia edo exekutibo frantsesaren esku. Bernard Cazeneuve lehen ministroa horretan tematu zen Jean-René Etchegaray lehendakariaren eta Frédérique Espagnac senatariaren aurrean, eta Morvan prefetak gauza bera egin zuen Bakegileen aurrean. Azken haiek agudo onartu zuten konfigurazio hori, entrega Baionan egin ahal izatea negoziatuz: horrela egingo zen Vuelta-Simon prokuradorearen aurrean, François Molins Parisiko prokuradorearekin harreman zuzenean, terrorismo gaietan esku-duna baita.*

Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren txostenean ez da aipatu ere egiten arazo garrantzitsuena eta konplexuena: armategiaren zati bat etxebizitzetan egotea zela, Bakegileek erabateko eta

* Kasu honetan ere, 5-7 zatian, Eusko Jaurlaritzak aditzera ematen du paper bat jokatu zuela: «Ondoren edukitako solasaldietan Baionako bulego judizialean utzi ahal izateko mekanismoa zehaztu ahal izan zen». Egiantan, ordea, Bakegileetako ordezkarien eta Frantziako gobernuaren artean lotu zen dena, Fiskaltzarekin harremanetan.

legezko armagabetzea gauzatzea ezinezko egiten zuena. Ezkutaleku horien kokaguneak eman ezin zituztenez, etxeen jabeak atxilotu ez zituzten, Bakegileek berek jaso behar zituzten, eta, gero, agintari judizialen esku utz zitezkeen tokietaraino eraman. Argi dago horrek guztiak ez zuela hitzez hitz errespetatzen indarrean dagoen zuzenbide estatua.

Eusko Jaurlaritzak azpimarratzen du Frantziako Gobernuak, eta bereziki lehen ministroak eta barne ministroak, publikoki baieztatzen zutela armagabetzea legezkotasuna zorrotz errespetatu egin behar zela. Bakegileak jakitun ziren horretaz, baina ez zuten etsi. Izan ere, nahiago zuten armagabetzea legezkotasuna erabat errespetatu gabe egitea, armagabetzea ez gauzatzea baino. Eric Morvan prefetak 2024ko apirilean Bakegileen epailetan egin zuen lekukotasunaren arabera, autobideak erabateko armagabetzera eraman ez zaitzakeenean, zeharbideak erabiltzen jakin behar da. Eta hori, azkenean, Frantziako gobernuak onartu eta egiten utzi ditu, baita azkenean Bakegileekin elkarlanean antolatu ere.*

Bistan da ez zela legezkoa Bakegileak ETA erakunde armatu eta klandestinoarekin harremanetan egotea, bere armategia berreskuratzea, ezkutaleku batzuetako arma eta material ezberdinak lekualdatzea, Frantziako agintariei kokalekuak eman ahal zizkieten lekuetan biltzeko. Baina beharrezkoa zen erabateko armagabetzea ahalbidetzeko, eta azkenean denek onartu dute, Eusko Jaurlaritzak izan ezik, historia berridazteraino: «*Frantziako Gobernuari zuzentzen zitzaizkion inplikazio-exijentziak politikoki posible den errealitatetik kanpo zeuden*» idatzi zuen, 5-5 zatian, edo 5-7 zatian: (1) *Frantziako Gobernuak ez da nahastuko, zuzenean edo zeharka, armagabetzearen eszenografian ezta operatiboan ere; (2) Frantziako Gobernuak ez du armagabetzea ekidingo, agintari judizialen bidez bideratzen bada*». Hala dio Eusko Jaurlaritzak, Frantziako Gobernuak Bakegileek antolatutako armagabetzea ahalik eta hobekien egin zedin inplikatu zenetik bi urte eta erdira idatzitako txostenean.

Zehaztu dezagun, gainera, legezkoagoak ez ziren armagabetze operazioak egin zirela berriz 2018ko otsailaren 9an eta apirilaren 25ean: Bakegileek bi aldiz berreskuratu zituzten ETAREN eskutik, 2017ko apirilaren 8rako aurkitu ezin izan ziren gordelekuetan zeuden hainbat arma, munizio eta material. Eraman zituzten, eta zuzenean eman zizkieten Frantziako polizia eta mina kentzaileekin, haien eta Frantziako Gobernuaren ordezkari baten arteko komunikazio kanal baten bidez. Eusko Jaurlaritzaren txostenak ez ditu aipatzen geroko bi entrega horiek, segur aski, Bakegileen eskemaren egokitasuna sobera ongi erakusten dutelako.

5-9 zatian, Eusko Jaurlaritzak honako hau idatzi zuen: «*2017ko apirilean, ia bi urte eta erdi beranduago, ETAK aldebakarreko armagabetzea burutu zuen "euskal gizartearen aurrean". Bere zuloei buruzko informazioa erakunde sozial baten esku utzi zuen honek legalki zegokion bezala jokatu zezan, hau da, Justiziara eramanda informazio hori Poliziak ondorioz jokatu zezan*». Aipatu gizarte erakundeak, Bakegileek, alegia, armak eta materiala berreskuratu eta bildu behar izan zituzten, arma gordelekuetan behatzaileak jarri, armagabetzea bere osotasunean gauzatzeko, eta Eusko Jaurlaritzak ez zuen ordura arte legezkotzat jotzen. Hala eta guztiz ere, aurrerantzean idatzi zuen Bakegileek «*legediaren arabera behar bezala jokatu*» zutela.

Samuel Vuelta-Simon Baionako prokuradore ohiak, 2024ko martxoaren 20an Mediabask astekariari eskainitako elkarrizketa batean, argi eta garbi azaltzen du: «*Auzian zentratze-*

* Sud-Ouest egunkariak 2024/03/25ean elkarrizketatua, Morvan prefetak adieraziko du: «*Estatuaren mailarik gorenean argi ageri zen eskema bat marratzen zela, zuzenbide hutsaren ikuspegitik erabat mugatua izan zitekeena. Baina proposamena interesgarria zela pentsatzen jarraitu nuen. Ahaleginak egin behar zirela hori aurrera atera zedin, pragmatismoz jokatuz, zurruntasun juridikorik gabe.* » (...) «*Cauza bat zuzenbidea eta bestea erronka batzuei begira zuzenbidearen irakurketan erabili beharreko adimena. Bereziki, ordena publikoa jokoan dagoenean. Unean-uneke adimena zuzenbidearen irakurketa zurrun baten aurka joan daiteke. Ez da argi berde ofiziala. Nor bere buruaren jabe da, inork ez du ezer idazten. Pertsonenganako konfiantzan oinarritzen da. Apirilaren 8an ez zuten inor atxilotu.*»

ko eskatzen zaio epaileari, epaitua den pertsonaren nortasunean, fiskalak, aldiz, kanpo-ko elementuak integratu behar ditu, bere erabakia legearen arabera hartzeko. Horixe egin nuen orduan. Talde terrorista bat zen, armak itzultzea proposatzen duena, horretan parte hartuz delituak ere egin daitezke, delituak egiten ere utz daiteke».

Operazioaren kostu-onura balantze bat egin zen, eta hortik pasatu behar bazen — ezinbestekoa zen — dozenaka urteko indarkeria eta atentatu horiek amaitzeko, armategi bat ematea proposatzen duen erakunde terrorista batekin, ez dira bizpahiru eskopeta, eta, tira, merezi zuen. Hainbeste balio zuen, ezen, urte bat geroago, ETA desegin egin baitzen armategia entregatu ondoren, bost eta sei urte zeramatzanean gauzak aurreratu gabe».

Bidean jarraitzea

Gogora ditzagun hemen «armagabetzearen kostuak», Eusko Jaurlaritzak 2014ko abenduaren 21ean argitaratutako ETAREN armagabetzerako proposamenean zerrendatu zituen bezala

«Armagabetze-eza ez da kaltegabea. Errealitate politiko eta soziala ez da berdina armagabetzea burututa edo burutu gabe. Armagabetzerik ezak prezio oso altua dauka eta euskal gizarteak ez dauka zertan ordaindu. Ondorengo lau eragin zuzenak dakartza, gutxienez:

- Armagabetze-ek iragana atzean uztea eragozten du. Iraganera lotzen gaituen eta indarkeriaren mehatxua gogorarazten digun elementu faktikoa eta sinbolikoa da.

- Armagabetze-eza, aitzakia gisa erabil badaiteke ere, azkenean alderdien artean edo Legebiltzarrean elkarrizketa plural bat izateko oztopo erreal bat da.

- Armagabetze-ek, aitzakia gisa erabil badaiteke ere, espetxe-politikan gauzak ez aldatzea bultzatzen du eta bai presoei bai haien familiei kalte egiten die.

- Armagabetze-ek egoera zaharrak hiltzea eragozten du, eta berriak jaiotzea, eta neurri horretan, ezker abertzalea joko politikoan normalizatuta egotea blokeatzen du».

Bakegileek arrisku pertsonalak hartu zituzten eta energia handia xahutu zuten gauzatzen ez zen armagabetzea gauzatzen laguntzeko, egiaztapen guztiz garrantzitsu hori gertatu eta bi urte baino gehiagora. Gertaerak gertatu eta zazpi urtera, Bakegileentzat argi dago beren estrategia egokia zela, denbora errekorrean emaitzak eman zituen heinean. Orduan, denek zioten armagabetzea nahi zutela baina paradoxa bada ere, ez zuten gertaerei bide ematerik lortzen.

Historia horretan sartzeko engaiamendua hartzerako orduan finkatu printzipioen arabera jokatu zuten Bakegileek. Hots, armagabetzea gauzatzearen alde: erabatekoa, segurua, egiaztatua, baldintzarik gabea, duina, ahalik eta aniztasun politiko eta sozial handienak sostengatua eta irabazi-irabazi logika batean txertatua. Aldebakartasunetik elkarrekikotasunera daraman dinamika interaktibo batean sinesten dute Bakegileek: bataren urratsek besteak ere bultzatzen dituzte urratsak egitera.

Urkullu lehendakariak 2017ko apirilaren 8an adierazi zuen bezala: *«Bideak aurrera jarraitzen du. Gaur ez da ezer hasten, ezta amaitzen ere. Elkarbizitza normalizatu baten alde lanean jarraitzen dugu, orain testuinguru egokiagoan».*

BAKEGILEEN ETA EUSKO JAURLARITZAREN ARTEAN EGINDAKO **10 BILEREN** AKTAK ETA HAIEN TESTUINGURUA

Bederatzi bilera iragan ziren 2017ko Otsailaren 6tik Martxoaren 7ra Bakegileen (Mixel Be-rochoirigoin eta Txetx Etcheverryk zituzten ordezkari) eta Eusko Jaurlaritzaren bi ordezkariaren artean. Azken bilera bat iragan zen 2017ko maiatzaren 12an, zeinetan alde bakoitzak pasa berri zen fasearen inguruko bere balorazioa aurkeztu zuen. **Ez dugu sekula bilera hauen edukia publiko egiteko asmorik izan. Gaur egiten badugu, Eusko Jaurlaritzak bere “Eusko Jaurlaritzak ETArekin armagabetze eta desegitean izandako eginkizunaren deskribapena eta balorazioa” txostenean plazaraturiko bertsio desformatu edo gezurrezkoa osatu eta zuzentzeko da.** 2019ko Urriaren 14an egin zen hura publiko, eta Memoria, Bizikidetzeta Giza Eskubideen institutuan (memoria eraikuntzarako erabilerako publikoko dokumentu gisa)*

2017ko Urtarrilean egindako hainbat saiakeraren ondoren, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lehen bilera finkatu zen Otsailaren 1erako; gerora, otsailaren 6ra atzeratu zena.

1. BILERA

2017ko otsailak 6, astelehena, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lehen bilera

Bi aldeek haien burua aurkeztu zuten. Haien ibilbidearen eta Luhusoko operazioaren pres-takuntza eta gauzapenean inplikatzera eraman zuen filosofiaren berri eman zuten bi Ba-kegileek. ENAM eta ETArekin izandako harreman eta elkarrizketak azaldu zituzten, haiekin izandako desadostasun eta talka estrategikoak eta konfiantza zein kultura politiko ezber-dinen inguruan izandako arazoek aipaturiko harreman eta elkarrizketak konplexuago bi-lakatu dituztela. 2011an borroka armatua eten ondoren, egoeraren blokeoari erantzuteko betebeharra zergatik sentitu zuten ere adierazi zuten.

ETArekin harremanak eta elkarrizketak hasiz geroztik, alde bakoitzak hitza bete zuela eta konpromiso guztiak egikaritu zirela, eta erakunde armatuarentzat onargarriak diren molde politikoaren baitan era bizkorrean armagabetze orokor eta efektibo baterantz aurrerapau-soak egiteko benetako borondatea sentitzen zutela jakinarazi zuten.

Horretaz gain, azpimarratu zuten beti erran izan ziotela aurreikusitakoa bezain “*ikonoklas-tak*” ez lirakekeen bide batzuek irtenbide bat egikaritzeko aukerarik txikiena suposatuko balute - batez ere, ETA eta frantses gobernuaren arteko akordioa armagabetze ordenatu eta segururako - horiek lehenetsi behar lirakekeela pentsatzen zutela.

* «Como documento puesto a disposición pública y de la construcción de la memoria», jasoa izan zen.

Azkenik, ez direla inoren azpi-kontratatuak adierazi zuten eta ez zeukatela galtzeko edo irabazteko ezer, egoera desblokeatzen laguntzeko borondatea baizik.

Luhusoko operazioa Eusko Jaurlaritzaren ordezkariari kontatua

Luhusoko operazioaren abiatzea aurkeztu zioten Bakegileek Eusko Jaurlaritzari. Bestelako bide ofizial edo behintzat klasikoagoak moztu ondoren baino ez zen hasi Luhusoko operazioa.

Operazioa bi dimentsioren arabera sortu zutela azaldu zuten:

-A plana, operazioaren unean atxiloketarik ez balego: zehaztasunez azaldu zuten operazioari eman asmo zioten jarraipena;

-B plana, operazioaren unean atxiloketak gertatuz gero. Bigarren eszenatoki hori zehaztasun gehiagorekin prestatua zen. Batetik, Bakegileek ez zuten uste harreman eta elkarrizketa prozesu luzeak zerbitzu antiterroristen radarretatik kanpo igaroko zenik. Bestetik, gertatuz gero, zehaztasunez kudeatu beharreko lehena izango zelako.

A Plana edo B Plana izan, biek egoera berera eraman behar zuten auzia: Frantses estatua bere arduren aurrean ezarri eta jendartea mobilizatu ETaren armagabetze oso permitituko zuten baldintzak sortzeko.

Bakegileen asmoa ez zen sekula izan Luhuson atzemandako materialaren identifikazioa oztopatzea, nahiz-eta hastapenean suntsiketa hitza erabili zuten hobetsi beharko zutekeen neutralizazioa hitzaren ordeztu.

Hain zuzen ere, Luhuson aurkezturiko bi makinaren hautua armak neutralizatzeko egin zen, ez suntsitzeko: diskatzaile bat arma luzeen kanoiak mozteko eta fresagailu bat arma laburren ganbara zulatzeke. Bakegileek ez zuten presa bat erabili izan, zeina makina isilagoa den, erabiltzeko errezago eta azkarragoa, armak zapalduko zituzkeena, haien identifikazioa oztopatuz, "frogen suntsiketa" saiakeratzat asimilatzen ahalko zatekeena.

Haien helburuak eta egiten ari ziren lana aurkeztu zioten Bakegileek Eusko Jaurlaritzari

Atxiloaldetik ateraz geroztik, Frantziako gobernuarekin elkarrizketarako hainbat bide irekitzeko saiakera egin zuten Bakegileek, kasurik onenean, armagabetze oso, ordenatu eta seguruaren bidean haren zinezko elkarlana lortzeko helburuarekin. Edo, behintzat, egiten uzteko erabakia, oztoporik jarri gabe eta armagabetzea tratatu edo erreprimitzen saiatu gabe.

Izan ere, armagabetzea ez zen autoritate bati arma-gordetegiaren lokalizazio puntuak eskaintze hutsarekin bukatzen, autoritate hori edozein zelarik ere. Gordeleku batzuk etxeetan ezarriak ziren, pentsaezina zen haien kokapenaren berri ematea, etxe horien jabeak espetxera bidaltzea zatekeen hori! Gainera, ziurtasunez jakin behar zen ea nork berreskuratuko zituen arma eta lehergailuak, manipulazioak edo "gerra zikinaren" gisako operazioetarako aukerak saihesteko. Azkenik, haren armategiaren indargabetzea eta armagabetzearen ardura politikoa gizarte zibilaren esku uzteko ETarekin egindako akordioak baldintza garrantzitsua zekarren: "Erabilitako prozedurak zezala "garaile eta garaituen" terminoen arabera irakurketak egiteko tarterik utzi".

Gauzak horrela, batez ere horretan zetzan Bakegileen orduko lana:

- Frantses gobernuak konbentzitzen saiatu materialki lagundu zezan ETAREN armagategiaren indargabetze ordenatu eta segurua, epe laburrean eta diskrezio osoz Bakegileekin adostu beharreko prozedura baten baitan.

- Frantses gobernuak elkarlanari uko egiten edo "egiten uzten" zuen kasuan oztoporik eta errepresiorik gabe, hala ere, ETAREN armategiaren indargabetzearen eta neutralizatzaren gidoia prestatzea. Kasu horretan, euskal jendartea mobilizatzea oztopoak eta errepresioa kopuruaren indarraren eta gehiengoaren herri babes anitzaren zilegitasunaren bidez mugatzeko.

Bakegileek martxora arteko epea eman zioten haien buruari lehen kasua zehazten saiatzeko, bigarrena definitzeko lanean ere jarraitu zuten bitartean. Horretarako, hainbat eragile instituzional, politiko, sindikal edo elkarterekin biltzen ziren, ahalik eta atxikimendu eta parte hartze handiena eraginen zuen eszenatokia marrazteko. Nazioarteko Egiatzatze Batzordeari (NEB) ere bilera baterako eskaera egin zioten, bistan denez, azken honekin batera lan egingo baitzuten bi kasuetan. Bilera horietan izango zituzten eztabaiden arabera, hurrengo etapak prestatzeko asmoa zuten.

Eusko Jaurlaritzaren analisisia

Bere aldetik, berak egindako ekimenen eta NEBREKIN ZEIN "EZKER ABERTZALEAREKIN" IZANDAKO HARREMANEN BERRI EMAN ZUEN EUSKO JAURLARITZAK. 2014ko abenduan publiko egindako dokumentuaren laburpena egin zuen «*Armagabetze azkar, bideragarri eta eraginkor baterako prozedura-proposamena, ETAREN GIZARTEAREN AURREKO ALDE BAKARREKO KEINU BATEAN OINARRITUA, GIZARTEAREN, NAZIOARTEAREN ETA ERAKUNDEEN BABESPEAN*»* eta ETAK horri heldu ez izana deitoratu zuen.

Bi alditan, Bakegileek Eusko Jaurlaritzari galdetu zioten bere proposamena zein eratan gauzatzeko asmoa zuen baldin-eta Estatu Espainiarrak eta Frantses Estatuak ez bazuten elkarlanerako edo "egiten uzteko" jarrera hartzen? Arma gordetegiak frantses lurraldean kokatuak zirela jakinda, zeintzuk ziren Eusko Jaurlaritzak aurreikusten zituen aukera operatiboak? Galdera hauen erantzunik ez zuten jaso, Eusko jaurlaritzak azaldu baitzuen ezin izan zuela era operatiboaz hitz egiten hasi haien proposamenak jasotako arbuioa dela-eta.

Eusko Jaurlaritzari iruditzen zitzaion ETAREN aldetik, bereziki preziatua izan zela Luhusoko operazioa. Bere ustez, Eusko Jaurlaritzak prozesutik kanpo uztea ahalbidetzen zuen, eta Frantziako zein Espainiako polizia-zerbitzuek ETAREN armategiari zegokion guztiaz zuten kontrol maila kontuan hartuta, ezin zitekeen atxiloketarik gabe bururatu. Eusko Jaurlaritzaren arabera, ETARI ESPERO GABEKO PROTAGONISMOA EMATEN ZIOTEN ATXILOKETEK, hortaz, "Luhusok" errepikatuko zituen urtebetez, bi urtez, aldiro mintzatoki bat aurkitzeko, borroka armatuaren bukaeraz geroztik izan gabeko protagonismoa berreskuratuz. ETAREN "joko txiki" horietaz nekatuta zegoela erran zuen Eusko Jaurlaritzak eta konfiantzarik ez zuela. ETAK bere aldetiko inolako laguntzarik eta armagabe prozesuan parte hartzerik onartzen ez duela ulertzen zuen. Armagabetze osora eramaneen zuen bidea onartuko zuela, baina propagandarako operazioak dosifikatzea** arbuikatuko zituela azpimarratzen du Eusko Jaurlaritzak.

* «*Propuesta de procedimiento para un desarme rapido, viable y efectivo, basado en un gesto unilateral ante la sociedad vasca, con cobertura social, internacional e institucional*»

** armagabetzea dosi txikitzen gauzatzea.

Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarrizketa

Bakegileek, egiten ari ziren lanak ahalbidetuko zuen eperik laburrenean armagabetze osoa gauzatzeko bermea zutela ziurtatu zioten Eusko Jaurlaritzari. Berme hori gabe ez zuten Luhusoko operazioa gauzatu. Forma eta denbora-eskala osoki haien esku artean ziren eta plantan ezartzea lortuko zuten prozeduraren arabera izango ziren. Haien ez zuten Luhusokoaren gisako 7 edo 8 operazio gauzatzeko inolako asmorik. Askoz ere masiboagoa eta denboran kontzentratua izango zen zerbait nahi zuten. Eusko Jaurlaritza plantan ezarriko zuten prozesuaren parte izateko borondate osoa adierazi zuten.

Haien erranei ihardoki zien Eusko Jaurlaritzak: bere iritziz, ETAk eta ezker abertzaleak Jaurlaritzarengandik espero zuten bakarra operazioaren bezperan informatuak izan eta biharamunean hura txalotzea zen. Hala izanez gero eta armabetzea erreala balitz, hala ere ekimena babestuko zuketela zehaztu zuten. Eskema globalaren eraikuntzatik hasiz armagabetzearen prozeduraraino, ahal bezain bat jende batzeko borondatea berretsi zuten berriz ere Bakegileek. Ekimenak "irabazle-galtzaile" formulak saihestu eta ahal bezain inplikazio eta babes anitz eta masiboa helburu zuela azpimarratu zuten Helburu hori bera zuten Ipar zein Hego Euskal Herriko ahal bezain bat eragilerekin egindako bilerek, baita otsailaren 5 horretan Eusko Jaurlaritzaren egindakoak ere.

Bi aldeek elkar berriz ikustea adostu zuten, Bakegileak armagabetzearen eskema orokorrean fase zehatzago batean sartuko zirenean.

2017ko otsaileko testuingurua

2017ko Otsaila eta martxoaren hasiera zehar, Bakegileek topaketak biderkatu zituzten Hego Euskal Herriko alderdi, sindikatu, elkarte, hautetsi askorekin (Foro Soziala, Ezker Abertzalea, EAJ, ELA, LAB), Ipar Euskal Herrikoekin eta baita Frantses Estatuarekin ere.

2016ko abenduaren bukaeran eta ondoren 2017ko Urtarrilean hasitako harremanek jarraitu zuten: Kanal zuzen ala zeharkako kanalen bidez, Bernard Cazeneuve lehen ministroarekin, Bruno Le Roux barne ministroarekin eta Stéphane Le Foll gobernuaren leledunarekin harremana zuten Bakegileek. Bakegileen mezuak anbiguotasunik gabekoa ziren: «*Luhusoko operazioaren oihartzunak eta hari emandako babesak hainbestekoak izan dira, non ezinezkoa den horretan gelditzea. Armagabetzea bururaino eramanez dugu, ahal bezain epe laburrenean, hurrengo presidentetzarako hauteskundeak baino lehen behintzat. Guztiontzat gauzak ahal bezain ongi iragan daitezten, Frantses Estatuarekin elkarlanean egitea nahiago genuke. Baina halako elkarlanik ezean, hala ere, azkeneraino joateko determinazioa dugu, eta aldi honetan ez dute bost pertsonak parte hartuko, ehundaka pertsonak baizik.*»

Bakegileekin harremana zuten bi pertsonalitate politiko, hurrenez hurren, José Bové militante altermundalista ezagunak eta François Dufour, Confédération Paysannan leledun ohi eta ATTACen sortzaileetarikoa bat harremanetan sartu ziren lehen ministroarekin, hari ohartarazteko Bakegileek hitzordu bat galdetzen zutela bere zerbitzuekin. François Dufourek ongi ezagutzen zuen Bernard Cazeneuve elkarrekin egon baitziren Basse-Normandiek eskualde kontseiluaren lehendakaritzan.*

Otsailak 10 ostirala: Bere funtzioagatik errandako hitz ororen pisua neurtzen zuen Jean Marc-Ayrault Atzerri Ministroak honakoa adierazi zion prentsari Miarritzera egindako bisitaren batean: «*ETAk borroka armatuari uko egin izana berri ona da askatasuna, demokrazia eta bakea nahi duen ororentzat. Beraz, orain, azkeneraino joan beharra dago eta konpromisoek gertakarien forma hartu behar dute. Horretarako, baiki, armategiaren osotasuna itzuli beharra dago, baina itzulketa hori autoritate nazionalen kontrolpean egin behar da. Zuzenbide estatu batean gaude. Eskubideak errespetatuak izan behar dira. Egiteko aukera izan beharra dago, ahal bezain azkar. Horra puntu honi buruz erantzuten dizuedana. Bakoitzak parte har lezake, sinpleki. Etapa horretan gaude, etapa hori baikorra da, goazen bada!*»

Egun berean, Baionako suprefeturan, gisa bereko adierazpenak egin zituen ministroaren kabineteburuak, Bake Bidea bake prozesuaren aldeko mugimendu zibilarrekin egindako bilkura batean.

Ekainak 16 osteguna: Bakegileen bilkura eskaera oraindik indarrean ote zegoen galde-tuzion lehen ministroak François Dufouri eta otsailaren 21etik 23ra Txinara egingo zuen bisitaren ondoren finkatzea proposatu zion.

Otsailak 17 ostirala: Stéphane Le Foll Nekazaritza ministroak, gobernuaren leledun eta Errepublikako presidente François Hollanden hurbilekoak, Mixel Berhocoirigoin errezi-

* 2017ko Apirilaren 8an, mina kentzaileak eta Frantses Polizia Iritsi bitartean arma ezkutalekueetan egondako 172 Bakegileen behatzaileen arteko bi izan ziren François Dufour eta José Bové.

bitu zuen ministerioan. Luhusoko operazioaren zentzua eta helburua zein Bakegileen izpiritua aurkeztu zion luzaz. Frantziako gobernuari egindako elkarlanerako deia berretsi zuen, amagabetze ordenatu eta segurua ahal bezain epe laburrean ahalbidetzeko. Bakegileek kasu guztietan egiteko determinazioa zutela azaldu zuen eta elkarlanik egin ezean, egingo zen operazioak Luhusokoak baino oihartzun handiagoa izan zezakeela. Bakegileak gogoetatzen ari ziren eskema aurkeztu zion, lokalizazio puntuen entrega eta begiraleen presentzia armategietan ere aipatuz.

Stéphane Le Follek apunteak hartu zituen elkarrizketan zehar. Bere ardura ez zela adierazi zuen, baina lehen ministroari transmitituko ziola. Gaiaren garrantzia eta larritasunaz kontziente zela zion. Umiliazio itxura zukeen armagabetzeak, batez ere gazteen artean, frustrazioa eraginen zukeela azaldu zion Mixelek. Ulertzen zuela eta analisisa hori partekatzen zuela esan zuen Stéphane Le Follek.

Bakegileek epe laburrean, presidentetzarako hauteskundeak aitzin azkeneraino joateko zuten determinazio azpimarratu zuen Mixel Berhocoirigoinek.

Otsailak 20 astelehena. Frantzia-Espainia gailurra Malagan, besteak beste, François Hollande, Bruno Leroux eta Jean-Marc Ayraulten presentziarekin.

Otsailak 24 ostirala: Txetx Etcheverryrekin biltzea galdetu zuen Frédérique Espagnac senatari sozialistak. François Hollande presidentearen hurbileko parlamentariak Bruno Le Roux barne ministroaren mezu bat zekarren: gobernuak armagabetzea egiten uzteko erabakia hartu zuen, betiere, osotasunean eta aldi bakar batean gauzatuko bazen. Frantses Gobernuak Malagako gailurrean eman zien erabakiaren berri agintari Espainiarrei eta azken hauek ados zeuden edo behintzat onartzen zuten.

Bakegileek Frantses autoritateekin lehenbailehen bilkura tekniko bat egiteko zuten nahia helarazteko galdetu zion Txetx Etcheverryk Frédérique Espagnaci, egiten uzteko erabakia konkretuki zertan zetzan argitzeko; batez ere, etxeetan kokaturiko arma gordetegiei zegoenez, zeinen kasuan armategia bertatik kendu beharko baitzen lokalizazio berri bat eman aurretik. Elkarlanerako eskema izan ala ez, Bakegileek apirileko presidentziarako hauteskundearen aurretik ETArekin armategia deuseztuko zutela azpimarratu zuen.

BAKEGILEEN ANALISIA

Bakegileek ongi jaso zituzten mezu publikoak -Jean-Marc Ayrault Kanpo Arazoetako ministroarena- eta baita pribatuak ere Jean-Marc Ayraulten kabineteburuaren edo Frédérique Espagnacen bidez Bruno Le Roux barne ministroaren eskutik. Gobernuaren ildo aldaketa ofiziala baieztatu zuten: honek ez zuen armagabetzea oztopatuko eta aurrerapen esanguratsua zen hau Luhusoko egoera sinestezinarekin alderatuta. Izan ere, horren aurretik, NEBek eta ETAk armategiaren zigilatze eta egiaztatze operazio batzuk gelditu behar izan zituzten polizia-operazioen, atxiloketen, deialdi judizialengatik. Frantses eta Espainiar gobernuak ez zuten armagabetze ordenatu eta seguruz ezer entzun nahi orduan: *“Armagabetze bakarra, frantses eta espainiar segurtasun-indarrek haien operazio eta atxiloketen bidez lortzen dutena da”* adierazten zuten. De facto, politika horrek, borroka armatuaren behin betiko bukaeratik bost urtera ETA armagabetzen utziko ez zuen egoerara eramango zuen.

Haatik, *“egiten uzteko”* jarrera berria lege-koadroaren eta justiziaren autoritatearekin baino ez zegoen lotuta. Gobernuari inolako arrisku politikorik ez hartzeko aukera ematen

zion arren, arazoaren zati bati irtenbidea ematek urrun zegoen. ETaren armategiaren deuseztatzea egiten ahalegintzen zirenentzat, ez zen aukera bat, adibidez haien etxeetan armak edo materiala gordetzen zutenen helbideak emanez atxiloketa gehiago eragitea. Halaber, ezinbestekoa zen armategiaren itzulketaren ondotik, honen berreskurapena eta neutralizatzea zein eratan egingo zen argitzea. Frantziaren eta Espainiaren arteko harremanak eta informazioa ia berehalako transmisioa zela-eta, justiziarik egin dako lokalizazioen puntuen entrega batek ez zituen ohikoak diren espainiar zerbitzu terroristen balizko manipulazioak eragotziko.

Azkenik, armagabetzea “*garaile-garaituen*” eszenaratze ez bilakatzeko engaiamenduak, armategiaren deusezteari zentzu erreala emateko beharra zekarren: ETak Euskal Herriari itzuliko zizkion armak eta ondorioz ekintza historiko horren lekuko bilakatuko zen herria. Erakundeak armak berriro ez erabiltzeko erabateko borondatea erakutsi zuen hala, borroka armatuari behin betiko eta itzulerarik gabeko bukaera emanez, konfrontaziorako bitarteko demokratikoei tokia utziz, borroka armatuaren jatorri diren gatazka historikoaren ondorio eta kausei irtenbidea emateko helburuarekin.

Autoritate judizialei egindako arma gordailuen lokalizazio puntuen entrega soil batek ez ziekeen galdera guzti hauei erantzungo. Hala izan balitz, edonork ulertuko zuen armagabetzea urte batzuk lehenago gertatu zela jada. Haatik, Bakegileak ez ziren zeregin horietan hasi armagabetzeaz “*hitz egiteko*”, edo gaiaz polemika sortzeko, hura egiteko baizik. Hortaz, osotasunean antolatzea ahalbidetuko zuen baldintza minimoak betzea behar zuten, ahal bezain epe laburrean eta modu ahal bezain egiaztagarri eta seguruan.

3 AGERTOKI POSIBLEAK:

Gauzak horrela, lanerako hiru hipotesia zerabiltzaten Bakegileek:

- Elkarlana Frantses Estatuarekin, zeinetan Estatuko zerbitzuek zuzenean parte hartuko luketen armategiaren batzeko eta deuseztatze lanetan, aterabiderik segurua litzateke honako hau.
- Bakegileek beraiek gauzaturiko batze eta deusezte, baina Estatuarekin adostua, manipulazio oro saihesteko, segurtasun maila ona eskaintzeko eta errepresiorako arriskuak ahal bezain bat murrizteko.
- Inolako adostasunik eza. Kasu honetan, Bakegileak armagabetzea Luhusoko ekimena ezaugarritu zuen “desobedientzia zibilaren” formatu berean antolatzera behartuta leudeke. Atxiloketa arriskuak, nahitarakoak edo ustegabekoak, azkarrak izango ziren eta mediatizazio eta herritar mobilizazio handi batekin erantzun beharko zitzairen.

Estatuarekin bilkura “operatiborik” egin ezean, Bakegileek 3 eszenatoki prestatuko zituzten azken unera arte; aldi berean, lehen edo bigarren hipotesiak bete zitezten harremanak, aldeko mintzaldiak, eta presio politiko pribatu zein publikoak biderkatu zituzten.*

Otsailak 25 larunbata : Elkarriketa berriak iragan ziren François Dufourek asteburu hartan edo aste hastapenean Estatuko zerbitzuekin biltzeko aukerari buruz.

*Azkenean, eta armagabetzearen aurreko bi asteetan, gauzak azeleratuko dira, batez ere armagabetzearen data Le Monde egunkarian iragarri ondoren. Elkarriketak biderkatuko dira orduan Frantses Estatuarekin eta bigarren eszenatokia ahalbidetuko dute. Baina martxoko lehen egunetan, egoera ez dago batere argi eta Frantses gobernuaren jarrera aldatu bada ere Luhusoko gertakarien eta hauek izan duten oihartzun politikoaren ondorioz, Bakegileekin elkarlan operatiboa izatek urrun dago oraino.

2. BILERA

2017ko martxoak 1, asteazkena, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko bigarren bilera

Bakegileek Eusko Jaurlaritza informatu zuten

Frantses gobernuarekin zuzeneko zein zeharkako harremanak izan zirela jakinarazi zioten Bakegileek Eusko Jaurlaritzari. Stéphane Le Foll bozeramailearen ministerioan izandako topaketaren berri eman zuten Gobernuarekin harremanetarako beste bide bat ere bazutela adierazi zuten - konfidentzialtasunagatik, lehen ministroaz ari zirela zehaztu gabe-, zeinaren partetik erantzun batzuk jaso zituzten, baina oraindik ez zutela izaera operatiboa zukeen bilerarik lortu.

Azkenik, barne ministeriotik jasotako mezua izan zuten hizpide, baldin-eta aldi bakar batean gauzatzen bazen, armagabetzea egiten uzteko, hari oztoporik ez jartzeko zuen asmoaz informatzen zuen frantses gobernuaren mezu guztiz sinesgarri bat aipatzen zuten. Espainiako gobernuari gisa berean jokatzeko egindako eskaera ere zehazten zuten, eta honek baiezkota erantzun izana. Ildo eta perspektiba aldaketa garrantzitsutzat jotzen zuten guztia.

Bakegileek Eusko Jaurlaritzari adierazi zioten lehen bilera bira bat egin zutela Ipar zein Hego Euskal Herriko hainbat eragile eta pertsonalitate politikorekin, haien analisiak zein armagabetzea ahal bezain ongi gauza dadin bete beharreko baldintzei buruzko haien iritzia jasotzeko eta hala, bake prozesuaren jarraipenerako baldintzak sortzeko: presoen auzia, biktimen errekonozimendua, memoria, elkarbizitza.

Bilera horietan, Bakegileek argiki adierazi zuten Eusko Jaurlaritza armagabetze eskemaren prestakuntza lanetan integartzeko borondatea, baita erakunde publiko horrek gauzapeanean parte hartzekoa ere, Ipar zein Hego Euskal Herriko gainontzeko instituzio publikoekin batera. Ezker Abertzalea ez zegoen horren aurka.

Bakegileek Eusko Jaurlaritzari jakinarazi zioten armagabetzea uda aitzin iraganen zela eta bi egoera ezberdinetarako prestatzen ari zirela: batetik, frantses gobernuaren kooperazioarekin egingo zena bestetik, haren "egiten uzteko" jarrerarekin konformatu beharko zena. Azken hau, ezinago nozio lausoa, zeinetan ez ziren baztertzen oztopo batzuk, adibidez, nahita edo kasualitatez egindako atxiloketak garraio operazioetan. Eszenatokiaren arabera, instituzioen parte hartzearekin kontatzen ahalko zuten (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Foru gobernu, Ipar Euskal Herriko Elkargoa) ?

Bakegileek zehaztu zuten oraindik ez zutela Nazioarteko egiaztatze batzordearekin (NEB) biltzea lortu. Batzordeari armagabetzearen agertoki posible baten lehen zirriborroa helarazi nahi zioten zeinetan NEBren eta Eusko Jaurlaritzaren presentzia eta parte hartze aktiboa aurreikusten ziren. Horretaz batzorde harekin mintzatu nahi zuten, NEBren iritzi eta aholkuekin aberastu, eta azkenik, Euskal Herriko instituzioekin eta eragile garrantzitsuekin partekatu. Eusko Jaurlaritzaren bakerako plan berria elaboratzeko bidean zegoela jakin zuten eta publiko egingo ote zen galdetu zuten. Armagabetzeari buruzko polemika publikoak saihestearen garrantzia azpimarratu zuten.

Eusko Jaurlaritzaren jarrera

Elkarlanean aritzeko prestutasuna adierazi zuen Eusko Jaurlaritzak, betiere, armagabetzea serio eta osorako eta ez maniobra txiki batzuen edo gehiegi luzatu den egoera bat are gehiago luzatzea helburu duten komunikazio operazioen zerbitzura. Bi urte lehenago egingako bakerako proposamena oraindik baliagarria zen, baina aurreikusitako armagabetzea ez balitz eskema horretan gauzatuko, horrek ez zukeen laguntzeko zuen prestutasuna zailantzan jarriko. Bake proposamen berriari zegokionez, Jaurlaritzak informazioa baieztatzen zuen: 2014an egindako proposamenaren eguneraketan zetzan, haren gobernu programan iragarrita zegoen eta PSOErekin hitzartutako gobernu akordioan jasota. Horrek ez zuen publiko egingo zenik esan nahi.

Eusko Jaurlaritzak bere parte hartzea ezinezko bihurtuko zukeen beste egiteko modu batez ohartarazi zuen: instituzioa nahaspilan kokatzea, gainerako erakunde eta herri mugimenduen maila berean, haatik, bi esparru eta bi erregistro ezberdin ziren. Eusko Jaurlaritzak ezingo zuen onartu, nahiz-eta ez zuen horregatik armagabetzearen gauzatzea tratatuko, azpimarratzen zuenez.

Martxoko lehen egunetan

Armagabetzeko eszenatokiaren lehen zirriborro bat helarazi zioten Bakegileek NEBri eta ETARI, Frantses gobernuarekin kooperazioan gauzatuko beharko zenaren hipotesiari helduz.

François Hollanden agintaldia bukaera aitzin ETAREN armagabetze osoa gauzatzean zetzan, Nazioarteko (NEB) kontrolpean. Behin betiko armagabetze horren sekuentzia egun bakar batean gauzatzeko proposamena egiten zuten Bakegileek. Euskal Elkarlagoko lehendakariaren eta Eusko Jaurlaritzaren zein Nafar Gobernuaren presentzia eskatuko zuten. Egunaren antolaketak jendarte zibileko boluntario kopuru jakin bat mobilizatzeko beharra zekarren. Zorroztasuna eta diskrezioa eskatuko zuten alderdi teknikoekin batera, egunak ahalik eta babes anitz eta zabalena jaso beharko zuen. Armagabetzearen alderdi operatibo delikatuena bideratuko zituzten boluntarioen interbentzioa erraztuko zuten baldintza politiko eta teknikoak sortzea zen kontua. Arrazoi hauengatik, egunaren antolaketarako beharrezkoa izango zen egun batzuk lehenago iragarpen publiko bat egitea. Era berean, egunak maila lokalean, maila nazionalean zein nazioartean oihartzun mediatiko zabala izango zuela bermatu beharra egongo zen.

François Dufoure eta José Boveren bidez, hasiera batean aurreikusitako bilera lehen ministroaren zerbitzuek blokeatu zutela jakin zuten Bakegileek, bileran parte hartu behar zuten Mixel Berhocoirigoin eta Txetx Etcheverryk, Luhusoko operazioaren ondorioz, auzi anti-terrorista batean zuten ikertu izaera dela-eta.

Paraleloki, François Hollanden aitzineko gobernu batean ministro izandako lehen mailako pertsonalitate politiko batek lehen Ministroari adierazi zion urgentziakoa zela, ETAREN armategiaren deuseztatzearen segida prestatzen hasi ziren Bakegileekin bilkura "operatibo" bat antolatzea. Ikerketapean ziren pertsonak ez beste batzuekin bilera antolatzea aztertu zen arren, azkenean, Frantziako gobernuak ez zion aukera horri heldu.

3. BILERA

2017ko martxoak 8, asteazkena, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hirugarren bilera

2014ko haren bake proposamena eguneratzen zuen dokumentua komunikatzen zien Eusko Jaurlaritzak Bakegileei eta honen lerro nagusiak aurkeztu zituen. ETari zuzenduriko proposamena ez zela zehaztu zuen, NEBri eta Bakegileei transmititzen zien bere posizioaren eguneraketa eta argipen ariketa baizik. Dokumentua ez zen publiko egin.

Dokumentuaren eta lantzen ari ziren eta NEBri bidali zioten eskemaren arteko antzekotasunak azpimarratu zituzten Bakegileek. NEBren erantzunaren zain zeuden. Eusko Jaurlaritzaren dokumentua aztertu eta epe laburrean itzuliko zien haiengana, ahalik eta azkarren biltzeko proposamenarekin.

4. BILERA

2017ko martxoak 12, igandea, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko laugarren bilera

Bakegileek azaldu zuten lehenik NEBrekin biltzeko asmoa zutela, armagabetzea osoki gauzatzea helburu zuen eszenatokiaren xehetasunak aurkezteko, Euskal Herriko instituzio zein eragile politiko eta sozialei aurkeztu aurretik. NEBk biltzeko egin behar zen proposamena berandutu eta Eusko Jaurlaritzaren dokumentua irakurri izanak, egutegia aldatzeko kobentzimendura eraman zituen Bakegileak.

Eusko Jaurlaritzaren proposamenak Bakegileen eskema berdina jasotzen zuen hainbat puntu garrantzitsuri dagokionez. Bakegileen baitan hitz egin ondotik, azken hauek berehala Eusko Jaurlaritzarekin aipatzea erabaki zuten, NEBrekin izan behar zuten topaketaren zain egon gabe. Era horretan, NEBrekn hurrengo egunetan aipatuko zuten eskema aurkeztu zioten Eusko Jaurlaritzari, baina lehenik, honen inguruko informazioak hedabideei ez zabaltzearen garrantzia azpimarratu zuten.

Izan ere, martxoak 11n, larunbatez, Eusko Jaurlaritzarekin, “ezker abertzalearekin” eta PN-Vrekin egindako bileretako (bakoitza modu independentean egin zen) izandako elkarriketen elementu batzuk argitaratu zituen *Diario Vascok* artikulua batean. NEBari ere komunikatu zizkioten elementu hauek Bakegileek. Desformaturiko informazioak, akatsak edo gezurrak barne biltzen zituen *Diario Vascoren* artikulua.

Diario Vascoren iturriak zeintzuk ziren ez zekiten Bakegileek, baina filtrazio hauek zinezkoa arazoa ziren haientzat, haien prestakuntza lanei buruzko informazioa modu zabalean Euskal Herriko arduradun sozial eta politiko kopuru handi batekin partekatzea zihoazen unean.

Bakegileen agertokia

Ekainaren 12ko bilkuran, haien eszenatoki proposamena marrazteko gakoak izan ziren parametroak deskribatu zizkioten Bakegileek Eusko Jaurlaritzari. François Hollanden ondorengoa nor izango zen jakiteke, hurrengo presidentetzarako hauteskundeak baino lehen eman nahi zioten bukaera armagabetzeari. Haien ustez, auzi hau presidente honen ardura zen eta bere agintaldian eman behar zitzaion irtenbidea.

Armategiaren zati bat etxebizitzetan gordea izateak eragiten zuen operazioa konplexu eta delikatu izatea. Frantses Gobernuak kooperazioa eta laguntza eman arren, armagabetzea gauzatzeko prest egon behar zuten, Bakegileek. Haatik, azken egunera arte saiatuko ziren Frantziako Gobernua haiekin elkarlanean ari izan zedin konbentzitzen, inolako baldintza politikorik gabe, baina baldintza tekniko zehatzekin. Kasu horretan, gobernuari erabateko konfidentziasuna bermatzeko prest zeuden Bakegileek, gutxienez, presidentetzarako hauteskundeak eta hauteskunde legegileak iragan arte.

Frantses Gobernuaren kooperazioa gabe jardun behar bazuten, prestakuntza eta mobilizazio prozesu bati bukaera emanen ziokeen egun bat antolatzea pentsatzen ari ziren, zeinak parean zituzten arazo politiko eta tekniko ezberdinak konpontzera eramane behar zituen. Egun horren biharamunean, ETA osoki armagabetua izango zen. Egun horrek lau sekuentzia ezberdin barnebilduko zituzkeen.

1) Baionako udaletxean, armategien lokalizazio puntuen entrega NEBk gidaturiko nazioarteko delegaritza bati, Euskal Herriko hiru exekutiboetako lehendakarien presentziarekin: EAE, Nafarroako Foru Komunitatea eta Euskal Elkargoa.

Horren ondoren, NEBk lokalizazio puntuak emango zizkien berehala frantses autoritateei edo justiziari. Udaletxeko saioari jarraipena emateko, hiru lehendakariak hiru hizkuntzatan idatziko adierazpen instituzionala irakurriko zioten prentsari.

Lokalizazio puntuen entregak ETAREN armategi osoa *in fine* autoritateei komunikatzen ahalko zizkioten gunetan birbatu beharra eragiten zuen, pertsona berri batzuen atxiloteta eta espetxeratzeak ondorioztatu gabe. Gune horiek guztiak Frantses Estatuan kokatuak izango ziren.

2) Lokalizazio puntuen entregaren une berean, hitzarmen berezi baten arabera errekrutatutako eta Bakegileek aukeraturiko behatzaileak armategietan kokatuko dira. Frantses Gobernua iritsi arte egongo ziren bertan, eta hari tokia utziko zioten ondoren.

3) Arratsaldean, sekuentzia hau eta goizekoa argiki bereizi ahal izateko, armagabetzeari babesa emango zion jendarte zibilaren mobilizazioa antolatuko dute Bakegileek. Euskal Herriko bake prozesuaren aldeko sektoreen aniztasun politiko ahalik eta zabalena adierazteko helburua izango du zuen mobilizazioak. Hausnarketaren une horretan, giza-kate bat edo manifestazio isil bat aurreikusitakoak ziren.

4) Armagabetzearen izaera erreal eta osoaren egiaztapena NEBren eskutik.

Bakegileek proposatutako eskemaren helburuak

Zeintzuk ziren eskema global horren helburuak? Armagabetzea politikoki zein teknikoki egun bakar batean gauza zedin ahalbidetzea zen kontua. Eta horrez gain: Bakegileen

boluntarioei berme politiko eta juridikoak ematea, baita etxeetan kokatutako arma gordailuen arazo delikatuaren ardura zeukatenei ere; frantses polizia behartzea arma gordailuen kokalekuetara lehenbailehen irits zedin itzulitako materiala berreskuratzea eta materialaren osotasuna haiek eta soilik eta haiek berreskuratuko zutela egiaztatzeko; galtzaile-irabazle eskema bat eszenaratzea, errendizio irudiak edo alderantziz azken gera-erakustaldiak, edo batzuk ala besteak mindu edo zauritu zitzaketen beste edozein eszenaratze saihesteko.

Bakegileek martxoaren 17an, ostiralez, egunaren data publikoki iragartzeko asmoa zuten. Bake Bideak martxoaren 17 eta 18an Miarritzen antolaturiko "Armagabetzea bake prozesuaren zerbitzura" foroak egun hori izango zuen gai nagusitzat. Zertarako iragarpen publiko bat ?

Frantses Gobernuaren kooperazioa edo behintzat harekiko kontsertazioa lortzeko azken saiakera zen. Armagabetzearen data eta haren izaera osoa publikoki iragarritzat, bere arduren parean jartzen zuten Frantziako gobernuak eta data presidentziarako hauteskundeen ondorenerako atzeratzea xedetzat zuten maniobra salatariak saihesteko zituzten. Gainera, armagabetzea bakarrik antolatu behar zuten (Frantzia gobernuaren kooperaziorik gabe), iragarpen publikoak funtsezko bi interes zituen

1) Bakegileek ehunka laguntzaile, behatzaile eta pertsonalitate mobilizatu behar zituzten halako operazio batek eskatzen zituen eginbehar politiko eta teknikoei erantzuteko. Oraindanik azaldu nahi zioten prestatzen ari zirena Euskal Herriko ahal bezain bat indar politiko, sindikal eta soziali haien iritziak zein analisiak bildu, eskema egokitu eta E egunean adieraziko ziren mezurik politikoen idazketa ahalik eta gehien partekatzeko. Filtrazioak saihestezinak bihurtuko ziren orduan, prentesak berandu baino lehen izango zuen armagabetzearen dataren eta nondik norakoaren berri. Bakegileek beraiek eman nahi zituzten eman informazioak haien gaineko komunikazioa ahalik eta ongien kudeatzeko.

2) Frantses Gobernuak prest mantendu beharko zituen egun horretan deuseztatuko armategia neutralizatzeko dispositiboak eta lehergailu idargabetze taldeak. Eguna eta nondik norakoak publiko eginda, ezingo zuen asumitu istripuak edo armategiaren zati bat asmo txarreko entitate batzuek berreskura zezaten saihesteko esku artean zuen guztia ez egitea.

Eusko Jaurlaritzaren iritzia

Diario Vasco filtrazioetan inolako ardurarik izatea ukatzen zuen Eusko Jaurlaritzak. Bileren honen perspektiban, Bakegileei eginbeharreko hamar galderako zerrenda bat osatu zuten, baina haietako askori erantzun zioten Bakegileek: nork antolatuko du armagabetzea ? Bakegileek. Noiz eta zenbat alditan ? Aldi bakar batean, presidentziarako hauteskundeen aurretik. Zertaz osatua da armategia, inbentariarik ba al dago ? Bai. Zein egoeratan dago materiala ? Bakegileek ez dute inoiz identifikazio judiziala oztopatu nahi izan. Nola iragango da armagabetzea ? Bakegileek haien eszenatokia aurkeztu berri dute, baita lokalizazio puntuen entregarako modalitateak ere. Ba al dago hori dena bermatzen duen dokumenturik ? Ez.

Goizeko sekuentzia eta adierazpen instituzionala aipatu zituen Eusko Jaurlaritzak. Haren tzat, ezinezkoa da onartzea, ematen zaion papera apaingarri hutsarena den heinean. Errespagarriak diren baina maila bera ez duten eta azken bost urteotan bakearen alde berak adinako ekimenik izan ez zuten bi instituzioen artean diluituko zukeen.

Eusko Jaurlaritzak armagabetzearen legezkotasuna aipatzen zuen, eta ondorioz, armak identifikagarriak izateko beharra azpimarratzen. Bazekien hau eztabaida teorikoa zela eta armak identifikazio bakar bat ere posible ez egiteko moduan bilduta zeudela baldin-eta poliziak arma-gordailuren bat aurkituko bazituen. Adibidez, ez zegoen aztarna edo ADN arrastorik 2016ko urriaren 12an Compiègneko basoan aurkitutako ETaren gordailuaren ehundaka armetan. Haatik, arma horiek erabili zituzten pertsonen identifikazioa zaildu nahi izatearen itxura ematako biktima elkartean haserrea piztu zezakeen. Ordea, garrantzitsua zen elkarte horiekiko elkarlana ahal bezain sustatzeko konponbideak bilatzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzarentzat, prozesu guztiaren honen eraikuntza mediatikoak zinezko arazoak sortzen eta egunaren formatuak garrantzia handiegia ematen zion ezker abertzaleari. Hau dena “exibizionistegia” da. Nolabaiteko eszenaratze baten beharra uler zezaken Jaurlaritzak, baina xumeagoa izan beharko zukeen.

Bakegileen zehaztapenak

Armagabetzearen egunerako formatu proposamen hau, parte guztiak asebate zitzakeen oreka helburuen adostasun global baten emaitza zela adierazi zuten. Instituzioei esleituriko sekuentzia oso garrantzitsua iruditzen zitzaien egunaren hasiera emango ziolako. Lokalizazio puntuen entrega momentua izango zen heinena, maila lokalean zein nazioartean oihartzunik eta ondorio mediatikorik handienak izango zituen unea zirelakoan zeuden.

Bakegileek nahita eta argiki bereizi zuten goizeko sekuentzia eta arratsalderako finkatutako mobilizazioa soziala, teknikoa, azken hau goiz bukaeran kokatzea komenigarriagoa zatekeen arren. Eusko Jaurlaritzaren nahiari erantzuteko helburuarekin hau erakundeen eta herri mugimenduen maila berean kokatua edo urtua izan ez zedin, hauen eta instituzioaren artean dagoen izaera eta erregistro ezberdintasuna errespetatzeko gisan. Adierazpen instituzionalaren pisua indartzea eta egunean toki zentrala eskaintzea posible zela azpimarratu zuten Bakegileek, betiere, denek onar zezaketen edukia jasotzen baldin bazuen.

Armagabetzearen alderdi “*legal*” iruzkintzen zuten Bakegileek: gobernuak egiazko kooperazioa onartzen zuenaren kasuan baino ez zen erabat legezkoa izango. Gainontzean, begien bistakoa da ez zela legezkoa herritar talde bat ETaren gisako talde armatu batekin harremanetan sartzea, eta bere armategiaren deuseztearen kargu egitea. Operazioen egikaritzea Euskal Herriko herritarrentzat zein hautetsientzat ahalik eta asumigarriena izatea zen helburua. Hori beteko balitz, babes politiko eta penal garrantzitsua eskainiko zitzaiekeen Bakegileei, Luhusoko adibideak erakutsi dzen bezala. Bakegileek berretsi zuten, Luhusoko ekimenen lehen prestakuntza lanetatik hasirik, sekula ez zutela deuseztaturiko armategiaren identifikazio oztopatzeko intentzioa izan.

Topaketa honetan, Stéphane Le Foll frantses gobernuko ministro eta bozeramailearekin izandako trukeak aipagai izan zituzten Bakegileek. Bruno Leroux barne ministroaren mezulariak transmitituriko mezua aipatu zuten berriz ere, komunikazio kanala izendatu eta zehaztu gabe (gobernuaren hurbileko iturrietatik zetorren sinesgarritasun handiko mezutzat hartzen zuten): Frantziak armagabetzea egiten uzteko erabakia hartua omen zuen, eta gauza bera egin zezan Espainia konbentzitu omen zuen Frantzia-Espainia Malagako gailurrean.

Eusko Jaurlaritzak Frantziaren esku hartzearen ondorioz gertaturiko Espainiar Estatuaren iritzi aldaketaren berri izan zuen. Ordea, esku hartzea eta aldaketa hau ez zituen Malagako gailurrean kokatzen, lau aste lehenago baizik, hots, Malaga aurretik.

Gertakarien berehalako segidari buruz

Eusko Jaurlaritzak Bakegileei galdetu zien ea baliagarriak iruditzen zitzaizen egun honetako elkarrizketaren edukia aipatzea Frantziako zein Espainiako gobernuetan dituzten kontaktuekin. Modu honetan egingo luke: *“Eusko Jaurlaritzak uste du, epe laburrean, armagabetze osoaren prestatzen ari direla, hobe legoke gobernuak beraiek horretan inplikatu balira”*. Frantziako gobernuari jadanik helarazi zioten mezua zela erantzun zuten Bakegileek eta ez zuten aurka egiteko arrazoirik ikusten.

Bakegileek Alderdi Sozialistaren eta Podemos Euskadiren ordezkariekin harremantzeko moduez galdetu Eusko Jaurlaritzari. Izan ere, haiekin bildu nahi zuen armagabetze egunaren inguruan solastatzeko, iragarpena publiko egin aurretik. Harreman hori berak egitea proposatzen zuen Eusko Jaurlaritzak. Bakegileek proposamena baztertu zute. Proposamena Bakegileek beraiek aurkeztea zuzenagoa zelakoan zeuden, azken hau findu ahal izateko askotariko sentsibilitateen arabera. Eusko Jaurlaritzak behin PSOE abisatzea proposatzen zuen, Bakegileekin bildu aurretioxan, azken hauek inizatiba garrantzitsu baten berri eman-go ziotela adieraziz. Argi esan zuen Jaurlaritzak, haien sozialistak haien aliatuak zirela eta problematikoa gerta zitekeela haiekin ez aipatzea. Jaurlaritzak Nafarroako Foru Gobernuarekin ere aipatu nahi zuen gaia, Bakegileek ere harekin elkartzeko asmoa zuten. Bi proposamenak onartu zituzten Bakegileek.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak, ostiral goizez, armagabetze egunaren dataren iragarpenerako aurreikusitako egunean, termino hauetan PP informatu ahal izatea galdetu zuten: *“Armagabetzeari buruzko kontu garrantzitsu bat komunikatuko da, soseguz aztertua izatea mereziko duena”*. Haien onespena eman zuten Bakegileek.

Martxoaren 13a astelehena:

- François Hollanden ministro ohia zen eta Bakegileentzat jadanik lehen ministroarekin esku hartu duen lehen mailako pertsonalitate politikoak honako mezua helarazi zien azken honen zerbitzuei: Bakegileek armagabetzea egun bakar batez antolatzeke erabakitasa zuten, hurrengo presidentziarako hauteskundeen aurretik. Aste horretan, frantses estatuko zerbitzuekin bilkura “operatibo” bat egin ezean, armagabetze egunaren data martxoaren 17an, ostiralez publiko egingo zutela erabaki zuten.

- Bakegileen eta Euskal Elkargoko presidentearekin bilkura.

Martxoaren 14a asteartea:

Txetx Etxeberriren testu baten argitalpena, Bakegileen izenean, Mediapart Frantziako hedabidean, “Armagabetzea orain da” izenburuarekin. Frantses Gobernuak Bakegileekin harremanetan sartzearen garrantzia azpimarratu zuen “Bakegileek egindako inolako baldintza politikorik gabeko kooperaziorako proposamen ordenatu, seguru, diskretuei erantzun diezaien”. Hala ez balitz, “jendarte zibilak, bere osagai ezberdinekin, bere ardurak hartu beharoko ditu berriz ere, datozen hilabeteetan, gai hau bere kabuz behin betiko konpontzeko”.

Martxoak 15, asteartea Parisen:

Bakegileen eta Nazioarteko egiaztatzaile batzordearen arteko bilkura.

5. BILERA

2017ko martxoak 16, osteguna, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko bostgarren bilera

Frantziako lehen ministroaren zerbitzuei helarazitako mezuaren zein Nazioarteko egiaztatzaileen batzordearen izandako bilkuren berri eman zuten Bakegileek. Ostegun eta ostiral horretan, Hego Euskal Herriko eragile ezberdinekin, Ipar Euskal Herriko hainbat parlamentari eta hautetsiren zein Alvaro Baraibar, Nafar Gobernuako Bake, elkarbizitza eta giza eskubideetarako zuzendari orokorrarekin egingo zituzten bilkuren inguruko informazioa ere eman zuten.

Armagabetzearen data eta xedea martxoaren 17an egingo ziren publiko, eguerdi aldera, Frantziako hedabide handi batean. Komunikazio horretan, Bakegileek ez zuten egunaren edukiaren (sekuentzia instituzionala, egiaztatzaileak, arratsaldeko elkarretaratzea) inguruko elementurik eskainiko.

Sortuko zituen erreakzio eta galderen arabera, Bake Bideak Miarritzen antolatuko duen Armagabetzea bake prozesuaren zerbitzura foroaren baitan iragarpena osatzea zen asmoa, besteak beste, hiru bakegileren interbentzioarekin: Mixel Berhocoirigoin, Michel Tubiana eta Txetx Etcheverry.

Hurrengo astean zehar, Ipar Euskal Herriko sentsibilitate guztietako eta atxikimendu politiko, sindikal edo elkarte munduko pertsonalitateek egunari eta laguntzeko moduei buruzko informazio gehiago eman zuten. Egunean masiboki parte hartzera deitu zuten.

Martxoaren 16ko topaketan Eusko Jaurlaritzari egindako beste zehaztapen garrantzitsu bat: Bakegileek ez zituzten itzuliko ziren armen “barrileteak” zulatu eta kanoiak moztuko.

Bestalde, arratsaldeko “mobilizazio sozialari” dagokionez, Bakegileek ezker abertzalearen ekintza errepertorioan ohikoak diren manifestazio isilaren edo giza katearen ideiak baztertu zituzten elkarretaratze-ekitaldi bat antolatuko asmoa zuten zeinetan ahalik eta sentsibilitate gehien ordezkatuak izango ziren oholtza gaineko pertsonen bidez edo irakurriko ziren testuen edukiaren bidez.

Elkarretaratzeak tonu larri eta solemnea izango zuen. Armagabetzetik haratago, presoen eta biktimen gaiak ere aipagai izango ziren bertan.

Egunaren “*pilotatze politikorako kabina*” bat antolatuko zen, zeinetan bilduko ziren armagabetze egunean presente izango ziren edo hartara deituko zuten indar politiko, sindikal eta sozialetako ordezkari bana. Pilotatze kabina horren misioa: egunean zehar gerta zitekeen guztia modu kolektibo eta kontsentsuzkoan kudeatzea eta balorazioarako prentsa ohar publikoa elkarrekin idaztea.*

Martxoaren 17an, hurrengo ostiralean armagabetzeko egunaren data eta printzipioa publikoki iragartzearen aurkako jarrera irmoa agertu zuen Eusko Jaurlaritzak. Lokalizazio puntuen entrega mobilizazio sozialaz bestela egin zedin erregu egin zien Bakegileei.

Martxoak 16 osteguna: Bakegileen eta Nafar Gobernuaren ordezkari baten arteko bilera. EAJren eta Bakegileen arteko bilera. Bakegileen eta ELA sindikatuaren arteko bilera.

* Pilotatze kabina Euskal Museoaren lehen solairuan kokatu zen, hitzaldien aretoan

2017ko martxoak 16, osteguna, gauean, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko solasaldi telefonikoa

Martxoaren 16an, 21:30ak aldera, Eusko Jaurlaritzaren eta Txetx Etcheverryren arteko elkarrizketa telefonikoa iragan zen, telefono seguru baten bidez. Eusko Jaurlaritzaren arabera, Martxoaren 12an, igande eguerdiz egindako bileraren ondoren, Eusko Jaurlaritzako Bake eta Elkarbizitzarako idazkari orokorra arratsaldean bertan bildu zen Iñigo Urkullu lehendakariarekin. Jaurlaritzak goren mailako kudeaketa abiatu zuen orduan gai honen inguruan Espainiako gobernuarekin. Aurreikusi bezala, Madrili adierazi zion Bakegileak *“armagabetze osoa prestatzen ari direla epe laburrean”*. Madrilek *“zerbait bazekien, baina ez guztia”* eta Jaurlaritzaren keinua eskertu zuen. Jaurlaritzak Espainiar Gobernuari azaldu zion Bakegileek hainbat harreman izan zituztela Frantziako gobernuarekin eta haren kooperazioa galdetu ziola armagabetzea ahalik eta modu onenean iragan zedin. Bakegileek bilera *“operatibo”* bat eskatu zioten Frantses Estatuko zerbitzuekin baina ez zuten erantzun baikorrik izan oraindik puntu horretan. Espainiako Gobernuak bere homologo frantsesarengan esku hartu ahal zezakeen ekimen hau begi txarrez ikusten ez duela esan eta gauzak erraztu zitzaizkien proposatzeko? Espainiar gobernuaren erreakzioa aski baikorra izan zen: *«Vamos a intentarlo, vamos a intentarlo»**. Eusko Jaurlaritzaren arabera, horrek ez zuen gauza handirik esan nahi, baina Gasteizek jaso ohi zituen erantzunetikiko aldaketa aski erradikala suposatzen zuen: halako gaiei buruz, EZEZKO irmo bat izan ohi zen Espainiako gobernuaren erantzuna...

Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako gobernuaren arteko bileraren ondotik, azken honen goren mailako solaskideak Jaurlaritzari adierazten zion Madril Parisekin harremanetan sartu zela. Frantses Gobernuak erantzun zuen Bakegileen inolako ordezkariarik ez zela harremanetan sartu haiekin gai horri buruz... Euskal Herriko nekazarien ordezkari batek hitzordu bat eskatu zuela gobernu ministro batekin baina azkenean hitzordurik ez zela izan.

Bakegileek, Otsailaren 17an Mixel Berhacorigoin eta Stéphane Le Foll gobernuko bozeramaileen arteko bilkura azken honen ministerioan egin zela berretsi ondoren, hala segitu zuen Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak: *“Lehendakariak uste du ezer ez litzatekeela argitaratu beharko prentsan bihar, Martxoaren 17an. Egiazko zuhurtziagabekeria da. Denak atxilotuak izateko arriskua duzue. Garrantzitsua litzateke, zinez, iragarpen hau egun batzuek atzeratzea, baloratzekoa da, lehenengo aldiz, Espainiar Gobernuaren erantzunen tonalitatea aski baikorra izan dela”*.

Luzaz gogoetaturiko erabakia zela erantzuten zuten Bakegileek eta Eusko Jaurlaritzak aurkako iritzia agertu ondoren, jadanik hitz egin zutela haien artean behin baino gehiagotan horretaz. Baina bi hilabete igaro ondoren frantses gobernuak kooperazio edo behintzat kontzertazioa eskema batean sartzeko ahalegina egiten, Paris denbora irabazi nahian ari zela iruditzen zitzaizkien, arazoaren kudeaketa hurrengo presidente eta gobernuari uzteko asmoarekin. Hori saihestu nahi zuten Bakegileek. Denborak azeleratu eta Paris bere arduren parean jartzeko beharra zegoen orain. Gainera, beranduegi zen jada, artikulak bukatuta eta biharamun eguerdian argiratzeko programatuta zeuden.**

Nazioarteko Egiaztatze Batzordea ere agitazio sozialez eta filtrazio kaltegarriek preokupatuta zegoela baieztatu zuen Eusko Jaurlaritzak. Data babestu eta eta arma gordelekuen lokalizazio puntuen entrega eta mobilizazio egunaren sekuentziak bereizi beharra zegoen.

* “Saiatuko gara, saiatuko gara”

** Gaiaren inguruko hainbat artikulua argitaratu dira Le Monde egunkariaren webgunean Martxoaren 17an 12:30etan.

Eusko Jaurlaritzarentzat «*Martxoaren 17ko iragarpena lehergailu bat da eta honek murturreko tentsio mediatikoki hiru aste eragingo dizkigu. Lehendakariak armagabetze egunean parte hartzeko nahia zuen orain arte, biktimen elkarteei, elizari aipatu nahi zien etabar... Gaur egun, Jaurlaritzako Bake eta Biziketzarako zuzendari orokorrak ez daki ea lehenkariak zer esan eta zer egingo duen. Jaurlaritzako arduradunak hitz egin du Nafar Gobernuako Bake, Biziketza eta Giza Eskubideetarako zuzendari orokorrearekin eta PSOEekin hitz egin beharko du gai honetaz.*»

Martxoak 17 ostirala: Goiz osoan zehar, Bakegileen eta PSE-EEren arteko bilera; Bakegileen eta Podemosen arteko bilera; Bakegileen eta Ipar Euskal Herriko tokiko hautetsi eta parlamentari ezberdinen arteko bilera

12:30: Txetx Etcheverryk Le Monde egunkariari egindako iragarpenari buruzko hainbat artikuluren argitalpena: "*Bere armategiaren armagabetzearen ardura eman digu ETAK, Apirilaren 8ko gauean, osoki armagabetuta izango da ETA*". Iragarpena egun batzuk lehenago eman zen, Le Monde egunkariko kazetari batekin Parisen egindako elkarrizketa batean, ostiral eguerdirako informazioa enbargoan izateko konpromisoarekin.

Berriak oihartzun oso garrantzitsua izan zuen, bai Parisen, bai Madrilen eta baita, noski, Euskal Herrian ere.

Le Mondek galdetuta, honakoa adierazi zuen Jean-René Etchegaray, Euskal Elkarngoaren lehendakariak: «*Estatuak ekimen bateratu honekiko itsu eta gor jarraitu nahi baldin badu, ez da gizarte zibilak bere eskuen artean hartzea beste bitartirik egongo. Gure etorkizuna konprometitzen du prozesu honek, gatazka honekin bizi izan gara hamarkada luzez, jasangaitza da*».

2017ko martxoak 17, ostirala, arratsalde, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko solasaldi telefonikoa

Elkarrizketa honetan, Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen Espainiako Gobernuarekiko harremanari eusten ziola eta "*elkar-ulermena ez zela txarra*". Frantziako Gobernuarekin harreman ez-zuzen bat ere lotu zuen Gasteizek. Bakegileak prestatzen ari ziren operazioetarako babesa baino arrisku bihur zitekeen gehiegizko agitazioa saihesteko beharra azpimarratu zuten. Eusko Jaurlaritzak ez zuen ordezkariarik izango gau horretan hasi zen Bake Bidearen Miarritzeko foroan.

Martxoak 17 ostirala eta martxoak 18 larunbata: Bake Bideak antolaturiko foroa Miarritzen "*Bake prozesua armagabetzearen zerbitzura*" lelopean.

6.BILERA

2017ko martxoak 20, astelehena, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko seigarren bilera

Lehenik eta behin, aste bukaerako azken gertakariari buruzko analisia aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak. *"Bakegileek armagabetze egunaren data eta printzipioak publiko aurkeztearekin desados egon arren, Mariano Rajoyri, alderdiei eta biktimen elkarte batekin ostiralean zerbait serioa iragarriko zela azaltzeko hitz eginda bere lana egin"* duela-koan dago.

Lehendakariak berehala publiko egin zuen adierazpen bat zeinetan sinesgarritasuna ematen dion epe laburrean armagabetzea gauzatuko zenaren iragarpenari eta hala izan zedin irismenean zegoen guztia egiteko prest agertzen zen. Egindako kudeaketa mediatikoaren inguruko desadostasun handia adierazten du Jaurlaritzak. Gauza gehiegi esaten ziren prentsan, Bakegileen protagonismo nahi bat zegoen. Armagabetze prozesuaren aurkezpenak *"ekintzailatza sozialari"* loturiko irudi azkarregia ematen zuen. Guzti honek seriotasun falta adierazten du eta irrigarri sentsazioa eragiten du. Apirilaren 8rako falta ziren 19 egunak oso luzeak izango zirela uste zuen Jaurlaritzak. Baldintza hauetan, lehendakariak ez du Apirilaren 8an parte hartuko. Bakegileek *"zirku oso bat muntatu"* zutenaren sentipena zuen Jaurlaritzak. Nafar Gobernuak antzera pentsatuko zuela uste zuen.

Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen Nazioarteko Egiaztatze Batzordea ez zegoela eroso Bakegileek pentsatutako agertokiaren eta haren egonezinen berri komunikatu ziola ETA erakundeari. Haatik, Mariano Rajoy eta Bruno Le Rouxk *"ez dute ezer hautsi"*. Soiltasun handiagoaren eta agitazioa gutxiagorekin jokatu beharra zegoen. Zeintzuk ziren alternatibak? Data 8 egunez aurreratzea. Armagabetze egunerako beharrezkoak ziren boluntarioen errekrutatzea publiko ez egitea. *"Paparra ez ateratzea"*.

Hedabideetako filtrazioen arazoa

Asteburuan prentsan izandako filtrazioen arazoa mahai-gaineratu zuten berriro ere Bakegileek. Gehiegizko komunikazioa edo protagonismo nahia aipatzen zituen Jaurlaritzak bera izan zen prentsari egunaren edukiaren inguruko hainbat informazio pasa zizkiona; aitzitik, hitzartu bezala, Bakegileek ez zuten gertakarien edukiaren inguruko zehaztasunik eman.

Bakegileek Jaurlaritzak sinetsi nahi eta ahal izan zuten aurreko asteburuan *Diario Vascon* izandako filtrazioekin zerikusirik ez zuela zioelarik. Baina oraingoan, askoz ere zailagoa zen sinestea. Asteburu hartan *El Diario Vasco*, *Deia*, *ETB*, *EFEn* eta abar... filtraturiko informazio guztiek ia Jaurlaritzak soilik eskuraturiko informazioekin bat egiten zuten. Gainera, agertokiaren elementuen artean, Eusko Jaurlaritzak ontzat jotzen zituenen berri baino ez zen eman. Ez zen babesten ez zuen elementurik agertu, arratsaldeko elkarretaratzeari adibidez, ez zitzaion aipamenik egin. Hori dena are problematikoagoa zen Bakegileek presatzen ari ziren ekimenaren eta antolatzaileen zinezko intentzioen desitxuratzen zituelako. Armagabetzerako operazioen plana zentzu jakin batean aldatzeko Bakegileei presioa egitea helburu zutela zirudien.

Izan ere, filtratu eta Bakegileen intentziotzat aurkezturiko hainbat elementuk ez zuten Bakegileek aurreikusi eta Eusko Jaurlaritzari komunikatutako agertokiarekin bat egiten, Jaurlaritzak Bakegileek egitea nahi zuenarekin baizik.

Adibidez, lokalizazio puntuetan entregarako aurreikusitako instituzio bakarra Eusko Jaur-laritzaren inpresioa ematen zuten argitaratutako artikuluek; ez zitzairen aipamenik egiten Nafar Gobernuari edo Euskal Elkargoari. Presentzia instituzionala babes juridikotzat aurkeztea zen xedea; horrek ez zuen bat egiten Bakegileen ikuspegiarekin. Haientzat, Eusko Jaur-laritzaren presentzia Euskal Herriaren historiaren orrialde horren aldeko kontsent-su zabalaren bilaketan eta euskal instituzioen babesaren erakusle zen. Bestalde, prentsan deskribatzen ziren sekuentzia ezberdinak egun berean izango ez zirela data ezberdinetan gerta zitezkeela ematen zen aditzera.

Hainbat hedabideetan izandako filtrazioen pasarte batzuk:

«Jonan Fernandez Eusko Jaur-laritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia-ren iritziz, iragarritako armagabetzea» legezkoa «da, talde terroristaren gordailuei bu-ruzko informazioa Frantziako Justiziar jakinaraziko baitzaio(...) Helburua armak ez sunt-sitzea da(...) ETAk bere zuloak aurkitzeko informazioa helaraziko dio Luhusoko taldeari, NEBek Eusko Jaur-laritzaren aurrean egingo die harrera(...) Luhusokoek erakundeen lanki-detza nahi dute babes judiziala nahi dutelako(...) Armagabetzearen berri emateak ez zuen ustekabeen hartu Eusko Jaur-laritzaren, azken asteetan Ipar Euskal Herrian gertatzen ari ziren mugimenduz informatuta baitzegoen -Luhusoko taldea(...) -. Lehendakariak joan den asteartean eman zion Gobernuako presidenteari erakunde armatuaren pla-nen berri, Moncloan egindako bileran(...) Hitzorduan, Rajoyk entzun zuen nola Urkulluk esan zion «Luhusoko taldeak» egingo zuen iragarpenaren garrantzia, eta jakinarazi zion Frantziako Gobernuak ETAREN planen berri izan zezakeela(...) ETAk emandako xedape-nak bere zuloen zerrenda biltzen du, horien geolokalizazioa barne(...) «Luhusoko bidean» aurreikusitako zuloak Frantziako lurraldean daude(...).

Prozesuak lau urrats ditu. Lehenengoa apirilaren 8an bertan izango da, ETAk zuloen geo-lokalizazioa helaraziko die «Luhusoko Taldea» osatzen dutenei, eta gizarte-ekintzaileek NEBko nazioarteko egiaztatzaileei jakinaraziko diete. Hurrengo egunetan, oraindik ze-haztu gabe, gainerako urratsak kateatuz joango dira. Bigarrena, «Luhusoko taldeak» ETAK NEBek kideei emandako datuak erakundeetako ordezkarien aurrean ematea izango litzateke, zehazki Eusko Jaur-laritzaren aurrean, egiaztatzaileek zuloen geolokali-zazioaren egiazkotasuna egiaztatu ahal izan dezaten. Hirugarren urratsa NEBk zuloen datuak Frantziako Gobernuari ematen dizkionean izango da. Laugarren puntuan, bi-tartean, Frantziako segurtasun-indarrak zuloen jabea egitea aurreikusten da, ahal dela, gizarte zibileko kideen aurrean. Asmo hori konplexuena izan daiteke gauzatzeko, baina ETAREN nahia armak «herriari» entregatzeko modua irudikatzea da .»

Kontakizunaren bataila

Bakegileek behar bezala balioetsi zuten Lehendakariaren adierazpena eta Eusko Jaur-laritzak berehalako armagabetze baten iragarpenari erantzun moderatuak edo positiboak emateko egindako lana.

Jaur-laritzak uste baino askoz gehiago mugatu zuten Bakegileek haien komunikazioa. Api-rilaren 9ko iragarpen publikoaz geroztik mundu osotik jasotako elkarrizketa eta erreakzio eskaera gehienak ukatu zituzten. Burutuak izan zirenek ez zuten «*paparra ateratzeko*» xederik, baizik eta ahalik eta hobekien esplikatzeko zein izpirituekin lantzen eta pentsatzen ari ziren armagabetzea.

Eusko Jaur-laritzarekin adostutakoaren arabera, Bakearen Artisauak egunaren printzipio oroko-rra — «apirilaren 8ko gauean, ETA erabat armagabetuta egongo da» — eta data baino ez zituzten

jakinarazi; ez edukia, hau da, lau sekuentziak eta xehetasunak. Aldiz, Eusko Jaurlaritzak egin zuen, interesatzen zitzaizkion elementuei erreferentzia eginez. Horrek benetako arazoa sortzen zien Bakegileei, prozesu hori hari fin eta konplexu batean kokatzen saiatzen ari baitziren, inplikaturako zati guztiak oro har ase edo, gutxienez, ahalik eta talka gutxien sortuko zuen eskema bat eraikitzeko helburuarekin. Horrek beste pertsona batzuk bultzatzen zitzaizkien apirilaren 8rako pentsatua zen gidoiari buruzko informazio gehiago filtratzera, kontaketa orokorra orekatzeko. Azkenean, Eusko Jaurlaritzak berak nahi ez zuenera puntura irtisi zen egoera.

Bakegileek ulertzen zuten Eusko Jaurlaritzak zenbait elementuren berri eman behar zuela bere babesa edo egun horri ematen dion sinesgarritasuna justifikatzeko. Baina gutxienez, Bakegileekin hitz egitea zatekeen, jakinaren gainean egon zitezkeen eta, horrela, haien bertsioak aldeztu aurretik adostu zitzaizkien.

Bakegileek galdetzen zutean ea zer garrantzitsuena azkenean: bake prozesuaren aurrerapen zehatzak eta une horretan, ETArekin armategiaren erabateko eta egiaztatutako desegite batera lehenbailehen irteteko benetako aukera, ala kontakizunaren bataila? Eusko Jaurlaritzari oroitarazi zioten bi hilabete lehenago, haien arteko lehen topaketan, armagabetze prozesuak urte bat edo bi gehiago iraungo zuela sinetsita zegoela Jaurlaritza. Gasteizek ordura bazekien hiru astetan dena itxita egongo zela. Bakegileek hasieratik argi utzi zuten nola kudeatu behar zuten armagabetzearen sekuentzia zehatz horren kontakizuna, hori posible izan zedin: garaile-garaitu eskema bat ez eszenaratzea. Ez zuten gerora errebantxa edo konfrontazio bortitz batera itzultzeko desiren iturri izango zen inolako frustraziorik elikatu nahi,

“Ezin da akordiorik izan Frantziako Gobernuarekin”

Bakegileek Miarritzeko Foroaren garapenarekin pozik zeudela adierazten zioten Eusko Jaurlaritzari: publiko ugari eta motibatua, apirilaren 8ko iragarpena oso ongi hartua, Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehendakariak oso argi utzi zuen armagabetze egunari babesa emango ziola.

Bakegileek azaldu zuten apirilaren 8ko garapenari buruzko elementu batzuk jakinarazi behar zituztela ordutik goiti. Martxoaren 23an izango zen prentsaurreko baten bidez egingo zen hori.

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zituen prentsako filtrazio batzuk. Emandako justifikazioak: ongi azaldu behar zitzaizkien PSOERI, Mariano Rajoyri, Nafar Gobernuari, Terrorismoaren Biktimen Elkarteari zergatik eta zein parametroren arabera babesten zuen Eusko Jaurlaritzak armagabetze prozesu hori. Gasteizek bere solaskideen aurrean argudiatu behar zuen hau guztia legez egingo zela, behin betikoa eta baldintzarik gabea izango zela, eta abar.

Eusko Jaurlaritzaren aburuz, ez zegoen akordiorik Frantses Gobernuarekin. Gauza bakarra gerta zitekeen: magistratu bati kokapen-puntuak ematea, egun eta ordu horretan, eta ordura arte oztoporik ez jartzeko eskatzea. «*Iragarri duzuen bidearen onarpen orokorra dago. Irekita dago legezkoa izango delako. Zein da arazoa orain? Proposatzen duzuen eskeman, hori guztia arriskuan jartzen da*».

Eusko Jaurlaritzak Bakegileei esan zien elkarretaratzearen eguna eta arma-biltegien kokaguneak entregatzeko eguna bereizi behar zituztela, eta ez zutela iragarri behar armen gordeleketan Bakegileen borondatezko begiraleak egongo zirenik.

Bakegileek gauzak beren gidoian aurreikusi bezala iragarriz gero, Frantziako eta Espainiako gobernuak erasora pasako zirenen beldur zegoen Eusko Jaurlaritza. Kasu horretan, Eusko Jaurlaritzaren egoera oso kolokan egongo zen. «*Gaur bi gobernuak onesteko (eta ez onartzeko) aukera hautematen dugu, ez dezagun galtzen utzi*»

Testuinguruko elementuak

Martxoaren 20an, astelehena, Pauen, Bernard Cazeneuve lehen ministroaren eta Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehendakariaren arteko bilera, horien artean Frédérique Espagnac senataria eta Eric Morvan prefeta.

Lehen ministroak eta Euskal Elkargoko lehendakariak Le Monde egunkarian egindako Apirilaren 8aren iragarpena eta Miarrizten armagabetzeari buruz izandako foroa aipatu zituzten Jean-René Etchegarayk azpimarratzen zuen apirilaren 8aren garrantzia eta milaka herritarrek eta dozenaka pertsona ezagunek parte hartuko zutela. Jakinarazi zuen bere adostasuna eman zuela kokaguneen entrega Baionako herriko etxean egin zadin, bere presentziarekin. Lehen ministroak esan zuen entrega hori aginte judizialari egin behar zitzaioela. Pariseko parketeko François Moulinen izena aipatu zen. ETaren armategiaren desegitearen inguruan jarraitu zuen eztabaida, alderdi teknikoak hala nola, etxebizitzetan dauden arma gordelekuek sortzen zuten arazoa ere izan zuten hizpide. Lehen ministroak gogora ekarri zituen zuzenbide estatuen mugak, justiziaren independentzia eta botere banaketa, eta, aldi berean, testuinguru politikoa kontuan hartzea eta martxan diren gertakarien balorazioaren garrantzia. Tonua positiboa eta itxaropentsua zen, oraindik konpondu gabe zeuden arazo operatiboak gorabehera.

Martxoak 21, asteartea: Eric Morvan prefetaren eta Mixel Berhocoirigoinen arteko solasaldia

Martxoaren 21ean, asteartez, Paueko Villa Sainte-Helene-n laborantza gai bati buruzko bilera bat bukatzean, Eric Morvan Pirinio Atlantikoetako prefetak Mixel Berhocoirigoin Bakegileari galdetu zion ea bertan geldi zitekeen harekin buruz buru mintzatzeko beste auzi bati buruz.

Morvan prefeta Bernard Cazeneuve-ren kabineteburuorde ohia zen, Bernard Cazeneuve 2015ean eta 2016an Barne ministro izan zenean, beraz, 2015eko urtarrilaren 7ko (Charlie-Hebdo), hurrengo azaroaren 13ko (Paris eta Saint-Denis) eta 2016ko uztailearen 14ko (Niza) atentatuen garaian. Pirinio Atlantikoetako prefeta izendatu zuten 2016ko irailean. 2024ko apirilaren 2an, deklaratu du Beatrice Molle-Haran eta Txetx Etcheverry bi Bakegileen epaiketan deklaratu zuen, defentsak gonbidatuta.

Mixel Berhocoirigoin, beraz, Morvan prefetarekin bakartu zen, harekin hitz egin nahi baitzuen apirilaren 8ko armagabetze egunaz. Goi kargudunak jakinarazi zion Frantziako Gobernuari oso baikorra iruditzen zitzaioela ETA armagabetzeko prest egotea. Armak aurkitzeko puntuak Errepublikako prokuradoreari eman beharko zitzaizkion. Engaiamendu bat har zitekeen, prefetak azpimarratu zuenez: armen kokaguneak emango zituzten pertsonak ez ziren arriskupean egongo. Ondoren, agintariei armak berreskuratuko zituzten Zuzenbide Estatuaren esparruan. Hori guztia azaldu zion lehen ministroak Euskal Elkargoko presidenteari, hark etxebizitzetan ezkutatuak armen gaia aipatu zuenean.

Prefetak galdetzen zuen ea zergatik nahi zuten behatzaileen presentzia? Estatu frantsesarekiko mesfidantza zen arrazoia? Mixelek erantzun zuen Bakegileek bazekitela Frantziako agintariei kokalekuak emango zizkieten une berean, azken hauek Espainiako agintariei horien kopia igorriko zirela. Bakegileek ziur egon nahi zuten Frantziako zerbitzuak izango zirela armak eta lehergailuak berreskuratuko zituztenak,

inolako manipulazio posiblerik edo arazorik gerta ez zedin. Bakegileek ezin zuten informaziorik eman, berehalakoan nola kudeatuko ziren kontuan hartu gabe. Bakegileek ziurtatu nahi zuten armategi osoa berreskuratua izango zela eta hortaz, ez zela aukerarik izango talde edo zerbitzu batek armategi horren zati bat eskuratzeko.

Prefetak azpimarratu zuen ezein ministrok ezin izango zuela ez idatzi ez agindu, material edo arma batzuk ezkutatuak ziren etxebizitzetan jabeen aurkako neurri juridikorik eza. . Zuzenbide estatu batean gaude, adierazten du, bizileku horiek armagabetearen ohiz kanpoko testuinguruan seinalatzeak salbuespenezko tratamendu judizial ahalbidetu zezakeen, Beatrice Molle-Haran anderearen ez espetxeratzeko erabakiaren kasuan bezala, zeinaren Lulusoko etxeak armak eta lehergaiak aurkitu baitziren.

Mixel Berhocoirigoinek azaldu zuen Bakegileek gauzak behar bezala egin behar zituztela, ahalik eta hobekien kudeatu behar zituztela testuinguru politiko delikatu batean, ezinbesteko oreka batzuk mantenduz armagabetea erdiesteko eta, ondotik, gauzak zentzu onean garatzen segitzeko. Frantzia preso zegoen Oier Gomez euskal presoarekiko bere kezka bizia adierazi zuen, presoak minbizi bereziki larria izangatik ere, Fiskaltza osasun arrazoiengatik aske uztearen aurka azaldu baitzen behin eta berriz.

Mixel Berhocoirigoinek hona gaineratu zuen: Bakegileek bururaino heltzeko erabakimena dute, berme tekniko batzuk nahi dituzte operazioak ahal bezain ongi joan daitezen eta, gutxienez, frantses agintariek ez diezaieten oztoporik ezarri. Bakegileak prest daude in fine kokapen puntuak fiskalaren esku uzteko. Horretarako, ahal bezain laster bilkura bat antolatua izan dadin nahi dute, gauzak orokorki ahalik eta hobekien argitzeko.

Eric Morvan prefetak esan solasaldiaren berri emango ziola lehen ministroari.

Martxoak 21, asteartea: Bakegileen eta Euskal Elkargoko lehendakariaren arteko bilkura

Lehen ministroarekin izan zuen solasaldia aipatu zuen Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehendakariak. Bakegileek bat egin zuten Paueko topaketa horri buruz egiten zuen analisi baikorrarekin, eta gauzek bide onetik jarraituko zutela pentsatzeko parada ematen zien, baina azpimarratzen egiten zituzten oraindik konpontzeke zeuden puntu operatiboak eta Estatuko zerbitzuekin bilera operatibo bat egiteko beharra.

Baionan iragango zen Apirilaren 8ko egunaren antolaketaz ere aritu ziren Herriko Etxean egitarau instituzionalaz, mintzaldi egitarauaz eta arratsaldeko ekitaldiaz.

7. BILERA

2017ko martxoak 22, asteazkena, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko zazpigarren bilera

Eusko Jaurlaritzaren iritzia eta eskaerak

Frantziako agintariekin egin zituen urratsen ondorioz, «Valor cualificado»ko erantzun bat jaso zuela jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak. Erantzun horrek Bruno Le Roux Barne ministroak martxoaren 18ko komunikatuan egindako adierazpena berresten zuen: *«Autoritate judizialak bakarrik dauka armak eta lehergailuak berreskuratzeko ahalmena. Legea errespetatuz armagabetzeko irtenbide bakarra agintariei arma horien kokapenaren berri ematea da. Entregatzeko moduak ezin izango dira negoziatu. Gainera, frogetarako pieza horien manipulazio orok oztopatu egiten du justiziaren ekintza eta egiaren agerpena»*. Bernard Cazeneuve lehen ministroak Pauera etorri zenean prentsari egindako adierazpena ere bat dator: *«Ezein gobernu ezin dio kontra egin ekintza bortitzen eragile izan diren armak itzultzeari. Baina arma horiek egindako delituen araberako arau judizialei dagozkien irizpideak errespetatuz itzuli behar dira. Zuzenbide Estatua deitzen zaio horri»*.

Eusko Jaurlaritzaren arabera, Frantziako Gobernuak onartu egiten zuen, baina ez zen inplikaturik («involucrarse»), eta ez zuen modu zuzen edo formalean eszenaratzean parte hartuko ere. Prozesua onartuko zuen, baldin eta prozesu horrek lokalizazio-puntuak agintari judizialen esku uztea ondorioztatzen bazen.

Eusko Jaurlaritzak argibide partzialak jaso zituen kokalekuak entregatzeko moduari buruz. Horri buruzko informazio gehiago edukiko zuen hurrengo egunetan. Frantziako aldean zuen kontaktua eskatu zien Bakegileei eta Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari horren berri emateko. Diskrezioa funtsezkoa zen, oro har, baina bereziki armategia entregatzeari zegokionez.

Gasteizen ustez, Frantziako Gobernuak, Espainiako homologoarekin bat, prozesu hori egiten utziko zuen, baina beharrezkoa zuen alderdi «esenografikoak» zaintzea. Lehendakaria eta Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusia benetan beldurtuta zeuden operazioei emandako izaera publikoagatik dena ezerezteko arriskuagatik.

Maila pertsonalean, Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak adierazi zuen sekuentziak bereizi beharra zegoela. Sentsibilitate anitzak biltzen zituen elkarretaratze jendetsu batean Bakegileek ETA erakunde armagabea dela komunikatzearekin ados zegoen, ez zeukan arazorik hori larunbatean, 15:00etan egin zedin, Bakegileen eskemak zioen bezala. Baina Eusko Jaurlaritzak parte har zezan — eta Nazioarteko Egiaztatze Batzordearentzat ere balio zuen — aurreko egunean eman behar ziren lokalizazio-puntuak. Idazkari nagusiak uste zuen Bakegileen boluntarioak arma-gordelekuetan egotea ez zela posible, ezta garrantzitsua ere. Horrek erreakzio polizial eta mediatiko «basatia» eragingo zuen? Bestalde, ez zuen arazorik ikusten apirilaren 8ko goizaren hondarrean pentsatuak diren mahai-inguru, hitzaldi eta gogoeten antolaketari zegokionez.

Eusko Jaurlaritzak zioen prozesu horren «babes harresi» bat eraikitzen ari zela hedabideen, alderdi politikoaren eta gainerako gobernuaren aurrean. Bakegileek Jaurlaritzaren beren eskaerak kontuan hartzen ez bazituzten, Jaurlaritzak erretiratu egingo zen eta publikoki jakinaraziko zuen. Hori egitearen muga-mugan zegoen!

Bakegileen erantzuna

Komunikazioa eta elkarrizketak ahalik eta gehien mugatu zituztela adierazi zuten. Hori, ariketa zaila izan arren, batzuen eta besteen baieztapenei, zebilen informazio oker ugariari eta hipotesi eta beldur ezberdinei buruzko galde-eskeek gainditurik, komunikazioa kudeatzeko zelula bat ezartzen ari ziren orduan Bakegileen baitan, orduko eledun nagusiak lagundu eta haien lana arintzeko.

15:00etako elkarretaratzea lasaitasunez, duintasunez eta batzuen zein besteen errespetuz egingo zen. Hitz-hartzeen edukia aitzinetik jakingo zen, eta lehenik Hegoaldeko eragile politiko, sozial eta sindikalen eta Ipar Euskal Herriko hautetsien aniztasun bermatzeko irizpidearekin eztabaidatuko zen.

Armen gordelekuetan egongo ziren Bakegileen behatzaileek hamar pertsonatik hogeira bitarteko talde murrizak osatuko zituzten, hautetsiak eta gizarte zibileko pertsonalitateak batuz. Bakegileak prest zeuden haien errekrutatzeaz, taldeen osaketaz eta iragarpen publikoaz edo iragarpenik ezaz eztabaidatzeko. Boluntarioak lortzeko deialdia abian jarriko zuten astearen hondarrean. Baina horretan ez zen behatzaileek lortzeko deialdirik egingo, Baionako 8ko egunaren antolaketari lotuak ziren logistika eginkizunetarako boluntarioak lortzekoa baizik.

Eusko Jaurlaritzaren desadostasuna eta tentsio nabarmena

Jaurlaritzak bere desadostasuna adierazi zuen, eta une horretatik aurrera tentsio handia nabaritu zen. Bere ustez, hau guztia bere burua soilik ordezkatzeko talde batek inposatzeko zuten: «*Bakegileek ez dute deus aldatu nahi beren gidoi proposamenean, eta benetako fartsa bat muntatzen ari dira*». Errealitatetik kanpo omen zeuden eta ideologia aktibista batek gidatzen omen zituen, parte hartze [herritarraren]obsesio batek.

Jaurlaritzak bi gauza eskatzen zituen. Lehenik, Bakegileek behar bezala balioetsi behar zuten Jaurlaritzaren laguntza prozesu horretan, laguntza hori baitzen Bakegileen babes nagusia. PPK alde batera begiratzen zuten, besteek babesten zuten. Bigarren puntua: Bakegileek ez zuten armagabetze egunaren gidodia itxi behar, edo, hobeto esanda, sekuentzia hori osatu beharko zuketena bi egunena, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak eta Eusko Jaurlaritzak parte har zezaten.

Gaineratu zuten behatzaileak arma gordelekuetan egotea zentzugabea zela eta Frantziako Poliziak hiru egun beharko zituela bertara iristeko. Eusko Jaurlaritza elementu askoren arteko oreka puntua zen. «*Historia honetatik aterako balitz*», Nafarroako Gobernua, Espainiako eta Frantziako gobernua eta Euskal Elkargoko presidentea ere aterako zirela zioen.

Eusko Jaurlaritzak apirilaren 6ko epemuga aipatzen zuten. Egun horretan, armagabetze prozesuaren aldeko mozio bat bozkatuko zen Eusko Legebiltzarrean. Mozio horren bozketan zalantzan jar zitekeela edo haren edukia alda zitekeela zioen «*Jaurlaritzak hemen aipatzen du gizarte zibilaren lana sostengatzen duen pasarte*».

Bakegileak Jaurlaritzaren aurreikuspenak erlatibizatzen saiatu ziren

Bakegileek esplikatzeko zuten haien gidoiak kontuan hartzen zituela parte ezberdinek adierazten zituzten ikuspuntuak, eta erregularki moldatu zutela eztabaida, iradoki-

zun eta objekzio ezberdinen arabera. Baina gauza batzuk ezin ziren aldatu, Bakegileak mantentzen saiatzen ari ziren oreka politiko konplexua hausteko arriskua zegoelako, eta armagabetzearen bideragarritasuna bera, bere osotasunean, arriskuan egongo zitekeelako aldaketa batzuegatik. Hori zen, adibidez, egun bakarreko formatuaren kasua. Bakegileek ez zuten segundo bakar batez ere pentsatzen polizia frantsesak hiru egun, ezta egun bat ere, beharko zituenik arma-gordelekuetara iristeko, komunikabideek eta iritzi publikoak haien kokaguneak agintarien esku utzi zituztela jakingo zutenetik. Ordu kontua baino ez zela izango uste zuten.

Frantziako gobernuarekin zuten harremanaren ondorioz, ez zuten bat egiten Eusko Jaurlaritzaren beldur batzuekin. Adibidez, ez zitzairen iduritzen ezkutalekuetan behatzaileak egotea Frantziako gobernuarekiko haustura puntu bat izan zitekeenik. Prentsa filtrazioen beldur, Bakegileek ez zuten Eric Morvan prefetarekin zuten eztabaidaren xehetasunei buruzko azalpenik eman. Baina behin eta berriz esaten zuten elkar aditzerik estuena bilatuko zutela azken unera arte. Baldin eta Eusko Jaurlaritzak parte hartzeari uko egingo bazion Euskal Elkargoko lehendakari eta Baionako auzapezaren balizko erretiratzea aipatzen zuten gobernuaren hitzei buruz zalantzak agertu zituzten. Jean-Rene Etchegarayekin izan zituzten eztabaiden ondoren aurreikus zitekeena ez zen hori.

Testuinguruko elementuak

Martxoak 23 osteguna: Ipar Euskal Herriko berrogeita hamar bat pertsona ezagunek, horien artean LR, Modem, PS, PCF, EELV, EAJ, EHBai alderdietako, hautetsi, auzapez, parlamentari edo eledunak, prentsaurrekoa eman zuten Baionan. Hala adierazi zuten: *«Gaur erabakitzen dugu Bakegileak izatea Euskal Herrian, eta apirilaren 8ko armagabetze egunera deitzea. Egun horretan parte hartuko dugu, eta gonbidatzen ditugu herritarrak, bake justu eta iraunkorraz kezkatuak, gurekin bat egitera. Apirilaren 8an, larunbatarekin, milaka Bakegile izan gaitezen Euskal Herriarentzat indarkeriarik gabeko etorkizun demokratiko batean laguntzeko!».*

8. BILERA

2017ko martxoak 26, igandea, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko zortzigarren bilera

Bakegileen informazioak, zehaztasunak eta zuzenketak

Apirilaren 8ko bilakaerari eta prestakuntzari buruzko azken informazio eta zehaztasunak eman zituzten Bakegileek: Hego eta Ipar Euskal Herriko 120 pertsona ezagunen parte hartzea, sentsibilitate politiko, sindikal, elkarte eta kulturalen ahalik eta panel zabalena eta anitzena irudikatzeko. Agertokian izango ziren, eta bertatik egingo ziren arratsaldeko ekitaldiko hitz-hartzeak. Ez zen ezer komunikatuko arma gordelekuen inguruan egongo ziren behatzaileen errekrutatzeari buruz. Zurrumurru batzuek edo prentsari egindako filtrazioek ziotenaren kontra, ez zegoen desobedientzia zibileko ekimenik aurreikusita egun horretarako.

Eguneko gidaritza politikoaren kabinaren funtzionamenduari buruzko xehetasunak ere eman zituzten. Apirilaren 8an parte hartzeko deia egin zuten edo publikoki egun horren alde egin duten indar guztietako ordezkariak osatua izango zen.

Bakegileek azaldu zuten, zintzotasunez, konfiantzaz hitz egiteko asmoa zuten, gauzak nola egiten ziren zehaztu zitoten Jaurlaritzari, eta behin eta berriz esan zuten prentsari ez zitzaiola filtraziorik egingo adierazitakoari buruz. Beren lana batzuek ez zutela ulertzen nabaritzen dute. Eskertzen zuten Eusko Jaurlaritzako solaskideen jarrera, zintzoki mintzatu baitziren ordura arte. Antzeko sentipenak azaleratu ziren beste pertsona batzuekin izandako eztabaidetan edo beste batzuek egindako deklarazioetan. Horrela, beren lanaren errealitatearekin bat ez zetozen informazioak entzun zituzten Bakegileek: armagabetzearen kontua arinki hartzen omen zuten eta zirku bat, egiazko fartsa bat, antolatzen ariko omen ziren; ideologia parte hartzaile edo "mugimentista" bati jarraituz ari omen ziren, komunikazio obsesioa eta asaldura sozial batek bizi omen zituen; eta ezker abertzalea berak baino intrantsigenteagoak zirela zioen Jaurlaritzak; Gasteizko gobernuak pixkanaka deskubrituko omen zituen gauzak, ez omen zioten dena esaten; Bakegileak desobedientzia zibileko ekintzak prestatzen ari omen ziren apirilaren 8rako; eskema bat inposatu nahi omen zuten eta kudeaketarako zein iradokizun entzuteko ezgai omen ziren. Jaurlaritzak uste zuen Hego Euskal Herria armagabetzeko operazioetatik baztertu nahi zutela eta ez zutela nahi Hego Euskal Herriko jendarte zibilak horretan parte hartzerik.

Alta, urtebete zen Bakegileak lanean ari zirela gauzak orduan zeuden lekura eramateko. Lan konplikatu zen, oso delikatu, ETArekin, gizarte zibilarekin eta Ipar Euskal Herriko hautetsiekin harreman zuzenen edo zeharkakoen bidez gauzatzen zena, eta ordurako baita jendarte zibilarekin eta Hego Euskal Herriko hainbat indar politiko eta erakundeekin zein Nazioarteko Egiaztatze Batzordearekin eta Frantziako Gobernuarekin eta lehian ziren hautagaien presidentetza taldeekin ere. Harremanak landu zituzten armagabetzea eztabaidagai bihur ez zedin hauteskunde presidentetzarako hauteskunde kanpainan, eta Frantziako Errepublikako presidente izango zenaren taldearekin hitz egiteko orubea lantzen ari ziren.

Lan politiko bat zen, baina baita operatiboa ere, armagabetzearen prestaketan agertzen ziren arazo tekniko anitzekin, orduan Bakegileek azaldu ezin zituztenak. Baina prestaketa operatibo horrek ere denbora eta energia asko behar zituen, eta bereziki konplexua zen kudeatzeko.

Bakegileak boluntarioak ziren, herri diru-emaitzen bidez, horren guztiaren finantzatzea bermatu behar zuten, abokatu gastuak, logistika gastuak, Pariseraingo joan-etorriak, apirilaren 8ko antolaketa, eta abar... Arrisku politiko, juridiko eta pertsonalak hartzen zituzten. Lan hori beren ohiko inbertsio militanteen kaltetan egiten zen, beren bizitza pertsonalaren kaltetan.

Bakegileek hasieratik argi izan zuten: ETaren erabateko armagabetzearen alde lan egiten zuten, garaile-garaitu eskematik at, Euskal Herriko sentsibilitate politiko eta sozialekin prozesu honen inguruan ahalik eta gehien partekatzea bilatuz.

Bakegileek hiru gauza errepikatu, zehaztu eta azpimarratu nahi izan zituzten bereziki:

1) Hiru hilabetez, eginahalak egin zituzten Frantziako gobernuaren lankidetzaren eskema batean sar zedin lortzeko, ahalik eta armagabetze ordenatu eta seguruena helburu, konfidentzialtasun handienarekin gauzatzeko prest izanez. Horrek argi erakusten zuen Bakegileen lana ez zuela komunikazio obsesio batek edo protagonismo gose batek gidatzen. Frantziako gobernuak horrelako eskema bati uko egin izanak bultzatu zituen Bakegileak apirilaren 8ko gidoi berria hautatzera. Berriz ohartarazi nahi zioten Jaurlaritzari hedabideetako elkarrizketa edo programa eskaeren % 90 ukatzen zutela. Komunikazioa tresna gisa erabiltzen zuten, zorrotasunez, beti gogoetaren eta eztabaidaren ondoren, egin nahi zuten lanaren eta prozesuaren zerbitzura. Lehenik eta behin, iritzi publikoari aldi-aldi azaldu behar zitzaion ariketa hau guztia izpiritutan gauzatzen ari zen. Bakegileek ez zioten uko egin Frantziako agintariak lankidetzaren eskema batean sartzeko itxaropenari, edo gutxieneko hitzarmenari. Hain zuzen ere, helburu horrekin zuten apirilaren 8ko data publikoki iragarri. Ikuspegi horrekin lanean jarraituko zuten azken egunera arte lanean jarraituko zuten.

2) Bakegileek ez zuten inoiz eskema bat inposatzeko logikan lan egin, inolako kontzesiorik onartu gabe. Armagabetzerako proposatua izan zen gidotia euskal jendarteko eragile anitzek, tartean Eusko Jaurlaritzak berak, Bakegileei emandako elementu eta iritziak kontuan hartuz osatu zen. Haietako batzuk ez ziren ebidenteak eta tentsioa sortu zuten beste eragile batzuen artean eztabaidak egin ahala, beraz, Bakegileek elementu berriak sartu eta beste batzuk aldatu zituzten. Baina ez zuten dena onartu, ezta integratu ere. Hori diktatutzat har zitekeen, baina orduan dena honela izenda zitekeen, Eusko Jaurlaritzaren jarrera bera barne.

Bakegileek lerro orekatu bat atxiki nahi izan zuten parte ezberdinen arteko engaiamenduaren alde eginez. Armagabetze prozesu politiko eta teknikoaren errealitate eta bidegarritasun printzipioa ere kontuan hartu zuten.

Eusko Jaurlaritzarentzat garrantzitsuak izanik, Bakegileek apirilaren 8ko antolaketan integraturiko puntuak:

- Eusko Jaurlaritzarekin izandako lehen bileran, zer esan zien azken honek? *«Istoria honek urte bat edo bi iraungo du. Luhusoko eskema ETari interesatzen zaio: kontrola hain da handia, ezin dutela ezer egin atxiloketarik gabe. Beraz, armagabetze saio partzialak ugaritu egingo dira, aldiro atxiloketak eraginez. Horrek guztiak erakunde horrek hainbeste bilatzen duen protagonismoa eskainiko dio ETari, jadanik ez duen zentraltasuna, eta luzaro iraun dezake».* Orain, Jaurlaritzak argi ikusten zuen prozesu hori oso azkar gauzatuko zela, aldi bakar batean, Bakegileek ETak baino protagonismo handiagoa hartuz, batez ere, apirilaren 8ko egunaren iragarpen publikoaz geroztik.

- Eusko Jaurlaritzak zioen ETak eta ezker abertzaleak ez zutela inoiz nahiko Eusko Jaurlaritzaren protagonismoa eta presentzia prozesu horretan. Bada, Bakegileek pro-

posatutako eta ETak zein ezker abertzaleak onartutako gidoiaren sekuentzia nagusia armak kokatzeko puntuak nazioarteko ordezkaritza bati ematea zen, Euskal Herriko hiru erakundeen aurrean (Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Foru Gobernua eta Euskal Elkargoa), eta ondoren, hiru lehendakariak idatzi eta irakurritako adierazpen instituzional bat eskaintzea. Bakegileek apirilaren 8an adierazpen instituzionalari leku nagusi bat ematea proposatu zuten, bere antolaketa eta komunikazioari garrantzia emanaz.

- Eusko Jaurlaritzak zioen bere buruari eta EAJri bezperan abisatuko zietela, eta egun horretan bertan txalotzera etorriko zirela, horrela jokatu baitzuten beti ETak eta ezker abertzaleak. Bada, apirilaren 8ko prestaketa hasi zenetik, Bakegileek Eusko Jaurlaritzarekin bildu nahi izan zuten beren asmoak eta urratsak azaltzeko. Eusko Jaurlaritzari ahalik eta elementu gehienen berri ematen zioten, denbora errealean, eta guztiaz hitz egiten zuten harekin. Horri esker, Eusko Jaurlaritzak berehala azter zezakeen prestatzen ari zen guztia, eta Euskal Herriko beste eragile askok baino pisu handiagoa izan zuen, neurri batean.
- Bakegileek lehen bileratik adierazi zuten, beren asmoa zela Jaurlaritzak armagabetzearen azken operazioetan egotea, eta horretan ez zutela etsiko. Honek, orduan, bere kezka adierazi zuen, mota orotako dozenaka mugimendu sozial eta kolektiboren erdian leku bat proposatuko ote zioten, jakinez, bere estatus instituzionalari begira, ezingo zukeela onartu. Oztopo hori saihesteko, beraz, Bakegileek ondo zaindu zuten apirilaren 8ko eguna bi denboratan eraikitzea, goizean «sekuentzia instituzional» batekin, eta arratsaldean «*sekuentzia herrikoi*» batekin.

Eusko Jaurlaritzarekin eta Euskal Herriko beste eragile instituzional edo politiko batzuekin izandako bileren harira, Bakegileek armagabetzearen eskemaren zenbait alderdi zehaztu eta ondorengo elementu berriak txertatu zituzten.

- Bakegileek Luhuson egin nahi izan zutenaren kontra — armak zulatu edo moztu — oraingoan ez zituzten ukituko. Are gehiago, erabaki zuten jendaurrean ez erakustea, ez zedila egon ez argazkirik, ez bideo irudirik, arma eta lehergailu horien inguruan, biktimen sentsibilitatearekin talka ez egiteko.
- Egunaren sekuentzia herrikoiari zegokionez, azkenean alde batera utzi zuten manifestazio edo giza kate baten hasierako formula, eta nahiago izan zuten hasiera-hasieratik soiltzat, duintzat eta solemnitaterat hartuko zen elkarretaratze estatiko bat, jai-ekitaldiaren itxura eman ziezaiokeen, inolako elementurik gabe. Hau da, bazkari, ogitarteko, taberna, kantu, artista edo abarrik gabe.
- Boluntario behatzaileen errekrutatzea publiko ez egitea erabaki zuten, eta hasieran aurreikusitako kopurua murriztu.
- Bakegileek onartu zuten Eusko Jaurlaritzak hainbat informazio ematea lehen mailako eragile instituzional edo politikoei. Hori guztia martxoaren 17an komunikazio publikoa egin aitzin.
- Praktikan, Bakegileek komunikabideek eskatutako komunikazioen % 90 ukatu zuten, eta martxoaren 17an ahalik eta elementu gutxien eman zizkioten apirilaren 8ko egunaren edukiari buruz Le Monde egunkariari, eztabaidari eta eskema aldatzeari atea zabalik uzteko asmoz.

Hala, Bakegileek Eusko Jaurlaritzarekin izan zituzten bilerak eta eztabaidak berrikusten zizuten, batzuetan ematen zuen, zenbait puntutan lasaitu edo asebate ahala, mugak edo marra gorriak gehitzen zirela. Erabateko armagabetzearen arrakasta erabat ezinezko bihurtuko zuketena baldintzetaraino, adibidez, ez komunikatzea, ez mobilizatzea, gauzak bi egun desberdinetan antolatzea, eta abar.

3) Zein ezezko eman zioten Bakegileek Eusko Jaurlaritzari?

Gai hauei buruz aritu ziren:

- Armagabetze eguna zortzi egunez aurreratzea, presio mediatiko eta politikoaren denbora mugatzeko: ez zen posible, denbora gutxiegi uzten zuelako operazioen pres-taketa teknikorako.
- Behatzaileen presentzia ezeztatzea: Bakegileek iritzi zioten presentzia horrek ez zue-la, Eusko Jaurlaritzak aurkako pentsatu arren, istilurik sortuko Frantziako poliziarekin. Presentzia horeren xedea zen Bakegileek kontrolatu ahal izatea frantses poliziak hartzen duela armategiaren jabetza, manipulazio arrisku oro edo ustekabeko istri-pu bat baztertzeko. Bakegileen behatzaile horien presentziak ere garrantzi sinboli-koa zuen eraikitzen saiatzen ari ziren kontakizunean, armagabetze horren inguruko garaile eta garaituen eskema bat saihesten baitzuen. Armagabetzearen lekuko ziren, «baliozkotu» egiten zuten.
- Arma biltegien kokaguneak emateko eguna ez zen beste egun batean antolatzea elkarretaratzea. Bakegileentzat ez zen ez desiragarria ez teknikoki egingarria:

Izan ere, horrelako kasu batean, kokapen-puntuak entregatzeko sekuentziak bakarrik piz-tuko zuen nazioko eta nazioarteko arreta mediatiko eta politikoa. Egun bat beranduago antolatuko zen elkarretaratze herrikoiak ez zuen inola ere eragin bera izango. Bi sekuen-tziak bereizteak gertakariari beste zentzu orokor bat emanen ziokeen, eta garaile eta ga-raituen eskemaren araberrako kontakizuna sustatu. Bakegileek argi izan zuten hori Eusko Jaurlaritzarekin elkarriketak hasi zituztenetik, baita aurretik ere, euren artean eta ETaren zuzendaritzarekin trukaturako mezuak argitaratu zirenetik. Bakegileek hartu zuten arma-gabetzearen erantzukizun politiko eta operatiboa, horrelako kontakizunak eraikitzen ez laguntzeko konpromisoa hartuz. Beraz, beren engaiamenduak betetzen zituzten eta, ho-rrela, armagabetzea osoki eta gerorako berme batzuekin gauzatzea ahalbidetzen zuten, apirilaren 8az haraindi.

Beste modu batean, armagabetzea ez zatekeen bideragarria teknikoki. Orduan, Bakegileek ez zuten ezintasun tekniko hori azaltzen, konfidentzialtasun arrazoiengatik. Baina lokaliza-zio puntuen entrega koordinatu behar zuten, armategi osoa zentralizatu behar zuten leku zenbaitetan; eta Ipar Euskal Herriko ehunka lagun mugimendua une berean. Elkarreta-ratze herrikoia eta hitzaldien antolaketak goizeko azken orduetan, ehunka boluntario eta jarraitzaileen aldi bereko irteera ekarriko zuen etxetik, 172 behatzaile boluntario gor-delekuetara joanen ziren une berean. Frantziako eta Espainiako estatuek operazio guztiak edo batzuk erreprimitea edo eragoztea erabakiz gero, askoz ere zailagoa izango zatekeen haien zerbitzuentzat operaziorik delikatuenak egin behar zituzten pertsona bakanak iden-tifikatzea – bereziki, material jakin batzuen desplazamenduaren ardura zutenak–, beste ehunka pertsona horien erdian autoa ia une berean hartu eta hainbat norabidetara joango baitziren.

Eusko Jaurlaritzak bereari eusten zion

Jaurlaritzak azaltzen zuen berak ere ezin zuela dena kontatu bere jardueraren alderdi konfidentzial batzuk zaintzeko. Frantziarekin kontaktu serioa zuen. Honek adierazten zion, Frantziako agintariak aldamenera begiratuko zutela, beste era batera esanda, egiten utzi-ko zutela; lokalizazio-puntuak entregatzeko modua adieraziko zutela; eta jarduteko modu horrek suposatzen zuela egun batzuk lehenago entregatzea.

Eusko Jaurlaritzaren ustez, *«gutziz lekuz kanpoko da pentsatzea Frantziako Gobernuak*

onartuko duela armagabetzean nola edo hala elkarlanean aritzea». Frantziako gobernuaren jarrera ikusita, haren homologo espainiarrak ez zuen oztoporik jarriko.

Jaurlaritzako bakegintza eta bizikidetzako idazkari nagusiaren iritziz, Bakegileek aurreikusi zituzten kontuan artean, arriskutsuena behatzaileak arma-gordelekuetan egotea zen. Presentzia horrek polizia operazioak ekar zitzakeen pertsona horiek sakabanatzeko, eta hortik atxilotetak, liskarrak, hori guztia oso gaizki amai zitekeen.

Nazioarteko Egiatzatze Batzordea Euskal Herrira etorriko zen egun batzuk geroago. Posible ote zen Eusko Jaurlaritzaren, Bakegileen eta NEBren artean adostea nola prestatu azken astea?

Bakegileen diskurtsoaren alderdi batek arazoak zekarzkion Eusko Jaurlaritzari: «*Armagabetzea ez da amaiera, hasiera baizik. Gatazkaren beste ondorioei ere heltzea komeni da: preso politikoak, biktimak, adiskidetzea, memoria eta abar*». Aspaldian kontu horietan inolako lanik egin ez zela ematen zuen aditzera. Apirilaren 8an egitekoak ziren mahainguruek, presoek, biktimen eta adiskidetzearen gaiak nahasiz, ez zitzaizkion pertinateak iruditzen Jaurlaritzari. Hainbat hamarkadako bortizkeriaren ondorioz, Hegoaldean zegoen zaurien sakontasunaren pertzepzioa Iparraldekoan zegoenarekiko oso ezberdina zela ikusten zuen eta . rai horrek suposatzen zuenarekiko urruntasuna eta ezjakintasuna handiak zirela.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak beste bide bat proposatu zuen kokalekuak emateko, baina agian formula hori ez zitekeen egingarria apirilaren 8an, larunbatarekin. Bakegileek erantzuten zuten jokoan zegoenaren garrantzia ikusita, harrizko zituela «*administrazio hau edo hura aste barruan bakarrik dago irekita*» bezalako arazoekin topo egiteak.

Orduan, Eusko Jaurlaritzak ohartarazi zien eskema horren obratzearen ondorioz, Baionatik kanpo izanen zela apirilaren 8an. Azken batean, Bakegileek «*eztabaidatu ezin zen eskema bat*» proposatzen zutela uste zuen. Bere ustez, Bakegileek presentzia dekoratiboa besterik ez zuten nahi, hori ala ezer ez. Jendarteak ez zuen onartzen ETA armak entregatzen zituen erakunde eskuzabal baten gisa erakutsiko zuen eszenaraterik? Eta Eusko Jaurlaritzak horrela hautematen bazuen, Nafarroako Foru Gobernuak are halako eskema bat onartzetik are urrunago egongo zen.

Bakegileek azalpenak ematen zituzten berriz ere

Hainbat elementu berretsi zituzten, lehenik eta behin, armagabetzea ez zela ez bakea, ez helburua bera, hasiera baizik. Bakegileek gogorarazi zuten beti azpimarratu eta aitortu izan zutela aurretik egindako lan guztia, bereziki biktimen alde egindakoa. Hegoaldeko errealitatea ezagutzen zutela zehaztu zuten, nahiz-eta Hego Euskal Herriko instituzio eta eragile politiko edo sozialek bezain ongi ez ezagutu. Bakegileek pentsatzen zuten kontziente zirela eremu bakoitzean sortutako sufrimenduaz. Bakegileetako batzuek gatazkaren ondorioak jasan zituzten beren bizitzetan, hurbilekoen etan eta konpromiso militanteetan.

Herri mobilizazioaren sekuentzia egun berean antolatzea eta kokatze puntuak ematea behar-beharrezkoa zen, armategi osoa desegin nahi bazen ezinbesteko egin behar operatibo batzuk egiteko baizik ez bazen ere. Kontua zen, gainera, Bakegileak moralki, politikoki eta juridikoki estaltzea, atxilotu, auzipetu edo gogor zigortu ez zituzten. Apirilaren 8ko ekitaldia bat etorriko zen Bakegileek beren sorreratik publikoki plazaratu zuten mezuarekin: biktimen duintasuna eta haiekiko begirunea.

Eusko Jaurlaritzaren presentziarako baldintzak

Jaurlaritzak galdetu zuen akordio bat lor zitekeen arma ezkutalekuetan behatzailerik ez egoteari buruz. Bakegileek berriro azaldu zuten zertan iruditzen zaien begiraleak ezkutaleku horietan egotea gauzak ongi egiteko modurik egokiena zela.

Eusko Jaurlaritzak zioen garrantzitsuena ez zela apirilaren 8an bere presentzia edo adierazpen instituzionala, baizik eta gobernu gisa zuen zeregina. Uste zuen Bakegileek ez zutela sinesten, nonbait, Frantziako gobernuaren jarrerari eta Parisko eskariei buruz esaten ziena. Bakegileek Eusko Jaurlaritzaren presentzia nahi bazuten, behatzaileen presentziari alternatiba bat bilatu behar zioten eta bi sekuentziak bereizi, bi egunetan.

2017ko martxo bukaerako testuinguruaren elementuak eta lehen eztabaida baliagarriak gobernu frantsesarekin.

Martxoak 28 asteartea : Honako adierazpen instituzionala onartzen zuten Nafarroako parlamentuak. Geroa Bai, EH Bildu, Podemos, PSN et I-Ek aldeko botoa eman zuten, PP eta UPNk berriz, kontrakoa.

« 1.- Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da ETAk ahalik eta denbora laburrenean aldebakarreko armagabetze-egintza bakarra egitea, osoa, behin betikoa eta egiaztatua, herritarrek aspalditik eskatzen duten bezala.

2.- Nafarroako Parlamentuak babesten du nazioarteko egiaztatze batzordea bere funtsezko egiteari jarrai diezaion helburu hori lortzeko.

3.- Nafarroako Parlamentuak positiboki baloratzen du jendarte zibileko pertsona eta entitateek helburu hori lortzeko egiten duten ekarpena eta inplikazioa.

4.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua gonbidatzen du ETaren azken armagabetzea erraztera bideratutako kudeaketak garatzera, legezkotasun eta segurtasun bermekin.

5.- Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari eta Frantziako Gobernuari dei egiten die armagabetze hori burutzen laguntzeko .»

Martxoaren 28a, asteartea eta Martxoaren 29a, asteazkena : Bakegileen eta nazioarteko egiaztatze batzordearen arteko bilerako

Martxoak 29, asteazkena, arratsean: Apirilaren 8an egitekoak ziren operazioen antolaketa eskema itxi zuten Bakegileek. Eric Morvan prefetarekin harremanetan jarri ziren alderdi operatibo batzuk aipatzeko, Frantziako agintariekin hitzartzeko eskema posible baten kasuan. Prefetak baieztatu erantzuna eman zion topaketa baten printzipioari, eta lehenbailehen finkatu nahi zuen: agendak ez zetozen bat ostegunarekin, eta hitzordua finkatu zen martxoaren 31rako, ostiralarekin, 15:45ean, Baionako suprefetaren funtzio-egoitzan.

9. BILERA

2017ko martxoak 30, osteguna, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko bederatzigarren bilera

Bakegileek azken informazioen laburpen bat aurkeztu zioten Jaurlaritzari

Apirilaren 8ko garapen eskema itxi zutela azaldu zuten Bakegileek. Goiz hartan bertan, bilera zabal bat antolatu zen, Bakegileetan diren sentsibiltate guzietan, behin betiko baliokotzeko. Bakegileak prentsa ohar bat idaztera zihoazen, horren alderdi nagusiak ezaugarazteko. Hona hemen komunikatuaren eduki orokorra:

«- Gure ekimena hasieratik ezaugarritu duten printzipioen arabera ari gara Apirilaren 8a lantzen.. ETAren erabateko armagabetzeak Euskal Herriko gatazkaren ondorioen alderdi guztien (presoak, erbesteratuak, biktimak, bizikidetzak...) konponbidean aurrera egitea ahalbidetu behar du; gatazkaren parte diren alderdi ezberdinen eta sentsibiltate politiko ezberdinen errespetuzko moldeetan gauzatu behar da.

- Apirilaren 8ak hainbat atal izango ditu, besteak beste: ETAren armagabetze operazio seguruak, erabatekoa, egiaztatzea eta egiaztatua izan dadin bermatuz; armagabetze operazio horiek ez dira Baionan iragango; armagabetze operazio horietatik arras bereizia den eremu batean, Bakegileek dei egiten diete Euskal Herri osoko biztanleei Baionan, apirilaren 8an, familia giroan, Bakegileek armagabetzea eta ekintza sostengatzeko; horrela, elkarretaratze handi bat iragango da 15:00etan Baionako erdigunean, jendetsua, plurala, gatazkarekin zerikusia duten eremu bakoitzean sortzen diren sufrimenduen duintasun eta errespetuan oinarritua; goizeko 10:30etatik aitzina, Baionan mintzaldiak izanen dira, gatazkak konpontzeko prozesuetan adituak diren pertsona espezialistek sustatuak.»

Bakegileek geroago komunikatuko zuten Baionako Herriko Etxean iragango zen sekuentzia instituzionalari buruz, haren edukia azken unera arte egokitu ahal izateko eta presio mediatikotik ahal bezainbat babesteko.

Bakegileek apirilaren 8ko deialdia sustatzeko kanpaina bat abiatuko zuten, karteekin, material anitzekin, eta laguntza aktiboa eskatuko zuten Ipar eta Hego Euskal Herrian, baita Frantzia ere.

Hitzordu bat lortu zuten, ondorengo egunetan izango zena, Frantziako Gobernuko ordezkari batekin, armagabetzearen alderdi operatiboak jorratzeko. Bakegileek apirilaren 8rako aurreikusitako garapena azaldu nahi zioten, baita behatzaileen arazoa ere, eta, horrela, Frantziako agintariekin ahalik eta hobekien adosten saiatuko ziren egun horren garapen egokia.

Bakegileek berriz aipatu zuten apirilaren 8ko garapena eta haren komunikazioa ahalik eta hobekien kudeatzeko pentsatua den gidaritza politiko anitzaren kabina. Apirilaren 8an, sentsibiltate politiko eta sozial ezberdinen arteko engaiamenduaren emaitza izango zen adierazpena, pluraltasun horren erakusle diren lau pertsonak irakurriko zuten lau hizkuntzatan (euskara, frantsesa, gaztelania, ingelesa).

«Amildegirantz zoazte!»

Eusko Jaurlaritzak bere desadostasuna berretsi zuen: armagabetze prozesu hori babesten zuela frogatu zuela iruditzen zaion, baina Bakegileak ezker abertzalearekin eta ETArekin gidioa negoziatzeagatik erabat baldintzatuta zeudelakoan zegoen.

«Apirilaren 8a publikoki eta alde zurretik iragartzearekin ados ez egon arren, Lehendakaria inplikatu egin da iragarpen serio eta sinesgarria dela esanez. Gobernuak horretaz hitz egin du Rajoy presidentearekin, PSErekin, Nafarroako Gobernuarekin, Nafarroako Parlamentuarekin... Argi dago gobernuak prozesu hori babestu nahi zuela.»

Tentsio gorakada batean, Eusko Jaurlaritzak Bakegileak erabateko porrotera zihoazela bota zuen hau guztia oso gaizki bukatzeko arriskua zegoela, eta bere ordezkariak bere irmoki adierazi zuen, eskua mahai ertzera eramanez eta gero hura airean erortzen utziz: «Operazioaren amildegi eta porrotera zoazte!».

Hala jarraitu zuen: *“Hasieratik esan genizuen. PPK egingo duena*, egingo duzenaren eta zure komunikazio-estrategiaren ondorioetako bat da. Hegoaldean kudeatu behar da Bakearen Artisauak eragiten ari diren tentsio hori guztia. Eusko Jaurlaritza ez da apirilaren 8an izango, eta, beraz, armagabetzean parte hartzeko eskema propioa zehaztu beharko du.»*

Aldez aurretik aurreikusitako ondorioak ?

Bakegileak oso kontziente ziren Hego Euskal Herrian zeuden tentsioez, bi zentzuetan. Gasteizen PPK antolatutako kontra-ekitaldia, eta martxoaren 11n Iruñean euskal militante gazteen eta Espainiako Polizia Nazionalaren artean ezker abertzalearen disidentziatzat jotako kolektibo batek antolatutako manifestazio baten amaieran izandako liskar bortitzak aztertu zituzten.

Baina Bakegileek begitantzen zitzairen Jaurlaritzak ez zuela ezer positiborik ikusten azken hiru hilabeteetan egindako lanean, ezta jokoan zegoenaren muinean ere: ETaren erabateko armagabetzea, egun gutxi barru.

Eusko Jaurlaritzak egun horretan parte hartu ahal izateko Bakegileek egindako konpromiso eta egokitzapenen zerrendatu errepikatu zuten berriz ere azken hauek. Zentzuzko konfiantza zuten armagabetze prozesua bururaino eramateko gaitasunean, alde zurretik ezer ziurra ez bazen ere.

Eusko Jaurlaritzari iruditzen bazitzaion Bakegileek ez zutela entzun, haiek ere sentitzen dute Jaurlaritzak ez zituela entzuten.

Jaurlaritzaren aburuz, Bakegileek ez zioten esaten zienari jaramonik egin. Zintzoak izan zitezkeen esaten zutenean denen parte hartzea ahalbidetuko duen gidoi bat marrazten saiatzen zirela, baina praktika ezker abertzaleak bakarrik onartuko zuen.

Bakegileek galdetzen zuten hau ez ote den alde zurretik aurreikusitako ondorioa: Jaurlaritzak ez zuen apirilaren 8an parte hartuko, beraz, irudi globalak ezker abertzalearen kolore bat edukiko zuen, parte hartuko izan balu baino gehiago.

* Apirilaren 7an Gasteizen «El valor de la libertad» izeneko ekitaldia antolatu zuen apirilaren 8ansalatzeko, eta azkenean 300 pertsona baino gehiago bildu zituen, El Correo-ren arabera

Eusko Jaurlaritzaren eta Bakegileen arteko azken solasak

Eusko Jaurlaritzak azpimarratzen zuen ezinezkoa zitzaiola «ETAren irudia garbituko zukeen» operazio batean parte hartzea. Bakegileak erabilitako hiztegiak berak ere ez zuen kontuan hartzen azken urteotan, bereziki Elkarrik egindako lana, ahalik eta neutralena izan nahi zuen hiztegi bat sortu baitzuen. Adibidez, Bakegileek «gatazka» hitza erabiltzen zuten, oso problematikoa zena; Hego Euskal Herrian, aldiz, jendea neutrala izaten saiatzen zen, eta «gatazka egoera» terminoa erabiltzen zuten. Bakegileen jokabideak aditzera ematen zuen haiek baino lehenago ez zela ezer izan.

Eztabaida horiek guztiak Ipar Euskal Herrian ere izan ziren Bakegileek erantzun zutenez. Mixel Berhocoirigoinen engaiamenduak oroitarazi zituzten, eta borroka armatuaren estrategia kritikatzeko haren lehen testu publikoa aipatuz, 1983an ELB sindikatuak idatzia, Mixel haren eledunetako bat zelarik. Baita Txetx Etcheverryren engaiamenduak ere, Abertzaleen Batasunaren baitan Batasunarekin izandako 2001eko zatiketean, ETAk borroka armatuari berriz ekin zion garaian, Lizarra-Garaziko su-etenaren hausturaren ondoren, eta demoen baitan, ETAren inguruarekin bizipen korapilatsu eta tirabiratsuak izan dituen mugimendu ez-bortitzeko kide gisa. «*Eusko Jaurlaritza ez da jendarte zibilaz fidatzen?*», galdetzen zuten Bakegileek. Haien ustez, uzi horretan bakoitzak bazuen bete zezakeen rol bat, eta bete ez zezakeen beste bat ere bai. Hobe zen, beraz, beste eragileen esku uztea ardua norberari ez zegokiona. Bakegileek rol eta presentzien banaketa bat proposatu zuten, bakoitzak hobekien egin zezakeenari zegokiona.

Jaurlaritzak erantzun zuen ezker abertzalearekiko erabateko mesfidantza zuela, iragane-ko gertakari eta desilusio anitzek eragindakoa. Ordura arte, Bakegileengan konfiantza izan zuen eta hala erakutsi zuen bere ekintzetan Ez zien eskatu «*erabateko armagabetzeari*» zegokion inbentarioa. Inbentario kalkulua ezberdinak baziren, frantses, espainiar edo euskal poliziaren iturriei lotuak. Eta prozesua babesten jarraitu zuen, baita Le Monden egindako iragarpenaren ondoren ere. «*Adibidez, apirilaren 8an itzultzen dena ez badator bat inbentario horiekin, nola kudeatzen da hori politikoki? Zer gertatzen da apirilaren 8a baino lehen atxilotzen bazaituztete? Denak atxilotzen bazaituztete, dena amaitzen da! Eta zer gertatzen da agintariek arma gordeleku gehienak apirilaren 8a baino lehen eroriazten badituzte? Bakegileen eginkizuna instrumentala da. ETAk erabaki zuelako egiten da Apirilaren 8an. Eusko Jaurlaritzaren parte-hartzea Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak ETArri jarri dion baldintza da. Parte hartzen ez badugu, NEB ere kanpoan izango da. Eusko Legebiltzarrean sustatutako armagabetzearen aldeko mozioak Bakegileen lana babesteko puntu bat jasotzen du, kontuan hartu datu horren balioa. Goazen gertakarietara. Ez dugu arrazoirik ikusten behatzaileen presentziarako, eskandalua litzateke poliziaria espainiarra etortzea arma gordelekuetako materialaren bila. Askorentzat, apirilaren 8an «ETAren irudia garbitzea» izango da. Lokalizazio puntuak emateko ekitaldia aurreratu behar da, horra instituzioen laguntza ahalbidetzeko baldintza».*

Bakegileek ohartarazi zioten Jaurlaritzari horretaz guztiaz mintzatuko zirela Frantziako agintariek. Baina ez zitzaien iruditu, arma-gordelekuetan begiraleak izateko asmoa aipatu zutenean, Jaurlaritzak esperotako casus bellia eragingo zuenik. Errepikatu zuten ez zirela gai, ez politikoki ez teknikoki, armagabetzearen sekuentziak bereizteko bi egun ezberdinetan. Bakegileak apirilaren 8a antolatzen ari ziren, armagabetzea baldintza onenatan ahalbidetzeko. Kontua ez zen ETAren irudia garbitzea, ezta errenditze kontakizun bat eraikitzea ere, baizik eta, ahalik eta modurik osasuntsuenean, bake prozesu iraunkor baten oinarrietako bat ezartzea, gerora eraikitzen jarraitu beharko zena.

* Qui organise le 7 avril à Gazteiz un meeting intitulé « El valor de la libertad » voulant dénoncer le 8 avril, meeting qui réunira seulement un peu plus de 300 personnes d'après El Correo)

Eusko Jaurlaritzak egoera aztertuko zuela adierazi zuen. Egun hartan Nafarroako Gobernuarekin bilduko zen. Kokalekuen banaketa eguna eta apirilaren 8a bereizteko aukera negoziagarria balitz, gauzak beste era batera kontsidera zitezkeen, baita behatzaileen gaiari zegokionez ere.

Berriz ere, Bakegileek berretsi zuten ez zutela kokaguneak emateko eguna eta apirilaren 8a bereiziko, hori ez baitzen posible teknikoki, ezta politikoki desiragarria ere.

Harremanen haustura ulertzera ematen zuen tonu adeitsu baina solemne batean, Eusko Jaurlaritzak eskerrak ematen zizkien Bakegileei berarekin izandako harremanagatik eta konpromisoagatik. Damugarria zitzaion akordio batera iritsi ez izana. Armagabetzean izango zuen presentzia bere aldetik zehaztuko zuela iragarri zuen.

Martxoaren 31, ostirala 09:15ean. Bakegileen eta Nafarroako gobernuko ordezkari baten arteko bilkura.

Martxoak 31 ostirala, 15:45ean: Bakegile baten eta Eric Morvan prefetaren arteko bilkura, Baionako suprefetaren presentziarekin, azken honen egoitza ofizialean.

Apirilaren 8aren egunaren garapena

Bakegileek apirilaren 8ko egunaren garapenaren alderdi batzuen berri ematen zieten Frantses Estatuko ordezkariari:

- Bakegileen eskutik, arma biltegien kokaguneen entrega nazioarteko ordezkari bati, ahalik eta jende gehienaren artean kontsentsuzkoak diren pertsonen eta Nazioarteko Egiatutze Batzordeko kideez osatua, Baionako herriko etxeko areto batean. Gero, nazioarteko ordezkari horretako kide batek prefetari emateko, Pauen, Baionan edo herriko etxeko beste gela batean ere.
- Gatazkaren konponbideari buruzko hiru hitzaldiren antolaketa.
- Eguneko gidaritza batzorde baten plantan ezartzea, politikoki anitza.
- Begirale boluntarioei buruzko xehetasunak: talde mugatuak izanen dira (10 eta 20 pertsona artean arma gordeleku bakoitzeko), Bakegileetako kideak, sentsibilitate anitzetako pertsonalitate politiko eta sindikalak zein elkarte mundukoa, erraz identifikatzeko. Arma gordelekuaren kokaguneetan egongo dira, frantses polizia heldu arte, eta Bakegileek espero zuten lehenbailehen iritsiko zirela. Ez zituzten edukiontziak edo armak ukituko.
- 15:00etako elkarretaratze publikoa goiz bukatuko zen, Bakegileek ezarria zuten segurtasun zerbitzu garrantzitsu baten barnean izanen da. Eskatzen dute ez dadila egon polizia-indar ikusgarririk elkarretaratzearen leku horretan edo inguruan.

Horren ondoren, gai honekiko duten aldarateaz galdetu zieten Bakegileek Frantziako agintariari.

Aurre-bilera

Estatuko ordezkariak borondate argia erakutsi zuten gauzak ahalik eta hobekien gerta zitezkeen. Orduko hartan, ez zuten bilera hartan aztertu ahal izango dena balioztatzeko

mandaturik. Lehenik, goi-mailan aipatu beharko zuten, eta argi berdea ematen bazen, bigarren bilkura bat iragango zen astelehenetik goiti, oraingo honetan Bordelen, Estatu-ko beste ordezkari baten aurrean. Egun hartako aurkezpenari esker, hori guztia aztertu ahal izango zen, baita Pariseko mailan eztabaidatu ere, astelehenetik aurrera erantzun irmoak ukaiteko.

Estatuaren ordezkari batek gaineratu zuen gauza batzuk ez zeudela gobernuaren esku, agintaritzaren esku baizik, zeinarekin harremanetan jarriko baitziren zer gerta zitekeen aztertzeko. Gero, apirilaren 8rako Bakegileek pentsaturiko eskemara itzuli ziren.

BAZIRUDIEN EZ ZELA EGOKIA:

- Armak aurkitzeko puntuen zerrenda prefetari ematea, gobernuaren nahia baita puntu horiek zuzenean agintari judizialei ematea.

- Armak gordetzen zituzten pertsonen immunitatearen arazoa: lehen ministroak ezin zuen inola ere bermatu. Erabat ezinezkoa zitzaion aginte judiziala hartzea, baina, harreman informalean giroa eta Luhusoko esperientzia ikusita, pentsa zitekeen operazioen eragina ez zela atxiloaldietatik haratago joango. Arma horiek bizitokietatik atera eta, ondoren, kokagune jakin batzuetara eraman arren, garraioaren auzia delikatu izaten segitzen zuen, eta Bakegileek delitu-eszena aldatzea gehitzuko baitzioten egindako delituen zerrendari.

Bakegileak erantzun zuen ondorio judizialak beren gain hartzen zituztela, Luhuson bezala, eta ondorio politikoez askoz kezkatuago zeudela.

Estatuaren ordezkariak jarraitu zuen. Armen zerrenda eta kokagunean Pariseko Fiskaltzari eman beharko zitzaizkion zuzenean, Bakegileek edo nazioarteko ordezkariak. Estatuaren ordezkariak adierazi zuen goialdean eztabaidatuko zutela, baina bitartekariari emateko akordioa bazegoen ere, behar-beharrezkoa izango zen in fine kokagune horiek Pariseko Fiskaltzara igortzea.

Zehaztapen eskaera

Frantses Estatuko ordezkariak galdetzen zuen ea arma gordelekuak Pirinio Atlantikoetan ote zeuden. Elkarriketen une horretan, Bakegileak ezin zuen horrelako informaziorik eman. Estatuaren ordezkariak azaldu zuenez, Bakegileek nahi bazuten polizia azkar joan zedin bertara, bere taldeak ongi prestatu beharko zituen eta, horretarako, alde aurretik jakin beharko zuen, zenbat ezkutaleku zeuden den eta «Alsazian edo beste nonbait» ote zeuden.

Frantses Estatuko ordezkariak esan zuen uste izan zuela* «*Eusko Jaurlaritzaren ez dagoela benetan ados Apirilaren 8rako planteatutako formatuarekin*».

Larunbat arratsaldeko ekitaldiari eman asmo zioten zentzua azaldu zuen orduan Bakegileak. Elkarretaratzearekin eta agertokian sentsibilitate guztietako 120 pertsona ezagunen presentziarekin, helburu zen, babes politiko eta morala irudikatzea, armagabetze prozesuarekiko atxikimendu herrikoia adieraztea, Bakegileak balizko errepresio baten aurrean «*politikoki babestea*» eta Euskal Herrian armak behin betiko itzultzeko sekuentzia erabakigarri hori antolatzea, borroka armatuaren orrialdea behin betiko pasatzeko determinazioa duen ororoentzako modu onargarri batean. Ez zen errendizioa izango, ezta gerra-erakustaldia ere, bake-ekintza partekatua baizik, gehiengoak onartua. Bakegileak

* Iturri propioei esker, Bakegileek ez baitzioten Eusko Jaurlaritzarekin izandako bilerekin buruz hitz egin.

azpimarratu zie, azkenik, Oier Gomez euskal presoaren egoeraz gero eta kezka handiagoa zegoela. Azken honek Frantses Estatuan preso segitzen zuen, minbizia larria izan arren.

Puntu problematikoaren laburpena

Estatuaren ordezkariak entzuten zuen Bakegileek ziotena, eta «ulertzen zuen haien determinazioa eta oinarri politikoa», baina «*puntu hauskorrek*» laburbildu nahi zituen.

Arma edo material jakin batzuen garraioari zegokionez, Barne ministroaren komunikatua ekarri zuen gogora, zeinak armak manipulatzearren arriskuez ohartarazten zuen. Lokalizazio-puntuak agintaritzaren judizialari zuzenean ematen ez bazitzaizkion, beste arazo bat sortuko zen.

Frantses Estatuaren ordezkariak berriz ere azpimarratu zuen Parisko Fiskaltzari helarazi behar zitzaizkiola kokagune horiek, Bakegileen mugak ulertzen zituen, baina agintariek ere bazituzten haienak. Arazo bat izan zitekeen exekutiboak auzi judizial batean esku hartzea. Baina apirilaren 8rako irtenbide bat bilatzen saia zitezkeen.

Apirilaren 3a, astelehena, 11etan. Bakegile baten eta Frantses Estatuaren bi ordezkariaren (Eric Morvan prefeta eta eskualdeko prefeta) arteko bilkura eskualdeko prefekturan.

Frantses Estatuaren bi ordezkariak martxoaren 31ko solasak laburbildu zituzten: arma gordelekuak kokaguneak ematea; behatzaileak egotea, hautetsiak eta gizarte zibila nahastuz, gordeleku horietan; arma batzuen lekualdatzea, horiek gorderik zituzten pertsonak arriskupean egon ez zitezen. Arazoak bi motatakoak zirela esan zuten: segurtasunekoak eta judizialak. «*Esan diguzu dimentsio juridikoa onartzen duzula*», gogoratu zuen Morvan prefetak.

Bakegileak agintariek ahalik eta gauza gehien egiteko prest zeuden, baldin-eta apirilaren 8rako atxilotariek ez bazegoen. Era berean, armamentua aurkitzeko puntuak agintaritzaren judizialaren esku uzteko aukera aztertu ahal izango zuten.

Nazioarteko Egiatze Batzordearen eginkizun eta zeregin zehatzei buruzko eztabaida egin zen, bereziki inbentarioaren kontrolari eta itzulitako arma eta lehergailuekin zuten korrespondentziari buruzkoa.

Lehen eztabaida bat kokapen puntuen banaketa sekuentziari buruzkoa izan zen. Frantses Estatuaren ordezkariak nazioarteko ordezkariaren osaketa eskatzen zuten. Bakegileak erantzun zuen, zehaztasun gehiagorik eman gabe, kontsentsua sortzen zuten pertsona ospetsuak izango zirela, nazioartean zilegitasun handia dutenak, Nazioarteko Egiatze Batzordeko kideez haraindi.*

Estatuaren ordezkariak galdegin zutea ea zein formatutan emango ziren armen kokatze puntuak (USB giltza edo paperezko dokumentuak)? Bakegileek zehazten ahalko ote zieten zenbat gordeleku eta sail edukiko zituzten? Bi aldeek interesa zuten Frantziako agintariek azkar esku har zezan. Besteak beste, lehergailu indargabetzaile taldeak behar bezainbat

* Apirilaren 8an, Bakegileek emandako kokalekuak jaso zituzten nazioarteko bi pertsona ospetsu izango ziren: Ipar Irlandako bake prozesuan funtsezko papera izan zuen Harold Good pastorea eta Matteo Zuppi monsinorea, Boloniako artzapezpikua eta Vatikanotik gertu dagoen Sant 'Egidio komunitateko arduraduna. Frantzisko aita santuagandik hurbil, kardinal bihurtua geroztik, eta azkenik, Italiako Apezpikuen Biltzarreko lehendakaria).

mobilizatu beharko ziren, eta, beraz, ukituak izan zitezkeen departamenduez haratagoko taldeak ekarri beharko ziren.

Bigarren eztabaida fase bat hasi zen, apirilaren 8an edo lehenago atxilotuak izateko arriskuari buruz, baita leku lokalizagarrietan bildu behar ziren materialen joan-etorrien arazoari buruz.

Estatuko ordezkariak zioten segurtasun arazoak, lege arazoak eta arazo diplomatikoak sortzen zirela. Agintari judizialak, bere aldetik, ezin zituen begiak itxi egitate batzuen aurrean. Armak lekuz aldatu zirela ikusten bazuen, ez zuen loturarik izango agintaritzaren administratiboaren «iniziatiba ezarekin».

Bakegileak luzaz azpimarratu zuen Oier Gomezen kasua. Fiskaltzak apirilaren 8aren ondoren, bere askatasun eskaera helegite bat jartzen bazion, espetxean hiltzera kondenatuko zuen, eta inork ez zukeen hori ulertuko armagabetzea bezalako aurrerapauso garrantzitsu baten ondoren.

Bakegileek ezingo zuten berriro ere Bordelera joan, hurrengo astea biziki kargatua izango baitzen. Akordio bat egin zen erabiliko zen komunikazio bide motari buruz eta hurrengo hitzordu bat finkatu zen Baionan.

Frantses estatuko ordezkariak topaketa itxi zuten, Nazioarteko Egiatzatze Batzordearen zeregina eta parte-hartzea seinalatuz baita arma gordelekuetako behatzaileen presentzia ere. Arazorik delikatuena materialaren joan-etorrien ingurukoa zen. Erabakia ezeztatzina ote zen? Zaila zen. «Gezurra esango genizueke apirilaren 8a arazorik gabe egin daitekeenaren bermea dagoela esango bagenizue» aitortu zuten Frantses Estatuko ordezkariak. Bakegileak erantzuz zuten aterabide bat bilatu behar zela armategiaren desegitea apirilaren 8an osoki gauza zedin.

Arma hauen berreskuratze epe operatiboari buruz, zein zehaztapen egin ahal izango zitezkeen, Bakegileek, bereziki departamendu bakoitzeko kopuru eta kokapenari buruz, eta noiz egin ahal izango zuten? Hori garrantzitsua zen Frantses estatua antolatu ahal izateko, bereziki lehergailu indargabetzaileen kasuan.

Apirilaren 3tik goiti, apirilaren 8ko antolaketari buruz, ia egunerokoak dira Bakegileen eta Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehendakari eta Baionako auzapezaren arteko bilerak.

Bakegileen eta Nazioarteko Egiatzatze Batzordearen arteko aldizkako bilerak ere egiten ziren.

Beste topaketa batzuk ere antolatu ziren Hego eta Ipar Euskal Herriko eragile politiko, sindikal eta sozial anitzekin, apirilaren 8ko antolaketa azaltzeko eta haien parte hartzea finkatzeko.

Apirilaren 5a, asteazkena, Baionan: Bakegile baten eta Morvan prefetaren arteko bilera

Prefetak zehaztasunak eta bermeak ematen zituen apirilaren 8a ahalik eta baldintza hoberenetan garatzeko. Bakegileek baieztatu zuten Nazioarteko Egiatzatze Batzordeko kide batek armak Baionako Auzitegiari ematea, zuzenean Pariseko Fiskaltzarekin lotuz, 08:00etatik 09:00etarako tartean. Bakegileek nazioarteko ordezkariari egingo zioten kokaguneen entrega Baionako Herriko Etxean iragango zen lehentxeago. Nazioarteko Egiatzatze Batzordeak lokalizazio-guneetan biltegiatutako materialaren zerrenda egiaztatuko zuen, epaitegi-ara bidali aurretik.

Bakegileen behatzaileak, polizia bertara iritsi bitartean bertan egoteak ez zuen arazo berezirik sortzen. Bakegileen segurtasun zerbitzu bat arduratuko zen apirilaren 8ko arratsaldeko elkarretaratzearen garapen egokiaz, eta ez zen segurtasun-indarren presentzia ikusgarririk izango elkarreratze hori egingo zen gunean.

Bakegileak prefetari jakinarazi zion gordelekuak Frantses Estatuko hego-mendebalde handian zeudela. Laster emango zien gordelekuen kopurua. Espainiako Polizia gordelekuetara joan ez dadin eskatu zuen, eta soilik Frantziako Polizia egin zedila armen jabe.

Apirilaren 5ean, asteazkenean, Bilbon, Hego Euskal Herriko alderdi politiko eta sindikatu ia guztiek (EAJ, EH Bildu, PSE-EE, Geroa Bai, Podemos, Izquierda Unida, ELA, LAB, CCOO, UGT eta abar) prentsaurreko bateratua eman zuten, armagabetze prozesua babestu eta apirilaren 8ko eguna Baionan hizpide zuen testu bat irakurriz.

“Gaur komunikabideen aurrera agertu garen alderdi politiko eta sindikatuok iritzi publikoari geure analisia eta balorazioa jakinarazi nahi diogu ETaren berehalako armagabetzeak irekiko duen egoera dela eta.

Helburu hau betetzea oso lagungarri litzateke euskal gizarte eta politikan iraganarekin lotutako epealdi bat ixteko eta aukera emango luke, biktima guztiak gogoan izanik, orainaldi eta etorkizun fase berri batean aurrera egiteko, zeinak oinarritzat bizikidetzaz izango duen.

Armagabetzea bakerako beharrezko urrats bat da; ezinbesteko urratsa, izan ere. Horregatik, gure organizazioek eta herritarrek aspaldidanik nahi genuen gertatzea. Armagabetze atzerazina, erabatekoa, aldebakarrekoa eta baldintza politikorik gabea funtsezko mugarria da bortizkeriaren amaiera prozesu ordenatu eta behin betikoaren baitan.

Beraz, albiste ona dugu hau, eta sinesgarritasuna eman nahi diogu, baldintza hauetan adierazita dagoen heinean; espero dugu arrakastaz betetzea.

Horregatik, beste ezer baino lehenago aintzat hartu nahi dugu urrats hau posible izan zedin bertoko eta nazioarteko hainbat pertsona, organizazio eta erakundeak egin duten lana.

Hemendik aurrera, gure erantzukizuna da, organizazio politiko eta sindikalak garen aldetik, hainbeste hamarkadak utzitako ondorioak gainditzea. Besteak beste, geure organizazioentzako ere erronkak dira honakoak: hitza armagabetzea; zilegizko gure gorabeherak demokratikoki eta gizalegez bideratzea, eta tirabirak kudeatzeko elkarrizketa eta negoziazioari balioa ematea.

Ziur gaude, lehenago esan dugun bezala, armagabetze prozesu hau arrakastaz amaitu dadin lagungarria izan daitekeela instituzio errepresentatiboak, egiaztatze erakundeak eta gizarte zibila ordezkatzeko duten organizazioak behar bezala artikulatzea. Gure organizazioek bakearekiko duten konpromisoa berresten dugularik, honako gogoeta eta eskariak adierazi nahi ditugu:

- ETari galdegiten diogu lehenbailehen egin dezala armagabetze ekitaldi bakarra, aldebakarrekoa, osoa, behin betikoa eta egiaztatua.*
- Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari eskatzen diogu helburu hau gauzatze aldera garatzen ari den lan onarekin jarrai dezala.*
- Ondo deritzogu helburu hau lortzeko gizarte zibileko pertsona eta erakundeak inplikatzeari.*
- Gure Instituzioei dei egiten diegu jarrai dezaten gestioak egiten legezko eta segur-*

tasun bermeak izango dituen azken armagabetze ekitaldia babesteko, eta honen jarraipena egin dezaten.

- Espainiako eta Frantziako gobernuei eskatzen diegu ETaren armagabetzea burutzen lagun dezatela.

Azkenik, jakinarazten dugu gure organizazioak ordezkatuta egon daitezkeela, erabakitzen duten eran, Baionan apirilaren 8an deituta dagoen ekitaldian, Frantziako eta Iparraldeko ordezkariak politiko eta sindikal anitz eta zabal baten ondoan”.

Apirilaren 5ean, asteazkena, Arkautin, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako Foru Erkidegoko eta Euskal Elkargoko lehendakariak, Iñigo Urkullu, Uxue Barkos eta Jean-René Etchegarayren eta Ram Manikkalingam Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko zuzendariaren arteko bilera.

Eusko Jaurlaritzak egindako «Eusko Jaurlaritzak ETaren armagabetzean eta desegitean izan duen eginkizunaren deskribapena eta balorazioa» dokumentuaren arabera, bilera 20:00etan hasi eta goizaldeko 1:30ak arte luzatu zen. Dirudienez, hainbat desadostasun eta tirabira izan zituzten parte hartzaileek. Dokumentu horrek zehazten duenez, «bilkura bizia izan zen, eta une batzuetan baita tirabiratsua ere». Lehenik eta behin, Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen inbentarioari edo apirilaren 8ko armagabetzeak eragindako arma-kalkuluei buruz eztabaidatu zuten. Eusko Jaurlaritzak behin betiko egiaztatu ahal izango zuen bilera horretan «ez zela aldaketarik izango beste bi galdera gakoan inguruan ere: armagabetzea bera eta eszenografia soziala egun desberdinetan egitea, eta behatzaile boluntarioak bertan behera uztea.»

Apirilaren 6an, osteguna, ia Eusko Legebiltzar osoak, PPK izan ezik, EAJk eta PSE-EEk aurkeztutako mozioaren aldeko botoa eman zuen. Hona hemen edukia:

«Eusko Legebiltzarrak ETari eskatzen dio lehenbailehen egin dezala aldebakarreko armagabetze ekintza bakar bat, osoa, behin betikoa eta egiaztatua; Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari eskatzen dio jarrai dezala lanean helburu hori lortzeko; positiboki baloratzen du gizarte zibileko pertsona eta erakundeek inplikazioa helburu hori lortzen laguntzeagatik; Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jarrai dezala behin betiko armagabetze ekitaldi baten aldeko laguntzeko neurriak hartzen, legezketasun eta segurtasun bermeekin; Espainiako Gobernuari eta Frantziako Gobernuari eskatzen die ETaren armagabetzea amaitzen laguntzeko».

Apirilaren 6an, osteguna, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako idazkari nagusiak prentsa-ohar bateratu baten zirriborroa bidali zion Euskal Elkargoko lehendakariari, Euskadi, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko erkidegoetako hiru lehendakariak sinatzeko, Arkauteko bileraren berri emanez. Hona hemen komunikatu proiektu honen eduki osoa:

«Iñigo Urkullu Lehendakariak, Uxue Barkos Nafarroako Gobernuko Presidenteak eta Jean René Etchegaray Iparraldeko Elkargoko presidenteak lan-bilera bat eduki zuten, asteazkenean, Ram Manikkalingam Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeko Koordinatzailearekin.

ETaren azkeneko armagabetzearekin lotutako egoeraren eta berehalako urratsen analisia partekatzea izan zen bileraren lehendabiziko helburua.

Aldi berean, hiru erakundeek Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeari egindako lan onari babesa emateko balio izan zuen bilerak. Helburu hau lortze aldera, gizartearen inplikazioa ere baloratu zuten.

Azkenik, bideratzen ari den ETaren azken armagabetzearen prozesua behin betikoa, baldintzarik gabekoa eta egiaztagarria izatea eta legaltasun-bermeen esparru batean garatzea eskatu zioten hiru erakundeek Egiaztatzaileen Nazioarteko Batzordeari.

Bilerak, 20:00etan hasita, lau orduko iraupena izan zuen eta Gasteizko Neiker-Tecnalia ikerketa zentroaren egoitzan egin zen Arkauten.

Iñigo Urkullu Lehendakaria Jonan Fernandez Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkari Nagusiarekin egon zen bileran; Uxue Barkos Nafarroako Gobernuako Presidentea Alvaro Baraibar Bakea, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendariarekin eta Jean René Etchegaray Iparraldeko Elkargoko presidentea Marc Amestoy bere kabineteko buruarekin».

Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehendakaria harritu egin zen testu horretan Bakegileen eta jendarte zibilaren lanari buruzko aipamenik ez irakurrita, lan hori erabakigarria izan baitzen egoera horretara iritsi ahal izateko, ETaren erabateko armagabetzea ate-joka zegoen honetan.

Orduan, eztabaidan hasi ziren, eta Euskal Elkargoko lehendakariak ez zuen amore eman. Oroitarazten zuen jendarte zibilak jokatu zuen paperaren balorazio positiboa arazorik gabe agertzen zela, EAJk eta PSE-EEk, Jaurlearitzako gehiengoaren bi alderdiek, sostengatu zituzten hainbat adierazpen eta moziotan, bereziki Nafarroako Parlamentuak martxoaren 28an onartu duen adierazpenean: «*Nafarroako Parlamentuak onartu du jendartearen ordezkariak eta helburu hori*».*

Apirilaren 5eko prentsaurrekoko adierazpena zeinetan EAJk eta PSE-EEk parte hartu zuten: «*Ondo deritzogu helburu honi, gizarte zibileko pertsona eta erakundeak inplikatzeari*.» eta ia Eusko Legebiltzar osoak apirilaren 6an bertan bozkatutako ez-lege proposamaena: «*bai eta gizartearen inplikazioaren balorazio positiboa ere, helburu horri egindako ekarpenagatik*». Beraz, Euskal Elkargokoko lehendakariak eskatzen zuen «*bai eta gizartearen inplikazioaren balorazio positiboa ere, helburu horri egindako ekarpenagatik*» esaldia gehitzea.

Apirilaren 7ko goiz bukaerara arte segitu zuten eztabaidek. Euskal Elkargoko lehendakariak prentsa ohar baten proiektua eskatutako zuzenketarik gabe izenpetzeari behin eta berriz uko egin ondoren, azkenean Eusko Jaurlearitzak onartu zuen ondoko puntua sartzea: «*... valoraran favorablemente la implicación de la sociedad en su contribución a este fin*», erran nahi baita: «*... bai eta gizartearen inplikazioaren balorazio positiboa ere, helburu horri egindako ekarpenagatik*».

Horrenbestez, paragrafo aldatua honela geratu zen: «*Bilera horri esker, hiru erakundeek Nazioarteko Egiaztatze Batzordeari babesa ahal izan diote adierazi ahal izan diote ari diren lan onetarako, bai eta gizartearen inplikazioaren balorazio positiboa ere, helburu horri egindako ekarpenagatik*».* Prentsa oharraren bertsio aldatua hiru lehendakariak baliokotua izango zen, eguerdian igorria eta arratsaldean prentsak argitaratua.

Hala ere, bi urte eta erdi geroago, Eusko Jaurlearitzak honakoa idazten zuen Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren esku «*oroimenaren eraikuntzaren zerbitzura eta jendetearen eskura jarritako dokumentu gisa*» utzi zuen «*Eusko Jaurlearitzak ETaren armagabetzean eta desegitean izandako eginkizunaren deskribapena eta balorazioa*»ren

** "Nafarroako parlamentuak gizarte zibileko entitate eta pertsonen inplikazioaren balorazio positiboa egiten du, helburu horri egindako ekarpenagatik»

** «Esta reunión sirvió al mismo tiempo para que las tres instituciones expresaran a la comisión internacional de verificación su apoyo a los buenos oficios que viene desarrollando y valoraran favorablemente la implicación de la sociedad en su contribución a este fin».

espainolezko bertsioan. Prentsa oharraren proiektuaren hasierako bertsioa irakur daiteke! (Euskarazko bertsioan aldiz, gaztelaniaz idatzitako testua oinarri hartuta iragan ziren negoziatuetan gehituriko esaldiaren zatia du). Laburbilduz, zuzenketarik gabe idatzitakoa, eta «helburu horri egindako ekarpenagatik gizarteak izan duen inplikazioaren balorazio positiboa», Etchegaray lehendakariaren izenpetzea ahalbidetu zuena, eta prentsa oharrean hiru erakundeek argitaratu bezala agertzen dena (oraindik ere Eusko Jaurlaritzaren webgunean egiaztatu daiteke: <https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/38037-reunion-inigo-urkullu-uxue-barkos-jean-rene-etchegaray-con-comision-internacional-verificacion>).

Apirilaren 7an, ostirala, BBCri emandako prentsa ohar batean dagoeneko “ETA armagabetutako erakundea da, bere kontrolpean zeuden arma eta lehegailuak gizarte zibilaren esku baitaude” adierazi zuen ETAk.

Egun berean, Baionan, bi bilkura egin ziren eta mezu ezberdinak trukatuak ziren Morvan prefetaren, segurtasun-indarren arduradun baten eta Bakegileen ordezkari baten artean.

Egunak aurrera egin ahala, akordioak eta konpromisoak lortu ziren, eta Bakegileek pentsa zezaketen apirilaren 8an ez zela atxiloketarik izango, ezta armagabetzea osorik gauzatzeko operazio teknikoaren harira mobilizatutako pertsonak geldiarazten saiatzeko Ipar Euskal Herrian ezarritako kontrolik ere.

Fiskalak jasoko zituen armen kokalekuak, eta Vuelta-Simon jauna arduratuko zen haietaz, Parisko Fiskaltzarekin batera. Honek, Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko mandatariarekin hitz egin nahi zuen, azken horrek armagabetzea ikuskatzeko erabiliko zuen metodologia ulertzeko eta ETAREN armategi osoari eragingo ziola egiaztatzeko.

Ez zen arazorik izango arma gordelekuetan kokatutako Bakegile behatzaileentzat. Haien nortasuna jasoko zen, besterik gabe, segurtasun-indarrekin txandakatuko zirenean. Baina kazetariak leku horietan egotea ez zen onargarria izango agintarientzat. Bakegileentzat, prentsaren presentzia «segurtasun neurria» zen atxiloketei zegokienez. Hala ere, Bakegileek hitzeman zuten ez zutela kazetaririk gidatuko leku horien ingurura, apirilaren 8ko eguna atxiloketarik gabe iragaten zen bitartean. Morvan prefetari jakinarazi zioten arma-gordelekuak zeuden departamenduak Pirinio Atlantikoak, Pirinio Garaiak eta Gers izan zitezkeela, eta geroxeago zehaztu zuten ez zegoela ezkutalekurik Gersen, eta gehienez hamabi izango zirela.

2017ko apirilaren 8a

Apirilaren 8an, larunbata, goizeko 5etatik 7etara: Bakegileetako ehunka boluntario etxetik atera ziren, Ipar Euskal Herri osoan zehar, Baionara edo arma gordelekuetara eramanez behar zituzten bigarren mailako zortzi hitzorduetako batera. Bakegileetako boluntario batzuek hainbat material garraiatu zuten, etxeetan ezkutaturik zeudenak, eta Senpereko gunean bildu zituzten. Ez zegoen kontrolik inon.

Apirilaren 8an, larunbatarekin, 07:00etan: Bakegileek Frantses Estatuaren ordezkariak jakinarazi zieten zortzi arma gordeleku izanzen zirela orotara, denak Pirinio Atlantikoetan kokatuak, departamendu bakar horretan bildu zitezkeen beharrezkoak ziren zortzi lehegailu indargabetzaile taldeak.

* « Esta reunión sirvió al mismo tiempo para que las tres instituciones expresaran a la Comisión internacional de verificación su apoyo a los buenos oficios que viene desarrollando y valoraran favorablemente la implicación de la sociedad en su contribución a este fin. »

08:00ak aldera, Baionako Herriko Etxean, Txetx Etcheverryk eta Michel Tubianak zortzi karpeta entregatu zizkieten Matteo Zuppi monsinoreari eta Harold Good pastoreari Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen, Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehendakariaren eta Anaiz Funosas Bake Bideko lehendakariaren aurrean. Zuppi monsinoreak eta Good pastoreak, aldi berean, NEBren esku utzi zituzten eta hauek gela batera erretiratu ziren, lokalizazio puntu bakoitzari zegokion material zerrendak egiaztatzeko.

08:30tan, Bakegileek Morvan prefetari deitu zioten zortzi arma gordelekuak kokatuta zeuden herrien izenak helarazteko eta Bakegileetako zortzi arduradunen telefono zenbakiak pasa zizkieten. Ia une berean, polizia-auto batek bidea ireki zien Bakegilee batek gidatutako ibilgailuari eta lokalizazio-puntuak biltzen zituzten karpetak zeramatzan Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen mandataria eraman zuen Baionako udaletxetik epaitegira. Horrela, polizia-autoak Justizia Jauregiko auzora sartzen utzi zien, goizeko lehen ordutik itxita zegoen auzora. Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen mandataria hartu zuen Vuelta-Simon prokuradoreak. Entzunaldia 11ak baino lehentxeago amaitu zen

09:00etan, Baionako antzokian, Jean-René Etchegaray Euskal Elkargoko lehendakariak, Ram Manikkalingam Nazioarteko Egiaztatze Batzordeko lehendakariak, Matteo Zuppi artzapezpiku jaunak, Harold Good pastoreak eta Txetx Etcheverry eta Michel Tubiana bi Bakegileek prentsaurrekoa eskaini zuten mundu osoko kazetari anitzen aurrean.*

09:00etatik aurrera, Frantziako Polizia, lehergailu indargabetzaile taldeak lagun zituela, lehen arma gordelekuetako lekuetara iristen hasi zen, Bakegileen behatzaileak agurtu zituen bertan, haien nortasuna jaso eta erreleboa hartu zuen giro guztiz adeitsu eta ofizialean. Orduan, Bakegileen behatzaileek alde egin zuten eta Baionara jo zuten. Orotara, 172 ziren, zortzi lekutan eta gainontzeko operazio ezberdinetan banatuak. Arma-gordelekuetako bitan, emandako argibideak gorabehera, poliziak eta lehergailu indargabetzaileek leku zehatzak aurkitzeko zailtasun handiak izan zituzten, eta bertan zeuden Bakegileen arduradunei deitu zieten, beren bidea aurkitzen lagun ziezaieten. Frantziako Polizia eta lehergailu indargabetzaile taldeak leku guztietara iritsi ziren 12:00ak baino lehen.

10:30etatik goiti, bakeari eta gatazken konpontze prozesuei buruzko hitzaldi eta proiektzioak hasi ziren Baionan.

11:00etan, Baionako Euskal Museoan, Bake Bideak Anaiz Funosasek eta Mixel Berhogoirigoin zein Michel Tubiana Bakegileek zehaztasun gehiago eman zituzten egunaren nondik norakoei buruz, eta dena ongi zihoala jakinarazi zioten prentsari.

11:30ean, Matthias Fekl Barne ministroaren prentsa oharra Parisen*.

Hona hemen bere adierazpenaren funtsa: «(...) *Gure segurtasun eta ordenako indarrak goizeko 9etatik ari dira bilaketa lanetan. Lokalizazio horiek egin ahala, ordena eta segurtasun indarrek denbora errealean egiten dute leku horien segurtatzea eta han aurki daitezkeen arma eta lehergailuen segurtatzea. Gure helburua erraza da, hau da, arriskutsua izan daitekeen operazio hau, armak eta lehergailuak direla gogorarazten dut, pertsonen eta ondasunen segurtasunerako arriskuak ahalik eta gehien murrizteko moduan egin ahal izatea. Arma eta lehergailuen armategia indargabetzeko urrats hau urrats handia da. Zalantzarik gabe garrantzitsua den egun honetan, oso pentsamendu berezia dut biktima guztientzat, haien familientzat, hurbilekoentzat eta, bereziki, polizientzat eta guardia zibilentzat. Pirinio Atlantikoetako departamenduko talde operatiboko jendarmeez gain, Jendarmeria Mugikorreko bi eskadroi eta Segurtasun Konpainia errepublikar bat, 180*

* 300 kazetari akreditatu baino gehiago ziren Apirilaren 8ko eguna Baionatik jarraitzeko.

emakume eta gizon, segurtasun zibileko hamar bat talde, polizia judizialeko eta barne segurtasuneko langile asko, mobilizatuak dira gaur operazio garrantzitsu honeetarako. (...)»

15:00etatik goiti, 20.000 lagun bildu ziren Baionan, Paul-Bert plaza eta inguruetan. Manifestu bat irakurri zuten euskaraz Estitxu Eizagirrek, Argia aldizkariko zuzendariak; frantsesez, Louis Joinetek, NBEko Giza Eskubideen Batzordeko magistratu ohiak; gaztelaniaz, Fernando Armendarizek, Foro Sozialeko kideak; eta ingelesez, Susan George idazleak. Ipar eta Hego Euskal Herriko sentsibilitate politiko guzietako 120 pertsona ospetsu bildu ziren eszenatoki batetik mintzatu ziren.

« (...)

Ez gara herri guztia; hori egia da, baina inork ezin du ukatu Baionara gure herriko alde guztietatik, lurralde orotatik etorri garela, era guztietako jendea, alde bateko eta besteko pentsakera duena. Eta hona iritsi garelarik, sentitzen dugu aurrerantzean zailagoa izango dela, agian ezinezko, herriari eta bere jendeari dei egitea bakea eraikitzeko ez bada. Hemen bildu garenok bat gatoz kontu batekin, eta ez du azalpen handirik behar: bakea ez da soilik bortizkeria eza... Halaber, bat gatoz bortizkeria bada ez dagoela bakerik. Horregatik, armagabetzea beharrezkoa zen, bakearen bidean ezinbesteko urratsa zelako. Armagabetzea jada gauzatu da eta mugarri honek gure historiaren kapitulu bat ixten du kapitulu honetan samina, heriotza eta agonia nagusi izan dira eta hau atzean utzi nahi dugu... baina ez atzera begiratu gabe.

Gure bihotza eta oroitzapena biktimengan jarrita daukagu biktima guztiengan, lehenagoak eta orainagoak; ezagunak eta ezezagunak, arma hauen eta arma oroien biktimak. Haiiek, guztiak, tragediaren zamapean zanpatuta bizi izan dira edo bizi dira, eta ez da erraza izan gaurko egun honetara etsipenean erori gabe iristea; denek ez dute lortu. Bakea ez denez soilik bortizkeria eza, biktimak gogoan ditugula hitzematen dugu etorkizunean oroitzapena eta aitortza izango dutela, egia eta justizia egin nahi dugula eta aldarri hau bota: “ez da berriz gertatuko!”, “ez da berriz gertatuko!”.

Hitzematen dugu etorkizunean izango dela lehenago ebatsi zitzaien bizikidetzeta eta adiskidetasuna eta borroka berriak -zergatik ez? - bide onetik eramango ditugula, gizalegezkoak eta zibilizataileak izango direla. Hitzematen dugu ere haien memoria ez dugula baliatuko, ez guretzat etekina lortzeko, ezta besteren kalterako ere.

Gure oroitzapena ez dago soilik iraganera begira oraina ere mingarria baita esaterako presoena, beren senide eta adiskideena. Gure ustez, inor ez da galtzaile -aitzitik, guztiok irabazten dugu-legea eta politika gaurko egoerara moldatzen badira, urrutzea bukatzen bada eta presoak Euskal Herrira ekartzen badituzte, beren ingurura; gaixo dau-denak eta zigorra bete dutenak libre uzten badituzte. Etxeratzea lehenbailehen izatea nahi dugu. Hau ere beharrezkoa delako, posible izan behar da.

(...) »

Gauaren hasieran, Frantziako lehen ministroaren prentsa oharraren argitalpena.

Hona Bernard Cazeneuve Frantziako lehen ministroaren adierazpena, Matignon hotelean, 2017ko apirilaren 8an:

«Gaur goizean, “Bakegileak” deituriko pertsona ezagunen biltzarrak Baionako Errepublikako prokuradoreari eman dio Pirinio Atlantikoetan aurkitutako 8 lekuren zerrenda bat, non ETaren armak ezkututzen ziren. Parisko Fiskaltzako terrorismoaren aurkako sekzioak

* Matthias Feklek deklaratu zuen 2024ko apirilaren 2an, defentsak gonbidatuta, Beatrice Molle-Haran eta Txetx Etcheverry Bakegileen epaiketan.

zuzendutako aurretiazko ikerketa baten baitan, zeinaren Baionako prokuradorea baztertu baitzen, Polizia Judizialeko Terrorismoaren aurkako Zuzendariordetzako funtzionarioak ezkutaleku horietara sartu dira. 3,5 tona arma, lehergailu eta lehergailuak egiteko materiala aurkitu dute. Produktu arriskutsuak suntsituko dira. Armak eta materialak Justiziaren agintepean aztertuak izango dira, eta beti bezala, Espainiako Justiziarekin lankidetzan estuan lan egingo du, bildutako elementuak oraindik martxan dauden auziak konpontzen lagun dezaketen egiaztatzeko. Frantziako Gobernuak pozik hartu du lasaitasunez eta indarkeriari gabe egindako operazio hau. Hori urrats erabakigarria da euskal terrorismo independentistaren amaierarako. Egun honetan, pentsamendu bat adierazi nahi dut ETaren 829 biktimentzat, eta bere ekintza terroristen ondorioz zauritutako milaka pertsonentzat.

Bereziki gogoan dut Jean Serge Nerin brigadier-burua, 2010eko martxoaren 14an Dammarié-les-Lysen hil zuten polizia frantsesa. Bere izena gehitu zaio beren eginbeharra betetzeagatik hildako magistratu, segurtasun-indar eta militar espainiarren zerrenda luzeegiari.

Erakunde horren aurkako borrokaren arrakastak nazioarteko lankidetzaren funtsezko ekarpena azpimarratzen du. Frantziako eta Espainiako polizia indarrek, Pirinioetako bi aldeetako fiskalek eta epaileek garatutako salbuespenezko loturei esker amaitu ahal izan da noraez hori. Gaurko armagabetzea justiziaren agintepean bakarrik egin da, Zuzenbide Estatuak eta errepublikar printzipioek eskatzen duten bezala. Bost hamarkadako indarkeriaren amaiera adierazten duen eta bakoitzaren oroimenn eta aurrerabiderako borondatea errespetatuz, Euskal Herriari inoiz kendu behar ez zitzaion bake iraunkorreko aro bat irekitzeko aukera emateko nahia adierazten dut.»

2017ko apirilaren 8aren ondotik

Apirilaren 13tik goiti, Bakegileak eta Morvan prefetaren artean harreman eta bilkura berriak iragan ziren, baita frantses estatuko beste ordezkari batzuekin ere.

Apirilaren 8ko balorazio bat antolatu zen. Konpromisoak bi aldeetan bete zituzten, eta gauzak arazorik gabe egin ziren. Bakegileek Oier Gomezen kasuari eta preso mantentzeari buruz aritu ziren berriz ere. Azpimarratu zuten armagabetzea elkarrizketaren eta kontzertazioaren bidez baliozkotu izanak ahalik eta jende gehienarentzat egokia den moduan egi- tea ahalbidetu zuela. Ortzimuga berri bat zabaltzen zen Euskal Herrian. Bakegileek behin eta berriz zioten bide beretik jarraitu behar dela eta baretze ikuspegi berriak ireki behar zirela.

Balorazio horetan, azken urteetan «naturan galdutako» armen eta lehergailuen gaia ere jor- ratu zuten Bakegileek, ETA erakundeak apirilaren 8a baino lehen aurkitu ezin izan zituena. Egun hori baino lehen, ETAk eta Bakegileek akordio bat erdietsi zuten, material hori guztia berreskuratzeko ikerketak egiten jarraitzeko beharrari buruz. Bakegileek Frantziako Esta- tuarekin komunikazio kanal bat, eta prozedura bat behar zuten arma eta lehergailu horiek emateko, baldin-eta hurrengo hilabeteetan aurkitzen bazituzten. Bide eta prozedura ho- riek ondoko hilabeteetan plantan ezarriak izango ziren, eta bi aldiz erabiliko ziren 2018an.

- **2017ko apirilaren 26an,** Oier Gomez euskal preso askatu eta Baionako ospitalera eramane zuten. Aurreko aldietan ez bezala, fiskalak ez zuen helegiterik aurkeztu.

- **2017ko uztailaren 10ean,** Frantziako gobernu berritzearen ondoren, Ipar Euskal He- rriko hautetsiek, Bake Bideako ordezkariak eta Bakegileek osatutako ordezkartza bat errezipitu zuen Frantziako Justizia Ministerioak. Euskal presoen gaiari buruz, ofizialki,

elkarrizketa eta lan eremu bat sortu zen lehen aldiz.

- **2018ko otsailaren 9an eta apirilaren 25ean**, Bakegileek 2 arma eta lehergailu itzuli zizkieten Frantziako agintariei.

- **2018ko maiatzaren 3an**, ETA erakundeak publikoki iragarri zuen haren desegitea.

-**2017ko maiatzaren 11n eta 12an**, Bakeagileek hainbat bilera egin zituzten Hego Euskal Herriko eragile batzuekin: Sortu, EAJ, PSOE, Podemos, ELA, LAB. Bakegileen eta Foro Sozialaren arteko antzeko bilera bat egingo zen geroxeago, 2017ko ekainaren 14an.

10. BILERA

2017ko maiatzak 12, ostirala, Bakegileen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko bederatzigarren bilera

Bakegileek armagabetze egunera eraman zuten prozesuaren eta honen iragatearen balantzea egin zuten. ETAREN biktimen elkarteekin harremanetan jartzeko borondatea aipatu zuten, haiekin lan bat egiteko, baita euskal presoen aldeko mobilizazio bat antolatzeko proiektua ere, Parisen, 2017 bukaera aldera.

Harriturik zeuden Eusko Jaurlaritzaren jarrerarekin. Azken honek ez zuen inola ere onartzen bere zalantza, beldur, informazio eta hipotesi batzuk okerrak edo funtsik ga-

beak gertatu zirenik. Kontua ez zen Jaurlaritzak Bakegileekin egin zuen lehen bileraren aurretik izan zuen beldurra gogoraraztea: «*Historia honek urte bat edo bi iraungo du, armagabetze partzialaren saiakerak biderkatu egingo dira, aldi bakoitzean atxiloketak eraginez, Eusko Jaurlaritzak ezereen berri izan gabe, edo bestela azken unean, eta bere parte-hartzea desiratu gabe*», baina Bakegileek ez zuten ahaztu Eusko Jaurlaritzak apirilaren 8aren aurreko hilabete osoan zehar iragartzen zuena: hau guztia gaizki bukatuko zela; Bakegileak zuzen zihoazela operazioaren amildegi eta porrotera; istiluak eta liskarrrak izango zirela Bakegileen eta arma-gordelekuetara iristen ziren Polizien artean, atxiloketak; poliziak egunak pasa zitzaizela arma ezkutalekuetara iritsi baino lehen; agintari frantsesek ez zutela onartuko lege-esparrua hertsiki ez betetzea, eta, beraz, armen eta lehergailuen leku aldaketak eragotziko zituztela; Frantziako Gobernuarekin akordiorik ez zegoela; eman zitekeen gauza bakarra zela Bakegileek halako magistratuari, halako ordutan, kokapen-puntuak ematea; Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak eta, beharbada, Euskal Elkargoko lehendakariak ez zutela Apirilaren 8an parte hartuko.

Eusko Jaurlaritzak ez zuen txintik ere esan operazioak bere iragarpenen oso bestelakoak izan zirela aitortzeko. Armagabetzea modu ordenatu eta seguruan egin ahal izan zen. Ipar Euskal Herriko errepideetan ez zen errepide kontrolik ezarri apirilaren 8ko goizean. Ez zen atxiloketarik edo istilurik izan, ezta polizia-etxera edo auzitegira deitutako pertsonarik ere apirilaren 8aren ondoko egunetan. Bakegileen eta Frantziako gobernuaren artean egiazko hitzarmen/lankidetzak eskema bat plantan ezarri ahal izan zen. Bakegileen eta Parisen artean ezarri zen komunikazio kanalak ezin hobeto funtzionatu zuen, eta hartuak izan ziren engaiamendu guztiak alde bietarik bete ziren, aitzinamendu berrien alde lan egiteko aukera emanaz.

Maiatzaren 12ko topaketa horretan, Bakegileek Hego Euskal Herriko eragile politiko eta sozial ezberdinekin egindako apirilaren 8ko balantzeak ere aipatu zituzten: oso positiboak dira.

Nazioarteko Egiaztatze Batzordeak apirilaren 8an parte hartu zuen, armagabetze operazioen errealitatea ziurtatuz; Euskal Elkargoko lehendakariak parte hartu zuen, eta aktiboki lagundu zuen operazioen garapen onean; Frantziako lehen ministroak publikoki zoriondu zuen egun berean.

20.000 pertsona bildu ahal izan ziren modu baketsuan eta inolako istilurik gabe Baionan, ETaren armagabetzea bultzatzeko, bake atzeraezin, global eta justu baten aldeko apustua babesteko, eta prozesu horretan beste aurrerapauso batzuk egitearen alde egiteko, bereziki biktimei zor zaien aitortza- eta egia-lana, presoan eta erbesteratuen auzia eta elkarbizitzarena.

2017ko Uztailaren 24a: Nazioarte Egiaztatze Batzorde presidentea Ram Manikkalingamek Bakegileek idazten die armagabetze prozesuak aurrera jotzeko hartu dituzten arriskuengatik. Prozesuaren “*azken fasean haien papera erabakigarria*» izan dela zehaztu.

2019ko urriaren 14a: Eusko Jaurlaritzak «*Eusko Jaurlaritzak ETaren armagabetzean eta desegitean duen eginkizunaren deskribapena eta balorazioa*» txostena plazaratu zuen. Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan utziko zuela iragarri zuen, «oroimenaren eraikuntzarako dokumentu publiko gisa»

* Bakegileek apirilaren 8ren ondoren jakingo zuten apirilaren 3an, Espainiako Poliziak Frantziako terrorismoaren aurkako poliziarik jakinarazi ziola bi arma ezkutaleku aurkitu zituztela, bata naturan eta bestea etxe batean. Haien desegiteko operazio bat egitea proposatzen zuen. Frantziako Poliziak horren berri eman zion Frantziako gobernuari, baina honek betoa jarri zuen, hori probokazio gisa biziko zelakoan, armagabetze globalera zihoazenean.

2019ko urriaren 23a: Bakegileek prentsa ohar bat argitaratu zuten, txosten horren edukia zalantzan jarritz, «*Historiaren berridazketa bat besterik ez da, gezurrean oinarritua eta guztiz interesatua*» esanez, eta honakoa iragarri zuten “*txosten honetan modu moztuan eta okerrean agertzen diren Eusko Jaurlaritzarekin izan ditugun bilera eta eztabaiden berri emango dugu beranduago*”.

PRENTSA AGIRIA

2019ko urriaren publiko egin zen «Descripción y valoración del papel desempeñado por el gobierno vasco en el desarme y disolución de ETA» txostenaren berri izan dute Bakegileek.

Guztiz kontra egiten dugu Eusko Jaurlaritza eta ETaren armategia desegiteaz arduratu zen Bakegileen artean izandako harreman eta bilkurak aipatzen dituen zatiaekin. Historiaren berridazketa bat besterik ez da, gezurrean oinarritua eta guztiz interesatua. Irakurleak batzuetan atera dezakeen ondorioa guztiz kontrakoa da, makurrik eta atxiloketarik gabe iragan den ETaren armagabetze osoan Eusko Jaurlaritzak izan duen paperari doakionean. Txosten honetan modu moztuan eta okerrean agertzen diren Eusko Jaurlaritzarekin izan ditugun bilera eta eztabaiden berri emango dugu beranduago.

***Bakegileek izenean,
Michel Berhocoirigoin eta Txetx Etcheverry***

2016ko urriaren idatzitako hitzarmena «Bakegileak» izenekoan filosofia, balioak eta printzipioak zehazten dituena.

(Luhusoko ekintzan parte hartu zuen boluntario bakoitzak testu honen edukia atxikimendua adierazi behar zion alde aurretik. Mixel Berhocoirigoinek, Txetx Etcheverryk eta Michel Tubianak izenpetu zuten. Testua 2016ko abenduaren 16an zabaldu zen, ostiralarekin, etorkizuneko Bakegileen Artisauen eta ETaren artean trukaturako mezuekin batera).

Euskal Herria bere historiako aro berri batean sartu da. 5 hamarkada baino gehiagoko borroka armatuaren ondoren, biktimak eta traumak daude eremu guztietan. 5 urte igaro dira ETak borroka armatua uzteko ekimena hartu zuenetik.

Zain eta esperoan egon gara. Baina kontua ez dago konponduta. Konpondu egin behar dugu! Historiak irakatsi egiten digu, inposatu...

Adibide guztiek, mundu osoan, gatazkak konpontzen aditu guztiek badakite bakea eta elkarbizitza ez direla ezartzen protagonista ezberdinak mahai beraren inguruan jartzen ez badira. Badakigu hori ez dela dekretatzen, eta denborari denbora eman behar zaiola... Baina badakigu, era berean, hori egiten ez bada, sendatu gabeko zauria izan daitekeela, kutsatzen dena. Saihestu egin behar da. Ez bakarrik balizko atzerapauso baten beldurrez, baizik eta bake kolektiborako baldintzak sortzeko, eta beraz, bakoitzaren barne bakearena.

Horrek esan nahi du gizarte zibilaren inplikatu behar dela eta prozesuaren arrakastan paper garrantzitsua bete. Euskal Herriko biztanleek elkarriketa nahi dute. Nazioarteko Komunitateak parte hartu du, bai Aieteko Nazioarteko Konferentziaren bidez, bai Nazioarteko Egiaztatze Batzordearen bidez. Orain, Frantziako eta Espainiako estatuak gatazkaren konponbide demokratikoan inplikatu behar dute, biktima guztiak errespetatuz bake akordio bat lortzeko.

Hona hemen bake prozesuarekin aldaketa esanguratsuak izan behar duten esparruak: ETAREN azpiegiturak armagabetzeko eta desegiteko baldintzak eta prozedurak aplikatzea, biktima guztiei zor zaien errekonozimendua eta erreparazioa; memoria- eta egia-betebe-harra; gatazka militarra sortu duten gaiak eremu politikora eramatea; presoak baldintza-pean eta alde zurretik askatzeko legea aplikatzea, baina, era berean, auzi hori behin betiko konpontzeko prozesu bati begira jartzea, azkenean preso guztien behin betiko irteera ahalbidetuz. Gatazka konpontzeko prozesu guztiek, modu partekatuan, iraganaren orrialdea pasatzeko eta bake iraunkorra lortzeko elementu erabakigarri gisa integratu behar dute.

Ikuspegi orokor horretatik, gaur egun gure esku hartzea armagabetzeari buruzkoa da. Azken hori aditu guztiek, gatazka-eskualde guztietan identifikatu dute bake prozesuaren funtsezko elementu gisa. *“ETARI dei egiten diogu bere armagabetze prozesua bururaino jarrai dezan. Nazioarteko komunitatearen ahaleginarekin bat egiten dugu Frantziako eta Espainiako gobernuek prozesu horretan parte har dezaten, eta armagabetze hori modu koordinatuan eta kontrolatuan egingo dela bermatuko duen espazio egoki bat ezartzea eskatzen dugu»*. 2015/06/11ko Bake Konferentziaren amaieran Parisen irakurritako *«Euskal Herriko bakearen aldeko manifestua»* ren laburpena. Baina armagabetze hori modu *«koordinatu eta kontrolatuan»* egin dadin, lankidetzak eskatzen du edo, gutxienez, estatuen parte-hartzea, zoritxarrez gertatzen ez dena. Horrek egoera guztiz zentzugabea sortzen du, non erakunde armatuak armak eman nahi dizkion estatu bati, zeinek hori posible izatea ukatzen duen. Tristatzen gaituen eta biziki kezkatzen gaituen egoera horren aitzinean, herritar libre gisa parte hartzea deliberatu dugu, eta arriskuez jakitun.

Erakunde armatu baten -zeinarekin harremana edo menpekotasunik ez dugun- eta gogoeta egitera eraman nahi dugun estatu baten artean kokatzen gara. Harropuzkeriatzat jo daiteke, baina erantzukizuna gure gain hartzea erabaki dugu, bakerako baliagarria izan daitekeela sinetsita.

Horregatik, ETA erakundeari proposatu diogu bere armategi militarra suntsitzearen erantzunkizun politikoa gizarte zibilaren esku uztea.

Modu publiko eta onartuan egitea hautatu dugu, egunerokoan gure egiten dugun en-gaiamendu ororen kasuan bezala. Konpromiso horiek publikoak eta gardenak dira. Honako ezaugarri hauek dituzte: inplikazio pertsonala, demokraziarekiko kezka, indarkeriarik ezaren hautua, bakoitzaren errespetua, min guztiak intentsitate berekoak direla eta sortzen dituzten efektu eta ondorioei dagokienez ere maila berekoak direlako sentimendua. Atzo ezinezkoa zirudiena bihar egia izan daitekeelako ustea ere badugu ezaugarri. Ekintza indartsu hori planteatuz, Euskal Herriko bake-prozesu zuzen eta iraunkor baten protagonista izan daitezkeen guztiak osoki inplikatu daitezzen, ahal den guztia egin dezaten, azkar eta osoki.